



Erizaintza: zaintza
zaintan duen
ogibidea

Estibaliz Urresola
zine-zuzendariari
elkarriketa



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



LURRALDEKO ERRONKAK BERBAGAI BOST DIPUTATUGAI NAGUSIEKIN

Gipuzkoak diputatu nagusi berria izango du maiatzaren 28ko hauteskundeetan ostean; ekonomia, gizarte politika, mugikortasuna, zergak eta euskara izan dituzte hizpide bost hautagai nagusiek / 2

Ezkerretik hasita, zutik: Miren Etxebeste (Elkarrekin), Eider Mendoza (EAJ) eta Jose Ignacio Asensio (PSE-EE); eserita: Mikel Lezama (PP) eta Maddalen Iriarte (EH Bildu). Miramonen, Donostian. MARKEL ARRAYAGO

EIDER MENDOZA
EAJ

"LANGILEEN PARTE
HARTZEAN
SAKONTZEA
EZINBESTEKOA DA"

MADDALEN IRIARTE
EH BILDU

"DEBAGOIENAK
TRAKZIO GAITASUNA
BERRESKURATU
BEHAR DU"

JOSE IGNACIO ASENSIO
PSE-EE

"LANBIDE HEZIKETAN
ETA UNIBERTSITATEAN
ERREFERENTEA DA
DEBAGOIENA"

MIREN ETXEBESTE
ELKARREKIN GIPUZKOA

"DEBAGOIENAK
DAUKAN PREMIA
NAGUSIA LURRALDE-
KOHESIOA DA"

MIKEL LEZAMA
PP

"GIPUZKOARREN
APALTASUN, LAN ETA
GOGOAREN ISLA DA
DEBAGOIENA"



Arrasateko Ttak! gazte taldeko ordezkariak, Monterronen. GOIENA

**Euskararen aldeko lan-dinamika
aurkeztu du Ttak! taldeak** / 11

Txomin Artolaren
'Belar hostoak'
diskoaren moldaketa
eskainiko dute
Seminarixoa gaur / 34

SINADURAK



JOSU
ZUBIA / 28



VALEN
MONUX / 8



MIKEL
ARREGI / 40

%15^{eko}
DESKONTUA
GURE MARKA
ESKLUSIBO
ETA PRODUKTU
GUZTIAN*

Garibai etorbidea 6 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 25 80 86
@ begia_optika

Zatoz kupel honekin
maiatzaren 15etik
ekainaren 30era bitartean!

*Ez da aguragorri beste promozio batzuekin batera



Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiak, Txomin Madina Goienako kazetariarekin, mahai-ingurua hasi aurretik. MARKEL ARRAYAGO

Diputatugaiak, M-28ra begira

Eider Mendozak, Maddalen Iriartek, Jose Ignacio Asensiok, Miren Etxebestek eta Mikel Lezamak ekonomia, mugikortasuna eta euskara izan dituzte berbagai, besteak beste, Goienak, GITBk, Erluk eta 28. Kanalak elkarlanean ekoiztutako mahai-inguruan

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Gipuzkoako Foru Aldundirako bost diputatugai nagusi, baina helburua bakarra da: maiatzaren 28ko foru hauteskundeak irabaztea. Egun horretan aterako da Gipuzkoako diputatu nagusi berria. Berria, zentzu guztietan; izan ere, ardura horretan jardungo duen aurreneko aldia izango da nagusitzen denarentzat. Honako hauek dira hautagaiak: EAJtik Eider Mendoza (Azpeitia, 1974), EH Bildutik Maddalen Iriarte (Donostia, 1963), PSE-EEtik Jose Ignacio Asensio (Tolosa, 1966), Elkarrekin Gipuzkoatik Miren Etxebeste (Irun, 1983) eta PPTik Mikel Lezama (Donostia, 1993). Goienak, GITBk, Erluk eta 28. Kanalak elkarlanean ekoiztutako eta Txomin Madina kazetariak gidatutako mahai-inguruan hartu dute parte, asteon, bost hautagaiak, eta gaurkotea-

sunezko eta programako hainbat gaitaz aritu ziren, besteak beste.

Egoera ekonomikoa

Egoera ekonomikoaz hitz eginez eman zioten hasiera mahai-inguruari, eta, hainbat arlo jorratu bazituzten ere, arreta industrian jarri zuten. Maddalen Iriarte izan zen hitza hartzen lehena. Industriak BPGarekiko indarra galdu duela eta zerbitzuek hartu dutela azaldu zuen. "Alde horretatik, neurri batean", ekonomia prekarizatu egiten dela. Kontrara agertu ziren Mendozak eta Asensio, BPGaren pi-

DIPUTATU NAGUSI BERRIA IZANGO DU GIPUZKOAK, DIPUTATUGAI GUZTIAK BERRIAK BAITIRA

surik handiena industriak zuela erantzun baitzuten. Mendozak nabarmendu zuen ekonomia babesten jarraitu behar dutela; era berean, eguneroko zailtasun horiei erantzun behar zaiela, adibidez, deflaktazio sistemarekin. Sistema hori ondo ikusten du Etxebestek, familia askorentzat "ona" izan dela iritzita, baina, aldi berean, kezkarria dela dio administrazioarentzat eta zerbitzu publikoarentzat: "Diru-sarrera altukoei ez zaie gehiago eskatu; beraz, politika horri ezingo diogu eutsi". Deflaktazioak zaurgarriak direnei ez diela ondo erantzun gehitu zuen EH Bilduko diputatugai.

Datu ekonomikoak "onak" direla azaldu zuen Asensiok, baina familiak "pobreagoak" direla eta, horregatik, beharrezkoa dela ongizatea bermatzea. Lan-erreformaren harira, kontra

bozkatzeari leporatu zien EAJ eta EH Bilduri. Lezamak, berriz, langabeziaren gorakadan eta diru-bilketan jarri zuen arreta: "Enpresak itxi zituzten eta diru-bilketaren errekorra egin zuen Aldundiak. Instituzioak jendearen dirua hartzen du, eta jendea da laguntza behar duena".

Mugikortasuna

Garraio publikoaren askotariko balorazioak egin arren, ados agertu ziren oraindik erronkak badaudela eta hobekuntzak egiteko daudela, garraio publiko kolektibo, jasangarri eta elektrifikatutako bidean. Lezamak arreta errepideen azpiegiturak hobetzean jarri zuen. Mugi sistemarekin erabiltzaileek hobia-riak izan arren oraindik herri-tarrek auto partikularrak erabiltzen dituztela adierazi zuten Iriartek eta Etxebestek. Iriarteren hitzetan: "Pentsatu egin behar dugu nola izan daitekeen erosoagoa garraio publikoa garraio pribatua baino". EH Bilduren eta Elkarrekin Gipuzkoaren iritziz, kontuan hartu beharreko guneak dira enpresa nahiz ikastetxeak, besteak beste, eta autobusean joateko alternatibak eman behar zaizkie.

Zerga-sistema

Tentsio punturik gorena Mendozak *Etorikizuna eraikiz* proiektu estrategikoa mahai gainean jarri zuenean etorri zen. Galdera bota zien Iriarteri eta Etxebesteri: "Zergatik aurkeztu dituzue zuzenketak aurrekontuetan, ekonomia prestatzen lagunduko duen proiektuaren kontra?". Iriarte irmo azaldu zen: "Egin ditugu kontrako proposamenak ere, eta proposatutakoetatik oso gutxi da zuek onartutakoa". "Errealitateatik at" zeudela erantzun zion Mendozak, eta Etxebestek hartu zuen hitza: "Badi-rudi Aldundian eredu bakarra zuena dela eta ez duzuela beste eredurik onartzen. Ez badituzue gure errealitateak jasotzen, ezin ditugu bozkatu". Iriarte eta Mendozak erreforma fiskalaren inguruko eztabaidan sartu ziren eta Asensiok esan zuen erreforma

egin eta "progresiboagoa" izan behar zuela. Iriartek gehitu zuen unea iritsi dela hausnarketa egiteko.

Pandemia eta egoitzak

Gizarte politikei dagokienez, adinekoen egoitzaren kudeaketaz eta pandemiatik ikasitakoaz jardun zuten; tartean, osasun-langileei eta familiei aitortza egin zieten. Iriartek gaineratu zuen herri proiektua izan behar dela eta "halabeharrez" lidergo konpartitua. Mendozak, berriz, lankidetzaz azpimarratu zuen: "Adinberri proiektua ere badugu zahartzaro aktiboan lagunduko duena. Beraz, helburua da ondo zainduak izatetik etxean bezala zainduak izatera igarotzea. Horretarako, martxan daukagu trantsizioa elkarlanean". Asensiok adierazi zuen euren asmoa dela aurrekontuen erdia gizarte politketara bideratzea, "pertsoneen eskubide duinak" bermatzeko. Etxebestek hitzartzean honako hau zioen, besteak beste: "Zaintza lanak ere negozio bilakatu dira eta Aldundiak bidea ireki du hala izateko. Lehentasuna horri buelta ematea da, zaintza ezin baita merkantilizatu, eta ezin da egon enpresa baten irabazien menpe". Lezamak, aldiz, itxarote-zerrendak ezabatu behar direla esan zuen, eta erresidentzia berriak eraiki.

Lanpostu publikoetan euskara

Administrazioeko euskararen ezagutza nahiz erabilera —ezagutza igo, erabilera jaitsi— eta epaitegi-tako erabakiez, laburtuz honako hau esan zuten diputatugaiak. EH Bilduren ustez, euskarak "herri honetan" bizi diren eta biziko diren emakume eta gizon guztien ondarea eta eskubidea izan behar du. EAJk azaldu zuen GFAn langileen %97k dutela hizkuntza eskakizuna beteta, eta hor ikusten dela erakunde eta langileak euskalduntzeko ahalegina. PSE-EEren iritziz, euskararen erabilera bultzatu egin behar da, baina kontu handiarekin, "lan eskubideak eta baldintzak urratu gabe". PPren ustez, berriz, gaztelania eta euskara bermatu behar dira. Naturaltasunez nahi dute jendeak euskaraz hitz egitea, ez behartuz. Azkenik, Elkarrekin Gipuzkoaren aburuz, hizkuntza eskakizunek ez dute euskararen egoera konpontuko, baina badira filtro eta muga jende askorentzat.

MAHAI-INGURUA GAUR GAUEAN IZANGO DA IKUSGAI GOIENA TELEBISTAN, 21:00ETAN HASITA



Diputatugai nagusiak, Debagoienari buruz



EIDER MENDOZA
EAJ

"Debagoiena da Gipuzkoaren motor ekonomikoetako bat"

Bizitzan zehar Arantzazu izan da Debagoienarekin lotu duen elementua. Azaldu duenez, etxetik jaso du atxikimendu hori eta gaur egun ere badu hara joateko joera: "Askot betetzen nau hango espiritualtasunak eta naturak".

Gipuzkoaren motorra

Debagoiena da Gipuzkoaren motor ekonomiko eta sozial nagusienetako bat, Eider Mendozaren esanetan, eta "asko" eman dio Gipuzkoari eta Euskal Herria osoari ekonomia sozialaren eta balio kooperatiboen ikuspegitik. "Hori kontuan izanda, langileen partaidetzan sakontzea ezinbestekoa dugu etorkizunera begira". Bailerako premia nagusiei begira, ekonomian jarri du azpimarra, haren iritziz, Debagoienak "punta-puntako" industria sarea garatzen eta mantentzen jakin duelako, eta horri eutsi behar zaiolako, "digitalizazioak eta trantsizio energetikoak dakartzaten desfioei aurre eginez".



MADDALEN IRIARTE
EH BILDU

"Etorkizuneko erronkei erantzuteko lanean ari zarete"

Familia eta lagun onak dauzka Debagoienean Iriartek. Arantzazun ere askotan izandakoa da, Pello Zabala senitarteko zuelako. Donostian jaioa bada ere, gustatzen zaio Arrasate kalekoa dela nabarmentzea.

Erronkei erantzuten

Debagoienaren eta beste eskualdeen premia "mundu mailako erronkei" erantzuteko prestatzea dela dio, eta, "zorionez", bailaran lanak egiten ari direla Debagoiena 2030 lankidetzaren sarearen barnean. Eskualde garrantzitsua izan da XX. mendean Debagoiena. "Arrasate, Bergara... herri garrantzitsuak ziren Gipuzkoako imaginarioan. Ehun ekonomiko eredugarria zeukan, aktibitate handiko eskualdea zen... Pisu ekonomiko eta sozial handiko eskualdea izan da Gipuzkoan. Gure proposamena esanguratsua da, alderdi horretatik: orekaren ideari jarraiki, Debagoienak traktzio gaitasuna berreskuratu behar du", dio Iriartek.



JOSE IGNACIO ASENSIO
PSE-EE

"Debagoiena potentzial handiko eskualdea da"

Herritar talde batek eskatuta tokiko energia komunitateei buruzko hitzaldi bat egitera etorri zen duela gutxi Asensio Debagoienara; zehazki, Arrasatera.

Debagoiena, erreferente

Debagoiena "potentzial handiko" eskualdea dela dio Asensiok, eta eskualde hori dela Gipuzkoatik industria-enpresa gehien biltzen dituen, eta, era berean, erreferentea dela lanbide eta unibertsitate heziketaren esparruan: "Horregatik, gure programan, eskualdeko ekintza planen sustapena dago, arreta berezia jarrita gazteen enpleguan. Horretarako, beharrezkoa da aurrean ditugun hiru trantsizioetan —digitala, ekologikoa eta demografikoa— gure industria sektore estrategikoetan posizionatzea". Bailerak Gipuzkoari —eta alderantziz— "asko" ematen diola nabarmendu du, "batez ere", erakundeen arteko elkarlana bermatzen bada: "Gure kudeaketaren oinarrian dago".



MIREN ETXEBESTE
ELKARREKIN GIPUZKOA

"Bailararen premia nagusia lurralde-kohesioa da"

Etxebeste Irunen jaioa da, baina Debagoienean gaztaroko ezagunak badituela azaldu du, eta duela aste batean bildu zen Eva Abuinekin Arrasaten, garraio publikoaz hitz egiteko.

Berdintasuna eskualdeetan

Elkarrekin Gipuzkoako ahaldungaiak adierazi du Gipuzkoako beste edozein eskualdek bezain beste ematen diola Debagoienak Gipuzkoari; baina Debagoienak Gipuzkoari gehiago ematen diola Gipuzkoak ibarrari baino. Debagoienaren premia nagusia lurralde-koehioa dela. Esan bezala, garraio publikoaren inguruan hitz egiteko bildu zen Abuinekin, eta, azaldu duenez, autobus berriak erosi behar dira eta autobus-lineak kudeatuko dituen enpresa publiko bat eratu, Donostiako DBUSen antzera: "Xehetasunak aparte, Donostiako DBUS oinarritzko eredu ona iruditzen zaigu lurralde osora zabaltzeko". Helburutzat ditu "gehiengoaren" ongizatea lehenestea "interes partidisten gainetik".



MIKEL LEZAMA
PP

"Ez litzateke Gipuzkoa ulertuko Debagoiena gabe"

Azpeitia eta Zumaia artean hazi zen Lezama, eta Urola-Kostatik Debagoienara askotan etortzen zela aitortu du; hala ere, azken bisitak Mondragon Korporazioarekin izandako bilerengatik egin ditu.

Historia, kultura eta ezagutza

"Ez litzateke Gipuzkoa ulertuko Debagoiena gabe, ezta Debagoiena Gipuzkoaren parte izan gabe", dio Lezamak; bi norabideko bidea dela. Bailerako azpiegituran eta garraio publikoaren arloan konponbideak jorratu beharko liratekeela uste du. Honako hau esan du Debagoienaz: "Nekazari eskualdea da, oso industrializatua eta kooperatibismoaren mugimenduaren erdigunea. Historia, kultura eta ezagutza ematen ditu eskualdeak. Beharrezko pieza da etorkizuneko gipuzkoar baten zimenduak eraikitzeko. Gipuzkoarren izaeraren isla da. Kooperatibismoaren sorlekua da. Gipuzkoarren apaltasun, lan eta gogoaren isla".

arizmendi
ikastola

PRO

LAN
BIDE
HEZIKETA

AURREMATRIKULA

IZENA
EMAN!



Maiatzaren
8tik 26ra

Gizarte
eta kirol
animazioaren
irakaskuntza



Osasun
larrialdiak



Mikroinformatika
sistemak eta
sareak



Erizaintzako
zaintza
osagarriak



Bailarako 18 hautagai Batzar Nagusietarako

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lau barrutietan 51 hautagai izango dira: Donostialdean, Bidasoa-Oiartzunen, Orian eta Deba-Urolan. Horietan ordezkari-tza zabala izango dute alderdi askotariko bailarako hautagaiek –hamazazpi kide–

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako, Nafarroako Parlamenturako eta lau herrialdeetako udalerri eta kontzejuetarako hauteskundeak egingo dituzte maiatzaren 28an. Bozketa egunaren ostean, ekainaren 2tik 5era izango da emaitzen boto zenbaketa ofiziala, eta, ekainaren 16tik uztailaren 6ra bitartean, udalak eta Batzar Nagusiak eratu-tuko dira –udalak, 17an, zapatua–, ahal-dun nagusiak hautatu...

Bailarako ordezkariak

Lau barrutiak kontuan izanda, orotara, 51 batzarkide aukera-



Gipuzkoako Batzar Nagusien osoko bilkura bat. 'GIPUZKOA.EUS'

tuko dira Gipuzkoan, Batzar Nagusietarako: Donostialdean, Bidasoa-Oiartzunen, Orian eta Deba-Urolan. Hauteskunde-barruti bakoitzari batzarkide kopuru bat dagokio, barrutiko biztanle kopuruaren arabera. Donostialdean, 17 aukeratuko dituzte herritarrek; Deba-Urolan –Debagoiena hor sartzen da– 14; Bidasoa-Oiartzunen, 11, eta Orian, 9.

Hori horrela, Gipuzkoako Batzar Nagusietan zenbait debagoiendar aurkeztu dira hautagai gisa: hamazortzi, guztira.

Deba-Urola barrutian aurkeztu diren 6 zerrenden artean 14 hautagai dira Debagoienekoak. EH Bildutik 6: Aitor Irure aretxabaletarra bigarren; Iker Intza bergararra zazpigarren; Nerea Zubia oñatiarra zortzigarren; Amaia Etxabe arrasatearra hamabigarren; Jasone Giraldo arrasatearra lehen orde-zko, eta Ainhoa Lete bergararra hirugarren orde-zko. EAJtik 3: Aintzane Oiarbide bergararra bigarren; Ander Garai arrasatearra bosgarren, eta Maite Agirre bergararra hamaikagarren. PSE-EEtik ba-

karra: Aritz Murua arrasatearra (PSE-EE) bosgarren postuan. Eta, Elkarrekin Gipuzkoatik lau: Juan Luis Merino eskoria-tzarra lehenengo; Eva Abuin arrasatearra bigarren; Mario Romero arrasatearra laugarren, eta Blanca Merchan eskoria-tzarra seigarren. Oriako barrutian, berriz, bakar-ra aurkeztu da: Rafa Uribarren arrasatearra (EAJ) laugarren postuan. Bidasoa-Oiartzunen ere bakar-ra: Rafaela Romero arrasatearra (PSE-EE) lehenengo postuan. Eta Donostialdean bi: Eneritz Otamendi eskoria-tzarra (EH Bildu) hirugarren postuan eta Xabier Otxoa aretxabaletarra (EAJ) zazpigarren postuan.

Deba-Urola barrutian, EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Elkarrekin, PP eta STOP aurkeztu dira; beste barrutietan, horiez gain, baita Aulki Zuriak ere.

DEBA-UROLA BARRUTIKO HAMALAUTIK ZAZPI HAUTAGAI DIRA DEBAGOIENDARRAK

Aurrera, batera!

Arrasate

EAJ
PNV

MARIA UBARETXENA CID
Arrasateko alkateztararako hautagaila

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA
Gipuzkoako diputatu nagusiarako hautagaila

EAJ-PNV.EUS

1 2 3



Debagoieneko EH Bilduko alkategai guztiak Eskoriatzan, plaza parean. EH BILDU

Bailarako erreferente izaten jarraitzeko estrategia garatuta

I.B. DEBAGOIENA

Bailaran erreferente izaten jarraitzeko eskualderako proposamena garatu du EH Bilduk, "lidergo politiko sendo baten bulkadarekin". Hori horrela, datozen hilabeteetarako hiru lan-lerrotan oinarritutako estrategia integral bat garatzea proposatzen dute.

Ekitaldia domekan Arrasaten

Domekan, 12:30ean, Biteri plazan egingo du ekitaldi nazionala EH Bilduk. Han, Maider Morraskin batera Arnaldo Otegi eta Mad-

dalen Iriartek hartuko dute hitza, eta honako hau aurreratu dute: "Merezi eta behar dugun eraldaketarako herri proiektua aurkeztuko dugu. Aitzindariak eta erreferenteak izan gaitezten berriz ere, justizia sozialean oinarritutako herri ekintzailea, plurala eta euskalduna komunitatean eraikitzeko. Bizi eta maite dugun Arrasateren alde bihotza jarrita lan egingo duen egitasmoa, udal eta foru erakundeen ateak herriari zabalduko dizkiona, gure herria norabide berrian jarriko duena".

EAJren ekitaldi nazionala, domekan Arrasaten

Herriko Plazan 12:00etan batuko dira jeltzaleak, M-28ra begirakoak aurkezteko

I.B. DEBAGOIENA

Domekan egingo dute jeltzaleek hauteskunde-kanpaina hasierako mitin nazionala. Arrasaten batuko dira EAJko zenbait alderdikide esanguratsu EAJko alkategaiarekin batera. Hitzordua Herriko Plazan izango dela jakinarazi dute, 12:00etan, eta han izango dira, Maria Ubarretxena gain, Eider Mendoza, EAJko Gipuzkoako diputatugai nagusia; Iñigo Urkullu, lehendakaria; eta Joseba Egibar, Gipuzko Buru Batzarreko presidentea. Ekitaldia *streaming* bidez emango dutela jakinarazi dute ohar bidez.

Ekonomia digitalari buruzko jardunaldiak egin dituzte

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak eta Paz y Solidaridad Euskadik *Ekonomia digitalak gure udalerrietan duen eraginari buruzko nazioarteko jardunaldia* egin zuten atzo Arrasaten, Etxaluzeko erailinean. Jardunaldiaren helburu nagusia ekonomia digitalaren moduak aztertzea izan zen, besteak beste, antolatzailerak adierazi dutenez.

Sozialistek gaur egingo dute ekitaldi nagusia, Arrasaten

PSEk gaur egingo du ekitaldi nagusia, Arrasaten, 11:30ean, Biteri plazan. Jose Ignacio Asensio PSEko Gipuzkoako diputatugai nagusia izango da, Aritz Murua PSEko Arrasateko alkategaia, Alberto Albistegui Deba-Urolako barrutiko zerrendaburua, Maria Jose Telleria Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaia eta Arrasateko gainerako hautagaiak.

Debate politikoak, gaur hasita, Goiena telebistan

Gipuzkoako bost diputatugai nagusiekin egindako mahai-ingurua 21:00etan emitituko da

I.B. DEBAGOIENA

Gipuzkoako diputatugai nagusiekin egindako mahai-ingurua emitituko da gaur, Goiena telebistan, Txomin Madinak aurkeztutako saioan. Horrekin batera, bailarako alkategaiekin debateak izango dira hilaren 15etik 25era bitartean, egunero, Txomin Madinak eta Goiatz Aranek aurkeztutako saioetan; 21:30ean eta 23:30ean. Herriz herriko saioak hasi aurretik, gainera, hilaren 15ean hasita, egunero, Gipuzkoako diputatugai nagusi batekin elkarrizketa ere izango da, Mireia Galartzak aurkeztutako saioetan, 21:00etan hasita.

**GARAJE LIBREAK
SALGAI**



Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES
• ARRASATE •

EZOHIKOA

ZURE - ZUREA

Bizimodua aldatzeko etxebizitza
estilo berri bat iritsi da

**GUSTATZEN ZAIZUNA
ALDATU GABE**

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak
Gourmet aretoa • Gimnasioa

900 11 00 22 • neinorhomes.com



Deitzaileak, grebaren berri emateko agerraldian, Donostian. ELA

Garbikuntzan greba deitu du ELA sindikatuak

Gipuzkoako eraikin eta lokaletako garbikuntzan greba deitu du ELAk, maiatzaren 22tik 28ra, "prekarietatea amaituko duen" hitzarmena lortzeko asmoz. Debagoienez elkarretaratzea deitu dute maiatzaren 15erako, Copreci parean

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Gipuzkoako eraikin eta lokaletako garbikuntza sektorean greba deitu du ELAk, maiatzaren 22tik 28ra. "Sektorean 5.000 garbitzaile daude, langileen %90 baino gehiago emakumeak dira, eta horrek esan nahi du prekarietatea nagusi dela soldata txikiarekin, lanaldi partzialekin, lan karga handiekin...". Azaldu dutenez, bost urte daramatza sektoreak hitzarmenik gabe, eta erosahalmena %15 galdu dute garbikuntzako langileak. Gaineratu dute 1.180 euro gordineko hileko soldatak dituztela lanaldi osoengatik, eta sektoreko langileen %80k baino gehiagok lanaldi partzialak dituztela. Sindika-

tutik azaldu dutenez, garbikuntzako langileak egiturazko pobrezia sistematikora kondenatzen dituzte, patronalak KPIa bermatzen ez dielako. "Maskulinizatu-tako sektoreetan ez da zaltantzan jartzen soldata igoerak erosahalmena erreferentzia bezala izan behar dutenik; garbikuntzan, berriz, KPIaren erreferentzia ez da inoiz baliouduna patronalarendako".

Maiatzaren 15ean

Horiek horrela, ELAk uste du garaia dela sektorea antolatze-ko eta mobilizazioak hasteko, eta, "bizi duten prekarizazioa ikusita", greba egitea erabaki dute. Maiatzaren 22tik 28ra deitu dute

hori, baina datorren astean mobilizazioak egingo dituzte Gipuzkoa osoan, eta, Debagoienez, Aretxabaletako Copreci enpresaren aurrean elkartuko dira. ELAko kide Alberto Ferreirok azaldu duenez, egoeraren erantzule dira garbiketa enpresak kontratatzen dituzten industria, udal edo bestelako enpresak ere. "Garbiketa zerbitzu bat kontratatzen dute eta egungo hitzarmenak ezartzen duen pobrezia- ra kondenatzen ditu langileak. Eta nahiz eta esan aldarriarekin ados daudela, ez dute egoera bideratzeko ezer egiten. Horregatik egingo ditugu elkarretaratzeak garbiketa enpresen bezero diren lantegien aurrean".

Argazkia egingo dute bihar Larramendin, lurraren defentsan

Maiatzaren 20an Gasteizen egingo den 'Euskal Herria bizirik' manifestaziora deitzeko argazkia egingo dute

M.A.A BERGARA

Euskal Herria Bizirik plataformak manifestazioa deitu du maiatzaren 20rako Gasteizen. Hego Euskal Herrian lurraren defentsan ari diren hainbat tal-

de ekologistak sortu dute ekimena, natura babestu eta azpiegitura handien kontra egiteko. Egun osoko egitaraua antolatu dute: kontzertuak, antzerkia, ipuin kontaketa eta abar, eta

18:00etan abiatuko da manifestazioa, San Anton plazatik.

Hilaren 20ra begira motorrak berotzen joateko, bihar, zapatua, Bergarako San Juan auzoan elkartuko dira manifestazioa deitu duten eragileetako kideak, eta argazkia egingo dute Larramendin, 13:00etan. Debagoienezko lau talde daude deitzaileen artean: Larramendiko Arnasa, Aramaio Bizirik, Karakate Bizirik eta AHT Gelditu plataformak dira horiek.

Ibilgailu astunendako bidesaria babestu egin du Auzitegi Nagusiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak pozez hartu du Errepideko Garraioaren Espainiako Batzorde Nazionalak jarritako errekursoari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak plazaratu duen epaia. Erabaki horrek "ibilgailu astunendako bidesarien onarpen definitiboa egiten du eta azken bultzada ematen dio Gipuzkoako Batzar

Nagusietan gehiengoz onartutako hirugarren foru arauari", azaldu du Aintzane Oiarbide diputatuak. Gaineratu du epaiak sistema "justuago eta iraunkor-ragoaren" alde egin duela. "Izan ere, garraiolariei ordainketa ezarri aurretik, gipuzkoarrok bakarrik egiten genien aurre errepideen mantentze gastuei gure zergen bidez, baina gaur egun erabiltzaile guztiek egiten dute ekarpena gaitasun handiko gure sarearen kostuen ordainketan".

ULMA Forja S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2023ko maiatzaren 19a
Ordua: 09:30ean lehenengo deialdian eta 10:00etan bigarrenen
Lekua: R.M. Zazula Institutuko aretoa - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERREDA

- AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDEI EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
- 2022KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZE ETA ONARTZE, HALA BADAGOKIO, ETA 2023KO GESTIO PLANA BERRITZEA, HALA BADAGOKIO
- ULMA TALDEARI BURUZKO TROSTENA
- 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZE ETA ONARTZE, HALA BADAGOKIO
 - 2022ko ekitaldiako Urteko Bankako Kontak aztertzea eta onartzea, hala badagokio
 - 2022ko ekitaldiako informazio ez-finantzarioaren egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
- AUDITOREA EZENDATZE ETA BERRAUTATZE
- KAPITALAREN ORDAINKETA, 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
- 2022KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZE
 - 2022ko ekitaldiako emaitzak banatzea
 - Bosendatzeko Erreserba Fondetako banatzea
- HALA BADAGOKIO, HAU EK ALDATZE: (I) POGU III-KO II. TITULUAREN 1.4.2 ETA 4.4. ATALAK ETA III. TITULUA, BAI ETA ESTATUTU SOZIALETAKO 31. BILN) ARTIKULUA ETA LEHEN ETA HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK ERE, KOOPERATIBA MONDRAGON KORPORAZIO KOOPERATIBOA, SOZIEATE ZIBILEAN BAJA EMATEAGATIK ETA HOKREN ONDORIOZ KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZATRESNEN ARAUAK GARATZEAGATIK; ETA (II) ESTATUTU SOZIALETAKO 52. BOST ARTIKULUA, KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENEN MUGAPENARI BURUZKOA, ETA BARNE ARAUDEKO 16. ETA 20. ARTIKULUAK, BATZAR NAGUSIAREN FUNZIONAMENDUARI BURUZKOA, ARAU TESTUAREN ARGITASUNA INDARTZEKO ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMETERA EGOKITZEKO
- JARDUTERA SOZIALA ULMA N ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZE
 - 2022an ULMA Fundazioak IPDKetik egindako emilerari buruzko deskargua
 - 2023an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena
 - ULMA Fundazioak, 2023an, IPDKekin eratutako fondoarentzat aurrekiritako aplikazioa azaltzea
 - ULMA Fundazioak 2023eko aurrekiritako jardura sozialaren ikuspegiaren azalpena
- BAZKIDEI BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
- ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZE
- HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
- AHALMIENAK ESKUORDEITZE
- GALDEI-ESKIAK

OHAIAK: Bazkideei proposatzen ariko Kooperatibaren egitasun etorkizunari buruzko kontak, informazio eta finantzioaren egoera jasotzen duen kontabilitatearen, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kargu iturrietatik egindako geroztako kontak, Batzar Nagusiaren deialdian ariko ordu arazoak eta beste arazoak. Hala ere, bazkide guztiak jakinarazten ariko Kooperatibaren egitasun etorkizunari buruzkoak, Kooperatibaren Batzar Nagusiaren eta POGU IIIen proposatutako aldatutako testu orriak eta aldatutako testu justifikazio testuak, eta hori duen emaitza orri bidezko erabakia.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2023ko apirilaren 28a



Nola erabaki zenuen ziklo hau egitea? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Lehenengo Mekanizazioako erdi mailako zikloa egin nuen Aretxabaletan. Amaitzerakoan, zalantzak nituen lanean hasi edo goi mailako ziklo bat egin eta, azkenean, MGEPn Fabrikazio Mekanikoko Programazioaren Produkzioa egitea erabaki nuen. Erdi mailako gradua egin ondoren irteera naturala da, eta, gainera, aurreko zikloan dualean egon nintzen lantegiko lankideek ere ikasten jarraitzeko aholkatu zidaten. MGEP aukeratu nuen, nire lagun batzuek han ikasi dutelako eta oso gustura ibili direlako.

ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola moldatu zarete?

Bi urte hauetan talde erronkak landu ditugu eta kurtsoan zehar ikasi dugun guztia praktikan jarri dugu. Metodologia oso ona dela iruditzen zait. Taldean lan egiten, elkarren artean antolatzen, elkarren artean komunikatzen, aurkezpenak prestatzen eta egiten ere ikasten da.

Lehenengo mailan erronka baten bidez konturatu ginen prozesua, nik horren ezaguna nuen mekanizatua, badagoela hobetzerik. Pieza bat mekanizatu behar genuen baldintza estandarretan, baina gero, makinaren ezaugarriak bilatu behar genituen, eta, horiek ezagututa, mekanizatzeke beste parametro batzuk proposatu behar genituen makinaren potentzia osoa erabiltzeko. Ematen dizkiguten baldintzekin zuzenean ez gelditzeko aukera zegoela ikasi genuen, pentsatzea eta proposamenak egitea ere garrantzitsua zela.

Bigarren mailan beste hainbat fabrikazio-prozesu landu genituen. Askok gustatu zitzaidan pieza bat estanzazioz lortzeko egin behar den bidea ikustea, ez bakarrik estanzak mekanizatzea CAM eta CNC bidez, baizik eta kalkulatzeko zein material-masa sartu behar den pieza sendoa lortzeko; kudeaketarekin ere sartu ginen: epeak, material beharrak, mantentze denborak...

Programazioa goi mailako teknikariari makinekin lana egitea baino dezente gehiago eskatzen zaio!

“Bi urte hauetan talde erronkak landu ditugu eta kurtsoan zehar ikasi dugun guztia praktikan jarri dugu”

Julen Errasti Gardoki (Aramaio)

**Fabrikazio Mekanikoko Programazioaren Produkzioa
Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)**

Duala JMAn egin duzu; nolako izan da esperientzia?

Duala egitea gomendatuko nuke. Oso aukera ona iruditzen zait, lan-esparruak nola funtzionatzen duen ikusteko eta gauza berri asko ikasteko. Gainera, dual modalitatearekin, behin kurtsoa amaitutakoan aukera gehiago dituzu enpresa berean lanpostu bat eskain diezazuten JMAn tresneria atalean nago. Han, ikasitakoa aplikatzeaz gain, asko ikasten ari naiz; adibidez, zigiluak nola mekanizatzen diren, grabatuak, hainbat makina erabiltzen... Lankideekin dudak harremana ona da, lan-giroa oso ona delako.

Zer egin nahiko zenuke aurrerantzean?

Nire asmoa lan egitea da. Fabrikazio Mekanikoko Programazioaren Produkzioa zikloarekin nahikoa prestakuntza dudala uste dut. Dualak ere lan esperientzia eman dit, eta hau garrantzitsua da lana aurkitzeko orduan.

Bete du zikloak hasieran egin nahi zenuena?

Erabat. Bi kurtsoak espero bezala joan dira; are gehiago, aurretik erdi mailako ziklo bat eginda nuenez, ikasgai batzuk baliozkotuta nituen eta CNCko ezagutza batzuk errepasatzeko aukera eman digute. Askok ikasi dugu eta oso ondo etorri zaigu gero enpresara joan garenean.

Eman izena!



MGEP: 664 298 683 // 664 298 704

INSKRIPZIO-DATAK: Maiatzaren 8tik 26ra



ZABALIK

VALEN MOÑUX

Hamabigarren hauteskundeak

Maiatzaren 28an udal hauteskundeak egingo dira, eta 1979ko lehenengoetatik hamabigarrenak izango dira. Beste erakunde batzuetan ez bezala, udal agintaldiek lau urte zehatz irauten dute eta hauteskundeak ez dira sekula aurreratu.

Udalbatzak dituen eskumen guztiak finkatzen ditu araudiak. Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 25. artikulua udalerrien erantzukizunei buruzko epigrafe guztiak jasotzen ditu. Zerrenda, gutxi gorabehera, honako hau da: hirigintza, ingurumena, ur-hornidura, bide-azpiegitura, gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa, udaltzaingoa, babes zibila, suteen prebentzioa eta itzaltzea, trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna, hiri-garraio kolektiboa, turismo-jardueraren informazioa eta sustapena, azokak, hornidurak, merkatuak

LANA EZ DA BATERE ERRAZA; BATZUETAN, LATZA, ETA, KASU ASKOTAN, ERANTZUKIZUNA


sustapena, nahitaezko eskolatzea betetzen dela zaintzen parte hartzea, herritarrek informazio-teknologiaren erabilera eraginkor eta iraunkorrean parte hartzea eta, azkenik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta genero-indarkeria sustatzeko jarduerak.

Egia esan, buruari buelta batzuk eman behar zaizkio udalaren ardura ez diren gaiak aurkitzeko. Udalbatzan sartzeko boto-kopuru nahikoa lortzen duten pertsonen gai horiek guztien ardura izango dute, eta, gainera, auzokideen, lagunen eta ahaideen kontrol zorrotzaren eta oso hurbilaren menpe. Lana ez da batera erraza; batzuetan, latza, eta, kasu askotan, erantzukizuna. Oraindik, *gratis et amore* ematen duten pertsonen gain dago, zinegotzi askoren kasuan bezala, gure herrietan, behintzat. Nire desiorik onenak zerrendetan aurkezten diren pertsona guztiei, eta nire aurretiazko zorionak erantzukizuneko postuak lortzen dituztenei.

eta merkataritza ibiltaria, osasungarritasun publikoaren babesa, hilerriak eta hileta-jarduerak, kirolaren eta kirol-instalazioen sustapena eta astialdiaren okupazioa, kulturaren eta kultura-ekipamenduen

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Koroak

MIKEL ELORZA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/XXNHW](https://labur.eus/xxnhw)

Maite ditugu maite koroak, patuak besteren buruetara eramaten dituenean ere. Eta hala, osotero ateak garen arren, egungo fede nagusiaren azken ekitaldi liturgikoak 20.000 lagun eraman zituen Sevillara (tartean arerio bat edo beste ere bai, fedekidetasunak mirarizko elkarketak egiten baititu estadioetan, ezker eta eskuin elkarren ondoan jarritz kontrarioak). Eta beste milaka lagunek begi guztiak jarrita geneuzkan Osasunak

futbolaren koroa jantziko zuen esperantzan. Kukuak zuri kantatu zuen, ordea, eta ez gorri (bizitzan bezala, futbolearen ere), eta burua soil itzuli ginen etxerat. Dena den, fede berriak amarru zaharrak gordetzen ditu, eta hartan bekatuak errezo batzuk eginez *konpontzen* diren bezala, honetan koroa galduta itzultzen zara baina burua harro, portaera zoragarria izan duzulako eta giro aparta jarri duzulako eta kaleetan erakutsi duzulako afiziorik onena dela zurea, gurea. Garaipenik ez, baina afizio onena. Eta segi aurrera. Jendea etxera bai, baina begiak beste koroatz batera eraman genituen, osotero

errepublikarrak baldin bagara ere. La Polla Recordsek kantatzen zuen begira geundela begira *¡qué hacen ahora en Londres!*, eta horrelaxe, 40 urte geroago, ondo jubilatuta behar lukeen edadean lanean hasiko den, esateko modu bat da, morroiari so jarri gara. Sasoi horretan lanean hasi beharrez –urdira baino, printze urdindua da hau, arraioa!–, ez naiz harritzen urrezko karrozan egitea bidaia. Diamantezkoa ere bazegokion! Lo-suman nengoela, istripu *erreal*a amets, burkoari galdetu diot: espantuak jota zaldiak azpian harrapatuz gero erregeren baja *in itinere* litzateke? (...)

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Itziar Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Zein eredu nahi dugu, pribatua ala publikoa?

PITER ENCINAS

ARRASATE

Zergatik idazten dut gutun hau? Apirilaren 7an irakurri nuen guraso batzuek 2023-2024ko ikasturteko hezkuntza matrikulazioen ondorioz haserretu eta euren iritzia eta aldarrikapenak kaleratu zituztela; ika-mika sortu zen.

Hasteko, esan behar dut hezkuntza eredu publikoa nahi dudala, euskalduna, laikoa, doan, inolako segregaziorik gabekoa: arraza-, sexu-, ekonomia- eta gizarte-segregaziorik gabekoa. Nolabait, aitortu beharko genuke segregazioarekin biharko euskaldunei atea ixten diegula.

Nire iritziz, gai horretan bi alde desberdin daude: bata, hezkuntza-sistema publikoa defendatzen eta bere gabeziak salatzen dituen; eta bestea, hezkuntza-eredu pribatua, elitista eta segregazionista defendatzen duena, baina garbi esaten ez duena.

Bestalde, onartu beharko genuke *Madri*len egiten dituzten legeek guztiei berdin eragiten dietela; kontrakoa esatea gezurra esatea da, eta argudio horrek eta beste batzuek –hizkuntza, kultura, azalaren kolorea, erosteko ahalmena...– ez lukete balio izan behar iritziz desberdina duenari aurre egiteko.

Bi eredu artean arrakala dagoela aitortuko bagenu,

beste gauza bati buruz hitz egingo genuke. Zergatik esaten dut hori? Osasunari buruz hitz egiten dugunean, *gure* ospitaleen egoerari buruz ari gara –*gure* profesionalen lan-baldintza txarreari buruz, mediku, erizain, laguntzaile eta garbitzaile faltari buruz–. Hori guztia aipatzen dugunean, ez dugu hitz egiten ospitale pribatuaren gainean. Beraz, zergatik ez dugu berdin jokatzeko hezkuntzarekin?

Eredu publikoa defendatzen duen inori ez diot entzun ikastetxe pribatuak itxi behar direnik, baina eredu pribatuaren defendatzaileei entzun diet ikastetxe horiek diru publikoarekin finantzatzeko jarraitu behar dutela.

Bukatzeko, diru publikoa jasotzen jarraitu nahi duenak publikoa izateko aukera dauka; bestela, enpresa pribatu arrunt gisa funtzionatu beharko du, eta kito.

Oharra: gai horrekin lotuta 2022ko martxoan idatzi nuen gutuna hemen: <https://labur.eus/0cbPl>.

Zein izan da?

JOSU GARITONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Hor dabilta, urtebete pasatxo, Errusia eta Ukraina elkarri bonbak jaurtitzen.

Aurten, baina, zera aldatu da: mundu mailan energia

nuklearreko erakunde batek arduradun bat ipini du Txernobyl ingurua zaintzeko: Rafael Grossi jauna, hain zuzen ere. Gatazkaren alde biei eskatu die lasai lagatzeko Txernobyl ingurua, baina ez diote kasurik egin; eztanda-hotsak gertatu dira, eta Rafaellek galdera hau bota die: "Zein izan da?". Betiko erantzuna: eskoletako umeek bezala, errua elkarri leporatzen hasi dira.

Bake denboran simulazio bat egiten ari zirela gertatu zen hondamendi nuklearra Txernobylen. Orain, gatazkan, auskalo zer gerta daitekeen, baina ez dago eskolara joan beharrik jakiteko bake eta gatazka garaietan soberan daudenak zentral nuklearrak direla; izan ere, beti izango dira arriskutsuak guretzako eta ondorengo belaunaldientzako.

Kontuan izan argindarra kontsumitzeko garaian norekin gabiltzan tratuan.

Oraingoan bai, normaltasuna heldu da nire baitara

ARITZ ARRIETA KABIKETA

MARBELLA

Denbora pasatu da; zorionez, gauzak aldatu egin dira.

Ez nuen ezer idazteko asmorik, baina aurkari ohien maitasuna sentitzea pozgarria da: badakizu zutaz eta beste norbaitez ari naizela.

Badakit erresumina oraindik azalean dagoela eta

gaizki pasatu dugula. Ahazten ez diren gauzak badira ere, badaude, lehen esan bezala, kontsolagarriak direnak.

Jada ez naiz Arrasaten bizi; asko bisitatzen dut, nire sustraiak han daudelako eta egunen batean hara itzuliko direlako, zalantzarik gabe.

Orain, bake lasaian bizi naiz, urrunago begiratu nahi ez duten itsuen itxurak, gorabehera.

Denok dugu asko ikasteko. Baina esan behar dut beste era batera hartzen dudala arnasa. Eta irribarreak duela hamar urte baino askoz nabarmenagoak dira. Jarrai dezagun horrela; hori da bidea.

Oharra: mila esker Udaleko langileei eta I.G.M.-ri.

Esku onetan

PEDRO ETXEBARRIA

ARETXABAleta

GOIENAK eskaintzen didan aukera aprobetxatuz, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet Basotxori –batzarrean egin nuen– eta bazkide guztiei, oro har, jaso, gizarteratu eta ekarpenak egin ahal izateko izan dudana aukeragatik. Asko jaso eta ikasi dut eta pertsona asko ezagutu ditut, eta nire lana eta ideiak partekatu ahal izan ditut.

2008an hasi nintzen Zuzendaritza Batzordean, eta 2023an utzi dut kargua, bi urteko gabeziarekin, eta eskualdeko jarduneko lehendakartzarekin partekatu

ditut nire lanak. Aldi honetan, jarduera askoren jarraipenean eta berrikuntzan parte hartzeko aukera izan dut. Kargua utzi arte nire ardurapean zeuden hiru taldeak nabarmendu nahi ditut: Euskal Dantza, Kantu Taldea eta Aretxabaleta Lagunkoia. Hiru kasu horietan, pertsona irmoen eta asebsiteen taldea dugu.

Zorionez, Juan Tomas Zabala arduratuko da hirurez, Zuzendaritza Batzordearen ordezkari edo arduradun gisa. Nik Kantu Taldean eta Aretxabaleta Lagunkoian jarraituko dut lanean, Juan Tomasek eta jardueretako taldeek eskatzen dizkidaten irizpideekin eta intentsitatearekin.

Zergatik utzi dudan Zuzendaritza Batzordea? Bi urte igaro direlako nire azken berrautaketatik, eta asko dira karguan daramadanak. Egia da nire osasunak ere hala eskatzen didala –urtebete errekupekatzen beteko dut aurki, ebakuntza garrantzitsu baten ondoren–. Baina funtsezko arrazoia da Batzordea berriro egin behar dela uste dudala, inor ez da ezinbestekoa; bizigarri berriak behar dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Basotxoko bazkideei, bazkide gisa eman ditudan 15 urteetan eman didaten onuragatik. Gustatzen zaizkidan eta ilusioa pizten didaten alorretan lan egiten jarraitzea espero dut.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritziz-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Musakolako Jai Batzordeko kideak, egitaraua eskuetan eta polo arrosa jantzita, auzoko alkatetzaren lokalaren alboan. H.L.

100 urte Barrenazarren hasi eta Mondragoeraino doan festaz gozatzen

'Ziorla' kantuen arabera, Elorregiko Barrenazar baserriak eta Arrasatek —Elmako biribilgunea— markatzen dute Musakolaren hasiera eta amaiera. 1923ko San Isidro egunean, zubiaren bi aldeetakoek festa batera egitea adostu zuten, gaur arte

Hasier Larrea ARRASATE

Eskola Bateratuaren —igerileku alboko eraikinean— irekiera ekitaldian *kozinatu* zuten auzotarrek Zigarrolako San Isidro jaien sorrera, 1923ko maiatzaren 15ean. Bazkaria egin zuten ikastetxe berrian, eta bertsolariek eta Udal Musika Bandak alaitu zuten eguna. Aurretik ere urtero egiten zioten ohore nekazarien zaindariari, baina zubiaren alde bateko baserrietako bizilagunak Bergarako Elorregi auzora joaten ziren eta beste aldekoak, Arrasatera. Josemari Velez de Mendizabal historialariak jaso zuenez, 24 baserrik osatzen zuten orduan Musakola.

Auzoa erabat aldatu da 100 urtean, eta jaiak ere bai: "Lehen urteetan Antoña-Etxeberri eta Saburdi artean egiten zen erromeria, gurdi eta idiekin. Gero, auzo osora hedatu zen festa, eta

txikiteoak eta astoak hartu zuten protagonismoa. Iturripeko zelairaino joaten ziren, ezkongabeen eta ezkonduen arteko futbol partidua jokatzeko baitzuten", azaldu du Jesus Mari Apraiz musakolarrak. Ospakizunak egun bakarrean egiten zituzten, San Isidro egunean, eta lantegietan jaieguna izaten zen. 60ko hamarkadatik aurrera ekitaldien kopuruak gora egin zuen: "Pilota partidua kiroldegian, karta-jokoak, 70 kilometroko txirrindulari lasterketa... hasi ziren antolatzen; auzo-alkateak eta zinegotziek hartzen zuten arduraren nagusia, eta, geroxeago, ekarpen berriak egiteko helburuarekin, Jai Batzorde bat eratu genuen, antolakuntzan jende gehiagok parte har zezan", goratu du Apraizek.

Eta horrela heldu dira gaur egungo egitarau mardula osa-

tzeraino. Jai Batzordea "osasuntsu" dagoela dio hango kide Mikel San Miguelek. Eskerrak eman dizkie, era berean, laguntzeko prest egoten diren taberna, eragile eta auzotarrei. Denen ekarpenari esker Musakolako jaiak erakusleho bihurtu direla gaineratu du: "Herriko kultur eta kirol elkarteek parte hartze-ko interesa erakusten digute urtero". Hala, modu batera edo bestera, Arrasate Eskubaloik, Dragoi gimnasia taldeak, Arrasate Musikalek, gazte txokoak eta Amerika elkarteak antolatutako ekintzak egongo dira aukeran.

Gaurtik astelehenera

Gaur, ostirala, goizeko suziriez gain —Jai Batzordeak hitz eman du aurtun gutxiago botako dituztela—, danbor hotsek ohartaraziko dute festen hasieraz, 30.



Jesus Mari Apraiz, Arruena parkean, Arrasateko gaiteroen diskoarekin. H.L.

'Ziorla' kantua, eguneratuta

Es en Ziorla donde reina la alegría... Nork ez du abesti hori sekula entzun, ez bada beste hitz batzuekin. Izan ere, duela hamarkada askotatik txikiteo giroan abesten den kantu herrikoia da, musakolarrek auzora moldatu zutena duela 40 urte inguru. Arrasateko gaiteroek egin zuten ezagun, 2009an grabatutako *Erdiko kaletik* diskoan argitaratuta. Bertsio hartan, gaztelarazko hitzei euskarazkoak gehitu zizkieten Gose taldeko kideek, baita trikitiarekin lagundu ere.

Baina bazuen zati bat "kutsu matxistaduna", eta berriz moldatu dute; oraingoa, n Banana Shake taldearen eskutik. Sarean entzungai dago, eta belarria finduta bereiz daiteke genero mistoaren aldeko hautua. Jesus Mari Apraizek honela azaldu du kantuen bilakaera: "Gabonen bueltan ikastetxeetara joaten gara kantuan; tartean, *Ziorla* ere abesten dugu, baina *las chicas guapas* hori esan gabe. Ikusi baikenuen beharrezkoa zela eguneratzea, eta, orain, *la gente guapa* esaten dugu".

Arrasateko Banana Shake taldeak hori kontuan hartuta grabatu du abestia laster kaleratuko duten diskoan. Mikel San Miguelek aipatu du iazko jaietan, Banana Shakeren zuzenekoan, harriduraz entzun zutela taldeak jotako *Ziorla*-ren bertsioa: "Polita irudit ziztaigun, rockerragoa, eta grabatzeko proposatu genien Jai Batzordeko; elkarlanean lortu dugu, beraz, birmoldaketa egitea".

urteurrena baitu Arizmendi Ikastolako Santa Teresa guneko danborradak. Kirola egin gura duenak 17:00etan du hitzordu aproposa kiroldegian, patinatze-ko aterpean, spinning ikastaroa egingo baitute. 19:00etan igoko dute ikurrina, alkatetzan, festazaleei txapela eta zapia janzteko gonbidapena eginda. Al-Andalus kultur elkartearen afaria prest izango dute jarraian jubilatuek, eta gauean rap emanaldiez gozatu ahaliko dute gazteek. San Isidro elkartearen alboko bolatokian ere mugimendua egongo da; izan ere, hiru txirlo bola txapelketa jokatuko dute, 22:30ean. Eguraldiak laguntzen badu, 20:00etatik aurrera barbakoa egingo dute han, gainera.

Ohi bezala, bihar, zapatua, izango da egun handia. Auzoko jaiak berezi egiten dituen astoa

ere irtengo da eguerdian kalera txikiteoan, 12:00etan puntuan Meneta tabernan hasita eta gaiteroen doinuek lagunduta. Haurrek puzgarriak zain izango dituzte goizetik Herri Eskolan, eta asto-jaiaren parte hartu ahaliko dute eguerdian zehar. San Isidro plazan egingo den herri bazkarian "300 pertsona inguru" espero ditu Jai Batzordeak. Bertako produktuz osatutako otorduan indarrak hartu ostean, kuadrillek sokatiran neurtuko dituzte indarrak, eta urdaiazpikoa, gazta eta xanpain izango da sari nagusia. Gaue-

ASTOAREKIN JOATEN ZIREN ITURRIPEKO ZELAIRA, AUZOTARREK FUTBOL PARTIDUA JOKATZEN BAITZUTEN



Auzotarrak Iturriperainoko kalejira egiten, astoa erdian, erratzak eskuan eta Felix Aranzabal soinu-jolearen erritmora. RAFA GARAY



Aurtengo kartela; atzean dragoia agertzen da, astoa ezin harrapatu. M.J.B.

Tourra eta biribilgune zapalgarria

Bi gai horiek dira aurtengo kartel "umoretsu eta kritikoaren" abiapuntuak. Ikusleen artean, "falta diren auzotarrak" daude. Batzordekideek ez dute uste, baina, uztailaren 2ko lasterketa Osiñako biribilgunetik pasako denik, "ageriko arrazoiengatik".

ko zuzeneko musika, oster, San Isidro rock jaialdiko taldeek eta Kaixo berbena-taldeak eskainiko dute.

Domekarako, goitibeheren jaitsiera dago antolatuta pasealekuan, eta ibilgailuak Jai Batzordeak berak eroango ditu. 12:30etik 13:30era, Kantu Kolorek Txiki Festa ikuskizuna egingo du San Antolin plazan, eta, bien bitartean, Lezoko patinete eta patin taldea skate parkean ibiliko da erakustaldia egiten. Eguerdiko txikiteoa, berri, Elutxa txarangak alaituko du. 18:00etan, Sergio Arrospidek

SAN ISIDRO EGUNA ASTELEHENEAN OSPATUKO DUTE, OHIKO MEZA ETA OTORDUAREKIN

bakarrizketa umoretsua egingo du Santa Teresa elizan, eta 22:30ean suzko erruberak eta sorpresa gehiago egongo dira Institutuko patioan.

Baina gogoratu behar da San Isidro eguna astelehenean izango dela. Hortaz, prozesioan joango dira, 10:30ean, Santa Teresa elizatik San Isidro elizara, 11:00etan meza nagusia esango baitute han. Ondoren, mokadua egingo dute partaide guztiek San Isidro elkartearen eta jubilatuen etxean.

Ekintza horiek eta gehiagok osatuko dute festaren mendeurrena. Jai Batzordea egun ahaztezinak izango direlaokan dago. Hala ere, kideek penaz adierazi dute Udal Gobernua haiekin kontaktuan jarri ez izana: "Uste dugu aurten merezi zuela zer-bait berezia egitea; euren aldetik nahiko abandonatuta sentitzen gara".

Egitarauko ekintzetako batzuk

Gaur, Jubilatuen Eguna

- 11:00etan, danborrada Santa Teresa Ikastolan.
- 17:00etan, kiroldegian, spinning *masterclass*-a.
- 19:30ean, jubilatuen afaria Al-Andalusen.
- 19:30ean, txosnen irekiera San Isidro plazan. 22:00etan, Denso, Tatta, Mutiko, J. Ropero eta Even OHG.
- 20:00etan, Hankaz Gora taldea San Antolinen.
- 22:30ean, hiru txirlo torneoa bolatokian.

Bihar, Kuadrillen Eguna

- 12:00etan, txikiteoa astoarekin eta gaiteroekin.
- 15:00etan, herri bazkaria San Isidron.
- 19:00etan, AMko gazteen kontzertua Santa Teresa elizan.
- 19:30ean, San Isidro rock jaialdia plazan: Kontralde, Kañeria 13, Neallta Fola, La Excabadora eta Iskanbila.
- 22:00etan, Kaixo taldea San Antolinen.

Etzi, domeka

- 10:30ean, pasealekuan, goitibeherak.
- 10:00etatik 13:00etara, herri eskolan, eskubaloi txapelketa.
- 12:00etan, Jubilatuen tabernan, marrazki lehiaketako sari banaketa.

Euskaraz Bagara Nor dinamika aurkeztu du Ttak! gazte taldeak

Arrasaten udara arte antolatzen diren ekitaldi eta emanaldietan euskarak erdigunea hartzea da helburua

H.L. ARRASATE

Elkarlanean, nork bere esparrutik eraginda, kontzientziak astinduta eta euskaraz bizitzeko nahia praktikan jarrita eroango dute aurrera Ttak-eko kideek Euskaraz Bagara Nor kanpaina. "Argi diogu; euskaraz bagara nor. Nor gara Arrasate euskaratik eta euskaraz arnasberritzeko. Nor gara, euskaldunduz, gazteok ahaldunduko gaituen herri bat sortzeko. Ez dagoelako euskaraz bizitzea baino erabaki iraultzaile eta errebeldeagorik", adierazi dute.

Euskararen egungo egoera kezka handiz bizi dute, eta hau xe diote: "Arrasateko gazteok ez dugu inposatu nahi diguten normalizazioa onartuko, normalizazioa delako, instituzioak euskararen normalizazioaren bidean politika eraginkorrak gauzatzeko gai ez direlako eta euskaldunok egunero jasaten ditugulako erasoak; hor daude, esaterako, Erandioko polizia B2 maila ez exijitzeko epaia eta unibertsitateetan Euskal Filologia desagerrarazteko nahia".

Naturarekin bat egiteko ekintza ugari datorren asteburuan

Naturan Jolasean-en zortzigarren aldia antolatu dute zazpi eragilek hilaren 18rako, 20rako eta 21erako

H.L. ARRASATE

"Natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina da; ondorioz, beharrezkoak dira natura-guneekiko atxikimendua areagotzeko dinamikak sortzea", adierazi dute Leintz Eskola Kiroleko, Besaide Mendi Elkarteko, Gaztetxeko Guraso eta Haur Asanbladako, Udalako Ingurumen Eskolako, *Guraso.eus*-eko, Naturtzaindiko eta Txatxilipurdiko antolatzaileek. Ostegunean egingo dute lehen hitzordua, 18:00etan, Monterron parkean,

Adi natura liburu bildumaren aurkezpenarekin. Zapatuan, 10:00etan eta 12:00etan, espeleologia txangoa egingo dute Montzongo kobara. 18:30ean Biteri plazatik Ziorlako begiratokira joango dira, eta gaua han pasa ahaliko dute, *vivak* eginez. Norberak eramandako afariaz, *Saguzarren bila* ekintzaz eta izar behaketaz osatuko dute egunaren bukaera, eta hurrengo goizean herri gosaria izango dute aukeran. Azken ekintza horietan izena emateko, sartu *labur.eus/NaturanJolasean2023* webgunean.

Askatasunaren eta giza eskubideen aldeko plataforma, abian

Hogeitahoge lagunek osatzen duten herri mailako taldea da, eta gizartearen eskubide eta askatasun urraketak areagotzen ari direla uste dute. Gaur, ostirala, plataformaren proposamenak, misioak eta balioak azalduko dituzte Kulturategiaren Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean. Aurrerago zenbait hizlari gonbidatuko dituzte; Carlos Taibo, tartean.





Gipuzkoa etorbidean bidegorriak izango lukeen itxura, fotomuntaketa batean. EAJ

Musakolarainoko bidegorria da EAJren lehentasunetako bat

Mugikortasun jasagarria sustatzeaz gain, Aramaio eta Deba errekek berreskuratu gura dituzte jeltzaleek

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Aramaio eta Deba errekek berreskuratu, udalerrian integratu eta herritarren eskura jartzeko konpromiso irmoa azaldu du Arrasateko EAJk, eta, diotenez, Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan, garbiketa- eta leheneratze-plan integral bat jarriko dute abian. Horretarako, Arrasateko erreken Hiri Integraziorako Proiektu Globala sortzea proposatu dute. "Arrasatek Deba eta Aramaioko ertzetako tarte naturalak berreskuratzea du helburu, degradatuak, sarbiderik gabeak eta ingurumen-balio handikoak, eta, aldi berean, udalerrian integratzea, arrasatearrek erabiltzeko eta gozatzeko", dio Maria Ubarretxena alkategaiek.

Proposatutako hobekuntza-motari dagokionez, jeltzaleek bioingeniaritzako eta obretako jarduerak egingo dituztela azaldu dute. "Higatu diren eremu kalteberetan egonkortze lanak bultzatu ditugu, baita garbiketa orokorra egitea ere". Gainera, landaketa berriak egingo dituztela diote, erreka ertzetan espezie autoktonoa berreskuratzeke asmotan. "Arrasateko sare naturala bultzatzeko helburuarekin, lurrak eskuratzen jarraituko dugu, basoak handituko eta Etxezarretarekin batera ingurune publikoak izateko. Berreskuratze naturalarekin batera, aisialdirako guneak sortuko ditugu eta espezie autoktonoak behatzeko aukera aparta izango da. Horrela, arrasatearren go-

zamenerako aisialdia eta hezkuntza-jarduerak batuko ditugu".

'Ekobulebar'-aren luzapena

Arrasate mugikortasun iraunkorrean "erreferente" bihurtzea da jeltzaleen beste helburuetako bat. Horregatik, bidegorri sarea osatzen jarraituko dute, *Ekobulebar*-a Musakolaraino luzatuz, bidegorria barne hartzen duen pasealeku berde zabal baten bidez. "Hala, herritarrek Arrasate bizikletaz edo oinez zeharkatu ahal izango dute, modu eroso eta atseginean". Bestalde, garraio publikoaren aldeko apustua egin gura dute, eta autobus flota berritu.

"Auzoak hobetzeko plana"

Auzoetarako dituzten proposamenen berri ere eman dute. Hala, Gorostiza auzoan igogailu publikoak ezarriko dituzte, Grupo San Juanen eta San Andresko Gudarien plazaren berrurbantizazioa egitearekin batera. Halaber, "kiroldegi berria eraikita aldaketa handienetako bat izango duen" Musakolak gune estali bat izango duela gaineratu dute, Zigarrolako bizilagunen eskaerari erantzuteko. Azkenik, landa-auzoak koordinatzeko mahaia sortu gura dute.

AUZOETARAKO ERE HAINBAT ASMO DITUZTE; ESATERAKO, GOROSTIZAN IGOGAILU PUBLIKOAK JARTZEA



Jaime Bengoa, Maider Morras, Ander Santiago eta Garazi Etxebarria. EH BILDU

Mugikortasun arloan "politika eraginkorrak" ezarri nahi dituzte

EH Bilduk hainbat neurri proposatu ditu, "azpiegitura berriak eta autobus sare duinak" behar direla adierazita

E.A.B. ARRASATE

Arrasateren eta auzoen ezaugarriak kontuan hartuta eta mundu mailan gertatzen ari diren aldaketak aintzat hartuz, Arrasateko EH Bilduk "ezinbestekotzat" du mugikortasunaren gaiari "lehenbailehen eta modu integralean" heltzea. Modu horretan, "arrasatearren beharretan eta herriko errealitatean oinarrituta", honako neurri hauek proposatu ditu: "Erguin, Gorostiza eta Makatzena auzoetan igogailu edo arrapalak erakitzea irisgarriagoak izan daitezkeen; San Andres auzoko Doctor Bañez kalea birmoldatzea; hiri autobus lineen berrikuspenera eta herritarren beharretara egokitzea, denon eskura egon daitezen; autobus geltoki duina izateko lanketa, herritarren errealitatea aintzat hartuz; Arrasateko bidegorria osatzeko falta diren atalak garatzea -Zerrajera-Zalduspe-Musakola eta Elma-Musakola-; bizikletentzako aterpeak jartzea herrian zehar eta horretarako baliagarriak izan daitezkeen lokal hutsak aztertzea; disuasio-aparkalekuen azterketa eta proposamena, erdiguneko trafikoa arindu eta Arrasatera lanera edo ikastera datozeinei aparkatzeko erraztasunak eskaintzeko eta mugikortasun jasagarria sustatzeko kanpaina bateratua egitea erakunde eta enpresekin. Neurri zehatzen artean egon daitezke autobus lineak antolatzea, lanera bizikletan joateko erraztasunak eskaintzea, auto parteka-

tuaren sustapena eta abar", adierazi dute koaliziotik.

"Ez da gertaera isolatua"

Herribusa erre izana "mugikortasunaren gaia dagokion bezala ez kudeatzearen adibide gisa" ikusten du koalizioak. "Zorionez kalte pertsonalik gertatu ez bazen ere, bidaiarien eta gidarien bizitzak arriskuan egon ziren. Ez zen gertaera isolatua izan, jakina baita arazo ugari egon direla zerbitzuarekin. Alde horretatik, Arrasateko EH Bilduk ezinbestekotzat jotzen du zerbitzu horren kudeaketan ere jarraipen estua egitea eta behar diren neurriak garaiz hartzea, kasu horretan bezala, ondorioak gehiagora joan ez daitezen".

Hezkuntza arlorako asmoak

Mugikortasunaz gain, hezkuntza arlorako ere hainbat proposamen egin dituzte: "Udal Eskola Kontseilua aktibatu -ikastetxeak, tokiko elkarteak, Udala-, eskola eskaintzaren banaketa eta ikasleen eskolaratze orekatuan eragiteko; Arrasatek-Hezi proiektua berreskuratu, eguneratu eta egungo beharretatik garatu, herri hezitzailearen filosofia landu eta hezkuntza teknikariaren figura berreskuratu".

MUGIKORTASUNARI "LEHENBAILEHEN ETA MODU INTEGRALEAN" HELTZEA FUNTSEZKO DA EH BILDURENTZAT



Eva Abuin: "Autobus berriak erosi behar dira"

Elkarrekin koalizioak "kalitatezko autobus zerbitzua" aldarrikatu du, eta autobus berriak eskatu

E.A.B. ARRASATE

Elkarrekin koalizioko alkategai Eva Abuinek Arrasateko autobus zerbitzu publikoaren egoera kritikatu zuen joan den asteburuan Seber Altuben egindako ekitaldian; zerbitzu horretan dagoen "inbertsio eta kontrol" falta salatu zuen. Adierazi zenez, udalerriko mugikortasuna hobetzeko, autobus berriak erosi behar dira agintaldi berriaren hasieratik. "Gainera, linea gehiago jarri behar dira Arrasaten, autobusik ez duten auzo asko daudelako".

Horrez gain, "funtsezkotzat" jo zuen zerbitzuak domeka eta jaiegunetara zabaltzea. "Eta, tamalez, gaur egun ez da horrelakorik gertatzen". Era berean, koalizioaren Arrasateko buruak gogorarazi zuen euren programan jaso dituzten proposamenen artean bizikleta elektrikoaren udal zerbitzu bat ezartzea dagoela, Arrasateko puntu guztien arteko garraioa eta lotura errazteko. Halaber, Abuinek gardentasun-bulego independente bat sortzeko konpromisoa hartu zuen, kontratu publikoak kontrolatzeko: "Ez dugu onartuko herritarren bizitzekin jolastea".



Lau alkategairekin debatea astelehenean Goiena telebistan

Maiatzaren 15ean, astelehena, udal hauteskundeei begirako debata egingo dute Maria Ubarretxena (EAJ), Maider Morras (EH Bildu), Aritz Murua (PSE-EE) eta Eva Abuin (Elkarrekin Arrasate) alkategaiek. Goiena telebistan ikusi ahal izango da, 21:30ean eta 23:30ean.

Suhar koruak jarriko dio ginga zikloari, domekan

Joan den asteburuan abiatu zuten Udaberriko Musikaldia eta oraingoan borobilduko dute, hiru emanaldirekin; hala, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen eta Txomin Maidagan eta Inazio Olaizola arrasatearrak kide dituen koruak itxiko du musika zikloa

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Lau debagoiendar kide dituen Suhar abesbatza izango da Udaberriko Musikaldiaren baitan emanaldia egingo duen azken taldea. Esteban Urzelai oñatiarra, Aitor Garitano bergararra eta Txomin Maidagan eta Inazio Olaizola arrasatearrak dira koruko debagoiendarrak, eta lehen da zuzendaria. Hark adierazi duenez, "ilusio handiarekin" daude domekako kontzerturako. "Apiril bukaeran Esloveniako lehiaketa batean egon ginen, hainbat sari eskuratu genituen, eta, handik bueltan, lehen aldiz izango da emanaldi bat egingo duguna", dio. Estreinako lehiaketa izan da koruarentzat, eta han lortutako emaitzek "segurtasuna eta lanean jarraitzeko indarra" eman diete, Urzelaiak adierazi duenez.

Hala, Eslovenian hain emaitza onak utzi dizkien errepertorioa errepikatuko dute San Frantzisko elizan egingo duten kontzertuan. "Hasiera batean, polifoniako obra batzuk kantatuko ditugu, erlijiosoak zein profanoak, eta bigarren zatian euskal folkloreko moldaketa batzuk: *Beti eskamak kentzen* eta *Goizeko izarra*, esaterako".

Ondo prestatuta datoz

Udaberrian hainbat kontzertu egiten ari dira, eta, beraz, errepertorioa ondo prestatuta ekarriko dute Arrasatera. Europa aldera joan aurretik, hainbat emanaldi egin zituzten, Errenterian, Bilbon eta Donostian, lehiaketa prestatzeko. Orain, domekakoaz gain, Errenterian beste kontzertu bat dute eta hurrengo konpromisoak udazkenerako dituzte lotuta. Urzelaiak nabarmendu duenez, gehienbat, Euskal Herri mailan mugitzen dira. "Zaragozan kontzertu bat egin izan dugu eta aurrera begira Madrilen ere badugu proiektu bat, baina hemen inguruan aritzen gara".



Suhar abesbatzak Oñatin egindako kontzertua, 2022ko urrian. GOIENA

Asteburuko egitaraua

Hiru emanaldi egongo dira:

Maiatzak 12
19:30 Juan Arzamendi
Musika Etxeko
auditoriumean, Cadenza
Quarten-en kontzertua.

Maiatzak 13
19:30 Juan Arzamendi
Musika Etxeko
auditoriumean, Duo
Samouil eta Okiñena
bikotearen kontzertua.

Maiatzak 14
19:30 San Frantzisko
elizan, Suhar abesbatzaren
kontzertua.

Diskoak, "oso harrera ona"

Suhar koruak udazkenean aurkeztu zuen *Aita Madina* diskoa eta zuzendariak nabarmendu du "oso harrera ona" izaten ari dela. "Oso gustura gaude emaitzarekin. Horrelako lan bat egitean, hel-

burua ez da izaten disko mordo bat saltzea. Asmoa izan zen Aita Madinari aitortza egitea, haren musika berriz mahai gainean jarritz, eta oso harrera ona izaten ari da diskoa, bai hasiera hartan eta baita ondoren egiten ditugun kontzertuetan ere, beti saltzen baititugu ale batzuk", dio. Izan ere, kontzertuetara beti eramaten dituzte disko batzuk saltzeko, eta domekan ere hala egingo dute.

Abesbatza, egonkortze fasean

2018an sortu zuten Suhar korua, eta duela lau urte egin zuten lehen kontzertua, 2019ko maiatzaren 5ean. Hala, dagoeneko egonkortzen ari den korua dela dio zuzendariak: "Hilabete behin entseatzeko dugu, eta, egun osoko entsegua izan arren, epeak luzatzen ditu horrek garapeneri dagokionez. Edozelan ere, geroz eta egonkorragoa da taldea eta partaideak ere eroso daude. Oraindik aldaketa batzuk jasan go ditugu, norbere konpromisoak direla-eta, baina sendotuta dagoen abesbatza bat garela esango nuke, eta etorkizunera begira proiektu berriei heltzeko gogotsu gaude".

Arrasate literatura lehiaketako sariak banatu dituzte Kulturaten

Eneko Barberena idazlea izan da gonbidatu berezia, eta haren esperientzia kontatu die ekitaldian egon direnei

E.A.B. ARRASATE

Poesian, DBHko 3-4 mailan, Nora Roldanen *Zuretzako hitzak* lanak irabazi du sari nagusia eta Uxue Sologaitzaren *Bizitzaren hasiera-k*, bigarrena. Batxilergoan, Zihara Etxeberriaren *Izan bedi* lana izan da onena, eta bi bigarren sari banatu dituzte: Alaitz Sanchezen *Iraganera begirada* eta Harkaitz Leturiagaren *Oroimen oroigarriak*.

Mikro-ipuinetan, DBH 3-4n, Maddi Iturricastilloren *Donostiako hondartza* eta Kerman Petralandaren *Denboraren joan-etorria* saritu dituzte. Batxilergoan, Enara Mateosen *Arima berdintsuak* eta Malen Morrasen *Hauts izatera kondendatuta*.

Berto paperetan, LHko 5-6n, Aner Ibarrondok, Iraitz Arrietak, Ibai Amuchateguik eta Mahamed Amzaouik irabazi dute sari nagusia; eta bigarren saria, Hele-

na Unamunok eta Alaitz Etxebarriak. DBH 1-2n, lehen saririk ez da egon eta bigarren saria Aratz Arenazak eta Jare Urrutiak lortu dute.

Ilustrazioan, LH 5-6n, Jon Brancak eta Araitz Llodioak irabazi dute sari nagusia; eta bigarrena, Aimar Rodriguezek. DBH 1-2n, Ekaitz Lugarizaristi eta Aratz Larrañaga izan dira bi saridunak.

Narrazioan, LH 5-6n, Alaia Rodriguezen *Perla txuria-k* eta Irati Arribasen *Arrain buru* lanak saritu dituzte. DBH 1-2n, Jare Urrutiaren *Itsasoko domaiak*-ek lortu du sari nagusia eta Andoni Osinalderen *Gezurretako mundu bat*-ek, bigarrena.

Komikian, DBH3-4n, Muhammad Abdullahrentzat izan da sari nagusia. Batxilergoan, Alaitz Sanchezen *Lainoa* eta Leire Toledanoren *Bizitzaren itzuliak* saritu dituzte.

Birkik da hurrengo gonbidatua Kooltur Ostegunerako

Maiatzerako hiru kontzertu zituzten aurreikusita, baina, Gli Ultimirena bertan behera geratu ostean, Birkite Alonso bilbotarra buru duen taldeak irekiko du hil honetako eskaintza, datorren egunean, 22:00etan, gaztetxean. Sarrera zazpi euro da. Maiatzeko azken gonbidatua Petti izango da, eta "etxeko uzta-ekin" etorriko da beratarra.

Maialen Gallardok kickboxing borrokaldia du bihar

Lesio bat tarteko borrokaldian parte hartu ezingo duen Nekane Alda gasteiztarra ordezkatzeko du arrasatearrak, eta Tarragonako Paula Andreu izango du aurrean. Jaialdirako pisaketak gaur egingo dituzte, Dulantziko Mailu Tavern-en. Borroka jaialdia, berriz, zapatuan 18:00etan hasiko dute, Dulantziko kiroldegian. Sarrera 15 euro da.

'Aniztasunerako klowntuak' egunean Kulturaten

Aniztasunerako klowntuak ipuin kontaketa egingo du Sexune elkarteak kide Itziar Saenz de Ojerrek maiatzaren 18an, Kulturatego areto nagusian, 18:00etan, 5 urtetik gorako haurrei zuzenduta. Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Ekin Emakumeak Elkartek eta Udaltzateak antolatutako saioa izango da.

Mojategira joateko deialdi berezia egin die Mondrak zaleei

Gazte mailan Ohorezko Ligari eusteko lehiari ari da Mondra, eta, duela bi aste egin moduan, asteburu honetarako ere deialdi berezia egin die klubak zaleei, taldea animatzera joan daitezen. Izan ere, mailari eusteko borroka horretan aurkari zuzena den Elgoibar hartuko dute arrasatearrek Mojategin bihar, zapatua, 18:30ean.

Umoretik ere izango duen Musika Astea

Aramaioko VIII. Musika Astea egingo dute maiatzaren 17an hasita. Musika emanaldiak, solasaldiak, dokumental emanaldiak eta kalejirak izango ditu zikloak. Sokaire bikoteak umoretik ekingo dio asteari, 'Klasikoen ibilbide umoretsua'-rekin

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Musikaren doinueta eta musikaren historian barneratzeko aukera eskainiko du aurtengo Aramaioko Musika Asteak. Aurtengoa zortzigarren aldia izango da, eta ekintzaz beteta dator. Gainera, umoretik ere izango du aurtengo jardunaldiak.

Musika Asteko lehenengo ekitaldia maiatzaren 17an izango da: Itsaso Diezek eta Noemi Santamariak osatzen duten Sokaire bikoteak musika klasikoaren historian zehar bidaiaztera gonbidatuko du entzulea, umore puntuarekin. Bikoteak biolina izango du oinarri: instrumentu akustikoak eta elektronikoak izango dituzte, eta, modu horretan, musika klasikoaren askotariko garaiak errepasatuko dituzte. Emanaldi pedagogiko antzez-tu berezian euren errepertorioa interpretatuko dute, *loop*-ak eta oinarri elektronikoak erabiliz.

Joserra Rodrigo

Joserra Rodrigo musikazale bilbotarrak *Poetas del rock* solasaldia egingo du maiatzaren 19an, barikua. Rodrigo ez da kazetaria, ezta musikaria ere; lanbidez abokatua da, baina 2008an musikari buruzko blog bat sortu zuen: diskoak, artistak, emanaldiak... aztertzen ditu *Rockrodriland* blogean. "Diapositibak, musika, poemak... rockaren historian barneratuko gara harekin", azaldu dute Musika Asteko antolatzaileek.

Herriko musikariak

Urtero moduan, Musika Asteak artista profesionalak izaten ditu, baina baita etxeko artista eta musikariak ere. Izan ere, horixe izaten da jardunaldi horien funtsa: musika eskolako ikasleek urtean zehar egindako lana jendaurrean erakustea. Bada, musika ikasleen emanaldia maiatzaren 25ea izango da, kultura etxean. Taldeak sortuko dituzte



Sokaire bikotea: Itsaso Diez eta Noemi Santamaria. DONOSTIA KULTURA

Aramaioko VIII. Musika Astea

Maiatzak 17

18:30 Sastiñan, Sokaire bikotea; *Klasikoen ibilbide umoretsua*.

Maiatzak 19

18:30 Sastiñan, solasaldia Joserra Rodrigorekin.

Maiatzak 22

18:30 Kultura Etxean, *Enio: El maestro* dokumentala.

Maiatzak 23

18:00 Sastiñan, *Alaiak kantuan* emanaldia.

Maiatzak 25

18:00 Kultura etxean, ikasleen kontzertua.

Maiatzak 26

19:00 Parkean, Erromintxelak, *Gipsy swing* kontzertua.

Maiatzak 28

18:30 Kultura Etxean, Ikusiz Gozatu zinema: *Elvis*.

eta ikasturtean zehar landutakoa erakutsiko dute jendaurrean.

Bestalde, Alaiak erretiratuen kantu tailerreko ikasleek urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute Sastiñan. 18:00etako emanaldiaren aurretik eguneko

zentzura joango dira, hango erabiltzaileendako abastera; ondoren, kalejira egingo dute Arantzazu soinu-jolearekin. Antolatzaileek musikaz gozatzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak.

Sami Kontseiluko kide Eva Fjellheim Aramaion izango da

Eva Fjellheim aktibistak solasaldia egingo du hilaren 18an; sami herriaren esperientzia azalduko du

A.E.G. ARAMAIO

Sami Kontseiluko kide Eva Fjellheim laponiarra Aramaion izango da, proiektu eolikoan aurka duten borroka azaltzen. *Kolonialismo berdea, energia eolikoa eta klima-justizia Sami lurraldean* solasaldia egingo du, maiatzaren 18an, 18:00etan, kultura etxean.

Hain zuzen, maiatzaren 20an, Gasteizen, manifestazio nazionala egingo dute, Euskal Herrian egiten ari diren hainbat proiekturen aurka. Bada, Gasteizen egingo den manifestazioarekin

bat egingo du Eva Fjellheim ikerlariak, ekintzaileak eta Sami Kontseiluko kideak. "Kaltetutako komunitateekin elkartasun sareak ehuntzeko" izango da Euskal Herrian, bestek beste. Aukera hori aprobetxatuz egongo da Aramaion. "Helburua izango da inposatutako energia trantsizioaren kontra -eurek kolonialismo berdea deitzen dutena- sami herriaren borroka esperientzia partekatzea. Sami herriak funtsezkotzat dauka aliantza horiek ehuntzea", diote antolatzaileek.

Arabako Eskolarteko bigarren saioa gaur izango da

Arabako Eskolarteko Txapelketa abian da. Maiatzaren 4an jokatu zuten lehen kanporaketa, eta gaur izango da bigarrena, Kanpezuko kultura etxean, 19:30ean. Bertsolariak izango dira: June Astegieta, Urko Lafuente, Oier Biain, Eukene de los Aires, Sabin Abarrategi eta Gari Arexolaleiba.

Eskolartekoaren finala Aramaion izango da, maiatzaren 20an, 19:30ean, kultura etxean. Horrez gain, ekainaren 2an, 3an eta 4an Arabako bertsozale gazteen topaketa egingo da Abadiñoko Murueta baserrian. Izena emateko, idatzi araba@bertsozale.eus helbidera, maiatzaren 20a baino lehen.

Gazteei zuzendutako pilota txapelketako izen-ematea, zabalik

Lagun Arteko III. pilota txapelketan izena emateko epea zabalik dago oraindik. Interesa duenak dei dezala 680 58 70 02 edo 649 65 83 99 telefono-zenbakietara edo idatz dezala aramaiopelota@gmail.com helbidera. Txapelketa bikoteka jokatu da, eta 16 urtetik gorako Aramaioko gazteei zuzenduta dago; 18 tantora izango da, pilota goxoarekin. Liga erara jokatu da eta izen-ematea 10 euro da.

Datorren aстера arte eman daiteke izena txapelketan. Partiduak bariku arratsaldeetan edo zapatu goizetan izango dira -izena ematerakoan zehaztu aukera-, eta finala jaietako barikuan egitea aurreikusten dute.

OHARRAK

Odol ateratzea: datuak

Maiatzaren 3an Aramaion egindako odol ateratzearen gaineko datuak eman dituzte: hamazortzi odol emate egin zituzten eta haietatik bat emaille berria izan zen.

Elkartegiak +55

Arabako Aldundiak antolatzen duen Elkartegiak +55 jardunaldien barruan, *Iniciación a las setas y hongos* hitzaldia egingo dute ekainaren 13an, 18:00etan.

Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoko Dukiena jatetxeak maiatzaren 28an itxiko ditu atea, domeka.

Instalazio artistikoa eta azoka, astea amaitzeko

Lorabarri Astea bukatzeko, gaur Santiñan eta bihar Lorabarri azokan 'Ta argiya iñ zan' instalazio artistikoa egongo da; azoka Bixente Goikoetxea plazan izango da bihar. Bertako produktu ekologikoez gain, bigarren eskuko azoka ere egingo da

Miren Arana Pagaldai ARAMAIO
Bukatzear da aurtengo Aramaio-ko Lorabarri Astea. Egun haue-
tan *Energia berriztagarria komu-
nitatearen zerbitzura* mahai-ingurua, gibel garbiketari buruzko saioa eta Uxue Urzelaik bideratutako *Hilero-koaren zikloa eta oihalezko kon-
presen sorkuntza* tailerra egin ostean, asteari amaiera emateko, gaur eta bihar *Ta argiya iñ zan* instalazio artistikoa eta bihar Lorabarri azoka eta haren baitan bigarren eskuko azoka egingo dira.
Beste behin, Lorabarri Astean toki berezia hartzen dute energia berriztagarrien gaineko gaiek. Joan den maiatzaren 4ko errotei buruzko mahai-inguruaz aparte, oraingoan erakusketa berezi bat ere izango da ikusgai: gaur 19:30ean Santiñan eta bihar azokan, *Ta argiya iñ zan* instalazio artistikoa, Eli Pagola eta Ainhua Gutierrez del Pozo sortzaileen eskutik. 16 milimetrotan filmatzen duen kamara batekin grabaketak egin zituzten; Hernaniko paper-fabriketatik hasi eta Leitzakoetaraino, hamabost fabrikatan ibili ziren grabaketa lanetan. Helburua da Urumeako zentral hidroelektrikoen gaineko gogoeta egitea: ibaiko zentral hidroelektrikoen potentzialari

buruzko datuak eman eta energia berriztagarri horrek ibaiko bioaniztasunean dituen inpaktuak azaltzeko hainbat grabaketa egin eta erakustea.
Zientzia eta artea nahastuz, zentral hidroelektrikoen erren-
tagarritasuna, ondorioak eta inpaktuak azaltzen dituzte: arrain migrazioari buruzko 3 minutu-
ko film labur baten bidez.

Ohitura aldaketak
Ohiko Lorabarri azoka izango da amaierako protagonista, Bixente Goikoketxea plazan; 11:00etatik 14:00etara egingo da. Aramaio-ko produktuen azokan Euskadiko ekoizle ekologikoek hartzen dute parte, eta "bertakoak eta ekologikoak" diren produk-
tuak eskainiko dituzte. Gainera, Aramailur Kontsumo Elkartek bultzatuta, bigarren eskuko azoka ere egongo da; nahiz eta bereziki elikaduran zentratutako elkartea izan, beste produktu batzuen kontsumorako alternatiba bat eroango dute aurren, eta horretarako egin da bigarren eskuko azoka.

BIGARREN ESKUKO AZOKA, KONTSUMOAREN AURKAKO ALTERNATIBA

ZENTRAL HIDROELEKTRIKOEN GAINEKO IKUS-ENTZUNEZKO GOGOETA IKUSGAI

Lorabarriko antolatzaile Irati Mujikak azaldu du azoka kontsumo ohiturak aldatzeko ekarpen bezala ulertzen dutela: "Ekarpen bat bezala ulertzen dugu; bereziki, kasu honetan, janzten dugunari lotuta. Zer janzten dugun eta horren atzean zer edo nor dagoen ezagutzea garrantzitsua da, gehienetan indarkeria baitago atzean. Bigarren eskuko azoka alternatiba bat da, kontsumoaren aurkako alternatiba".
Bigarren eskuko azoka aurrera eramateko material bilketan beharrezkoa izan da herritarren laguntza. Egoera onean eta erabilgarriak diren produktuen eskaera eginda, ekonomatuan batu dute salmentarako materiala: neurri eta adin guztietarako arropa eta osagarriak; haurrentzako patineteak, bizikletak, haur-aulki altuak eta erabilgarri dauden jostailuak eta materiala; baita



2022ko Lorabarri azokan bertako produktuen salerosketa. IMANOL SORIANO

etxetresnak ere –sukalderako direnak, batik bat–.

Diruarekin zer?
Prezio sinbolikoan salduko dira produktuak, eta jasotako dirua Aramaio Bizirik elkartea laguntzeko izango da.
Gainera, salmentarako baliozkoa ez den guztia –apurtuta dagoena edo oso zaharkituta– birziklatu egin da. Sortua dagoen

material horri bigarren aukera bat emateko "aukera bikaina" da azoka, Lorabarriko antolatzalearen esanetan: "Gutxiago kontsumitzeko horrelako azokak edo truke-guneak sortzea ekarpen ona dela uste dugu".
Horrekin guztiarekin, filosofia horrekin jarraitzeko, saltzen ez den baina erabilgarria den material guztia Emaus-era eramango dute azokaren ostean.

Azokako postuak eta produktuak

Postu eta produktu hauek egongo dira bihar, zapatua, Aramaion, Lorabarri azokan –bertakoak eta ekologikoak–:

- **Arbel** nekazaritzako produktuak, landareak eta loreak.
- **Ibabe** artzai-gazta.
- **Maduixa gorria**: latxa artilea.
- **Gardoki** ezti.
- **Euzki** ogi ekologikoa.
- **Lonbide** barazki ekologikoak.
- **Ona** olio ekologikoa.
- **Lizagasar** sagargintza ekologikoa.
- **Milorri** bizitzarako belarrak.
- **Aleka** Euskal Herriko hazi ekologikoak.
- **Xaboi punpuila** xaboiak eta kandelak, produktu naturalekin.
- **Kondaira** garagardoak.

Plater tiroketan txapeldun

Joan den domekan Irunen jokaturako plater tiroketako Euskadiko kopako jardunaldian lan bikaina egin zuten Aramaio-ko Kurtzetagailu elkarteak kideek: 3. eta 4. kategorietan Iker Jauregui izan zen txapelduna eta Luis Mari Jauregi 8. sailkatua. Beteranoen artean, Enrike Ullibarriaranak lortu zuen bigarren postua eta Juan Luis Nafarratek laugarrena.



IKER JAUREGUI

GOIENA TELEBISTAK
8.000
IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)

goiena
Zu hemen zaude.

Literatura lanik onenek jaso dituzte sariak

Loramendi elkarteak antolatutako lehiaketan Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleen lanak jaso dituzte, hainbat kategoriatan banatuta; 250, guztira. Atzo, eguna, banatu zizkieten sariak onenen sortzaileei

Mirari Altube ARETXABALETA

Loramendiren 27. literatura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zuten atzo, eguna, udaletxe zaharrean. Herriko ikastetxeetan ikasten diharduten Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko gaztetxoek lanak jaso dituzte –DBHko lehen eta bigarren mailetakoenak izan ezik–, 250 inguru, eta antolatzaileak pozik agertu dira izandako erantzunarekin.

Originaltasuna kontuan

Epaimahaia osatu dute Loramendiren zuzendaritza batzordeko kideek, eta lanen egokitasuna eta originaltasuna hartu dituzte kontuan, hango dinamizatzaile Ainhoa Sanchezek esan duenez: "Bereziki, originaltasunari erreparatu diogu. Fikziozko lanak eskatu ditugu, superheroien gainekoak, eta igarri dugu batzuek oso gustura idatzi dutela". Gaztetxoek euskaraz idaztea bultzatzen duen lehiaketa berreskuratu egin dute aurten. Antolatzaileen asmoa da jarraipena izatea, baina aldaketa batzuk eginda: "Derrigorrezko lana izan barik ume eta gazteen nahietatik sortutakoa izan dadila gurako genuke; horregatik, hausnarke-tatxo bat egingo dugu".



Ainhoa Sanchez dinamizatzailea, hainbat lan esku artean dituela. MIRARI ALTUBE

Sariak jaso dituzten lanak

Lehen Hezkuntza 3 eta 4

- **Bertsoak:** *Potatu:* Unax Urtzelai eta Peru Ansa.
- **Deskribapena:** *Tronpopurpurina ile pikantia:* Liher Valle Morales.

Lehen Hezkuntza 5 eta 6

- **Deskribapenak:** *Sua:* Aiur Martinez De Lizarduy.
- **Bertsoak:** *123 Aresko:* Ilargi Herrera.
- **Ipuina:** *Lora:* Nahia Otxoa-Aizpurua.

DBH 3 eta 4

- **Poesia:** *Mandangorriak:* Ibon Txurruka eta Unax Del Rey.
- **Gogoeta:** *Izarra:* Nekane Ciardegi Martxueta.



EAJko zerrendakideak, Mikel Uribebebarria alkategaia buru dela. M.A.

Lau proiektu izar dituen programa aurkeztu du EAJk

Zaintza ekosistema berritzaileak garatzea, institutu berria egitea eta Lausitta kalea eraberritzea dira, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

Aretxabalek "aurrera egiteko" udal hauteskundeetarako bide-orria eta proiektuak aurkeztu ditu EAJk. Muinean "pertsonen arteko berdintasuna eta justizia sozialaren aldeko apustua" daudela adierazi du Mikel Uribebebarria alkategaia.

Proiektu nagusienetako bat herrian garatu gura duten zaintza, arreta eta osasun ekosistema da, "zaintza eredu berri baterantz trantsizio gisa". Horren baitan

kokatu dituzte, batetik, komentuan egongo diren eguneko arreta zerbitzua eta jubilatuen egoitza; eta, bestetik, arreta soziala eskainiko duen osasun zentro berria.

Beste inbertsioetako bat da Kurtzebarri institutu berria egitea herriko sarreran, "espazio eta ekipamendu gabeziei aurre egiteko". Lausitta kalea berritzeko eta kiroldegi aurreko berdegunean sortu gura den kirol parkea abian jartzeko asmoa ere agertu dute.

Saez de Viteri eta Betegi, Antzuolako txapelketako finalean

UDAKo Ainhitze Saez de Viteri eta Irati Betegi pilotariak San Isidro txapelketako finalean izango dira; infantil-kadete mailakoa jokatu dute, hain zuzen ere. Partidarik galdu barik sailkatu dira, eta Sorondo eta Rey izango dituzte aurrez aurre. Bihar, zapatua, dira finalak, Antzuolako pilotalekuan, 18:00etan hasita.



Bi alkategairekin debatea egunean Goiena telebistan

Udal hauteskondeei begirako debatea egingo dute maiatzaren 18an, eguna, EAJko Mikel Uribebebarria Barrena eta EH Bilduko Gari Iturbe Etxebarria alkategaiek. Goiena telebistan ikusi ahal izango da, 21:30ean eta 23:30ean, Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta.



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Etorri eta lagunduko dizugu

2022ko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua

Araba ibilbidea 20A • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com



Korrikalaria Otala Zelaiko helmugan, iaz. IMANOL SORIANO

Lasterketak eta erromeria Otala Zelai Egunean

Joseba 'Mardo'-ren oroimenezko 43. Otala Zelai krosarekin ekingo diote egunari domekan, Aozaratzako zelai ezagunean, eta ondoren, jolasen, musikaren eta dantzen txanda izango da; aurten, baina, animaliarik ez da egongo

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohitura den legez, lasterketak emango diote hasiera Otala Zelai Egunari. Haurrenak izango dira lehenengo, 10:00etan hasita, eta zelaia bueltan egingo dute korrika haiek: 500 metro benjaminek, 1.000 metro alebinek eta 1.500 metro infantilek.

Ondoren, 11:00etan, helduen txanda izango da; Joseba Larri-naga Mardo-ren oroimenezko 43. Otala Zelai krosa jokatu dute eta Urkuluri bira eman beharko diote, eta zelaian bukatuko dute -8.400 metro-. Hiru kategoria egongo dira lehian: emakumezkoak banaka, gizonezkoak banaka eta bikote mistoak. Izen-ema-teak Ibarra kiroldegian edo www.

herrikrosa.eus webgunean egin daitezke -bihar arte-, zortzi euroren truke, baita probaren egunean bertan ere, 15 euro ordainduta. Sari-banaketa ekitaldia 12:15ean hasiko da.

Animaliarik ez aurten

Behin lasterketak bukatuta, zelaia bueltako ospakizunari ekingo diote. Aurten ez da poney eta bigantzarik egongo, Udaletik jakinarazi dutenez Animalien Ongizateari buruzko Lege berriak debekatu egiten duelako ikuskizunetan erabiltzea. Horien orde, herri kirol jolasak izango dituzte neska-mutikoek: arto-jasotzea, lokotx-biltzea, harri-jasotzea...

Sagardo dastaketa egongo da 13:30ean, Leizarra musika eskolako trikitilariak girotuta, eta bertan bazkaldu gura dutenei antolatzaileek mahaiak eta aulkiak jarriko dizkiete, ohi bezala. Bazkalostea J&J DJak girotuko du, 16:00etan hasita, eta 18:00etan, musika eskolako dantzarien emanaldia izango da. Euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan egingo dituzte iragarritako ekitaldiak.

Udalbatzakoen mendi buelta

Udalbatzako kideek ere eutsiko diote ohiturari, eta, hainbat auzo-alkatek lagun eginda, mugariak ikusteko mendi buelta egingo dute goiz partean.

Artzain txakur txapelketa bihar, etxeko ordezkaritzarekin

Sei txakurrek jardungo dute lehian Aozaratzako zelai batean, eta haien artean izango da Gastañagaren 'Cool'

M.A. ARETXABALETA

Bigarrenez jokatu da artzain txakur txapelketa, Artxate elkar-teak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Bihar, zapatua, izango da hori, 17:30ean hasita, Aozaratzako zelai batean.

Sei txakurrek erakutsiko dituzte ardiak gidatzeko trebetasunak, artzainen esanetara lan eginda. Lehiaketaren bultzatzaile Javier Gastañaga aretxabale-tarra izango da haletako bat: "Txakurrari emandako argibideei esker, ardiak pasatuko dira iga-ro behar duten lekutik; horrek

txakurraren eta artzainaren arteko sintonia adierazten du". Hiru urte dituen border collie arrazako *Cool* txakurrarekin joango da aurten ere Gastañaga.

Harekin batera beste bost txakur lehiatuko dira: Mikel Aizpuruaren *Txuli* (Oiartzun), Manuel Gorritiren *Turbo* (Aizarnazabal), Mikel Garaia- zetoarraren *Nahi*, Pello Segur-olaren *Kai* (Matxinbenta) eta Juan Ramon Azkargorta biz- kaitarraren *Bat*. Bakoitzak zazpi minutuko bi ariketa egin beharko ditu.



KEPA URR

Bolariak, biharko saiorako gertu

Gipuzkoako 52. hiru txirlo bola txapelketako zortzigarren jaurtialdia jokatu da zapatuan Aretxabaletan (17:00); edonork parte hartu ahal izango du. UDAko bolariak "gogotsu" daude; izan ere, joan den astean - Soraluzeko Ezoi auzoan- lan bikaina egin zuten: Jon Andoni Jakak irabazi zuen, bigarren geratu zen Isana Gorosabel eta laugarren Nerea Lete.



RPS: 83/19





**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Beheko Errota Musika Eskolako ataria; egunotan, pasabidean lanak egin dituzte eremu itxuraldatzeko. IMANOL BELOKI

Musika heziketa aintzat hartuta, matrikula irekita

Beheko Errota Musika Eskolak hilaren 8an ireki zuen 2023-2024ko ikasturtera begirako matrikula. Ekainaren 30era arte izango du 4 urtetik gorako edonork izena emateko aukera, eta musikarekiko interesdunak animatu nahi dituzte bertatik

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Entzuten ikasteko, erritmoa bideratzeko, ahotsa ez behartze-ko moduan egokitze-ko, talde instrumentalei esker taldean lan egiteko eta, batez ere, musikak eskatzen duen diziplina ulertzeko, ateak ireki ditu Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolak. Instrumentu bat ikasteko, abesbatzan, bandan edo talde instrumentalean aritzeko eta oinarritzeko den lengoia musikala ikasteko interesdunek 943 71 49 95 telefono-zenbakira deitu dezakete, edo musikesko@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.

Inoiz ez da berandu

Musika eskolan eskaintza handia dago 4 urtetik aurrerakoentzat, eta ez haurrentzat bakarrik, baita helduentzat eta jubilatuentzat ere. "Inoiz ez da berandu musika ikasten hasteko, eta gogoia eta esfortzua jartzen duen edonork oso emaitza onak lor ditzake denbora gutxian...",

adierazi dute Beheko Errota Musika Eskolatik.

Heziketan duen garrantzia

Musika ikasteak heziketan eragiten duela azpimarratuta eta aukera aprobetxatzeko dei eginez, honako mezu hau helarazi dute musika eskolatik: "Musika ikastea musikari profesionala izateko nahiaz harago doa. Hori ikusiko da, baina egia dena da musika heziketa onarekin gure seme-alabak pertsona hobeak izatea lortuko dugula, enpatikoak eta sentikorrak, eta, aldi berean, konprometituak. Beste herrialde batzuen mailan egon nahiko genuke, eta musikak beste protagonismo bat izatea ikastetxeetan. Lehenago edo geroago, hori

ere iritsiko da, eta, bitartean, hemen gaude gu, zuen seme-alaben hezkuntzaren osagarri gisa. Lorpen handia da etxetik gertu musika eskola bat edukitzea, dena emango duten profesional tituludunekin. Udalek eta Eusko Jaurlaritzak badakite hori, eta baliabideak jartzen dituzte familiek zerbitzu hori arrazoizko kuota baten truke jaso dezaten. Oso aukera ona da, eta guztiok aprobetxatu beharko zenukete, haur bakar bat ere gera ez dadin bere heziketaren osagarri hori gabe. Beheko Errota Musika Eskolan zuen zain gaude. Zatoz eta informazaituz!".

Hobekuntza lanak

Beheko Errota musika eskola-ko atarian, San Juan kalea eta Olazar auzoa batzen dituen pasabidean, lanak egiten izan dira egunotan. Hain zuzen ere, eguaztenetik gaur arte, pasabidea hobetzeko mantentze-lanak egiten izan dira, eta pasabidea itxita egon da.

**MATRIKULAZIOA
EKAINAREN 30ERA
ARTE DAGO IREKITA
BEHEKO ERROTA
MUSIKA ESKOLAN**

'Jira bueltan' jolas tradizionalak berreskuratzeko ekimena, abian

Aretxabaletako eta Eskoriatzako LH-1 mailako umeekin bederatzi joko landuko dira maiatzean zehar eskoletan

I.B. ESKORIATZA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtso-ko umeekin bederatzi joko landuko dira maiatzean zehar eskoletan. Ekimena *Jira bueltan: betiko 50 kanta eta jolas* liburuxkan oinarrituta dago, eta jolas tradizionalak bizirik mantentzeko helburua du egitasmoak.

Jolas tradizionalak bizirik mantentzeko helburuarekin, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek 6 urteko haurren artean hainbat material bana-

tuko dute. Badihardugu Euskararen Elkartek 2017an kaleratu zuen *Jira bueltan: betiko 50 kanta eta jolas* liburuxkan jasotako edukiaren aukeraketa egin eta gero, bederatzi fitxa prestatu dituzte Arizmendi Ikastolako, Kurtzebarri Eskolako eta Luis Ezeiza Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleekin lantzeko. Arrasateko Txatxilipurdi Elkartea arduratuko da ikasleekin bederatzi fitxa horietako jokoak lantzeaz, maiatzean zehar ikastetxeetan egingo diren saioetan.



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Eskolako murala auzolanean

Luis Ezeiza Herri Eskola osatzen duten hezkuntza komunitateko kideek, Iban Urreta artistarekin batera, murala margotu dute eskolako patioan. Artista aretxabaletarraren jarraibideei kasu eginez egin zuten margolana zapatuan, eta, egin beharrekoak amaitzean, hamaiketako egin zuten batutakoek, emaitza atzean, talde argazkia ateratzearrekin batera.

Aisia-gunea San Juan kalearen eta Dorleta auzoaren artean

Aisialdi osasungarria aire librean gozatzeko aukerak gehitzeko asmoaren baitan, San Juan kalearen eta Dorleta auzoaren artean beste eremu bat egokitzeko lanak hasi zituzten joan den astean. Egingo diren lanen artean, material birziklatuz egindako tarima ipiniko dute inpaktu fisiko txikiko ariketak egiteko -yoga aire zabalean,

erlaxazioa...-, ur-jauzia eta inguruarekin integratutako urmael txiki bat egongo dira eta irakurketa-gune atsegina izateko eserlekuak ipiniko dituzte.

Eskoriatzako Construcciones y Excavaciones Ferreira ari da lanak egiten San Juan kalea eta Dorleta artean. "33.480 euroko aurrekontua dute eta bi astean amaituta egotea aurreikusten dugu", dio Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburuak.



Zerbitzuetan aurrera, etorkizunera begira

EH Bilduk programaren hiru ardatz nagusiak aurkeztu ditu: zerbitzu publikoak, etorkizuneko erronkei erantzutea eta elizateak. "Horiek dira herria biziberritzeko, bultzatzeko eta pertsonen ongizatea hobetzeko gakoetako hiru", adierazi dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Erretiratuentzako lokal duina eta berritua behar dela azpimarratuz, lehentasuna izango dutela osasun etxea mantentzeak eta lehen mailako arretaren alde lan egiteak dio EH Bilduk; baita kiroldegia eta gimnasioa berri-tzeak ere. "Espazio, jarduera eta zerbitzu desberdinak hobetzea beharrezkoa dela uste dugu herriko bizitza biziberritzeko".

Zerbitzuetan arreta

Etorkizuneko erronkei erantzuteko eta pertsonen ongizatea hobetzeko proposamenak egin dituzte. Etxebizitza-plan bat abian jartzeko errealtateak aztertzea, adibidez, gazteen emantzipazioa errazteko. Horrekin batera, zaintza-beharrei modu duinean, komunitarioan eta solidarioan erantzutea. Energiaren prezioaren igoeraren eta klima larrialdiaren aurrean, auzoen birgaitze eta eraginkortasun energetikoa aztertzea proposatzen dute, etxebizitzaren isolamendua edo udal-plaka fotovoltaikoak jartzeko aukera hobetuz. Suteei aurre hartzeko, hirigunetik gertu dauden basoak kontserbatzea bultzatuko da, eratzun berde bat sortuz.



Eskoriatzako EH Bilduko lantaldea Gorosarri plazako eskaileretan. EH BILDU ESKORIATZA

Elizateak kontuan hartu

"Eskoriatzako Elizateen Elkar-tearen hautagaitza gabe, ahalegin berezia egin beharko dugu erabakietan haien presentzia bermatzeko. Horretarako, batzorde bat sortu beharko da, auzo-alkateekin, eta elizateen ahotsa bilduko duena, behar besteko aurrekontuaz hornituz. Orain arteko lanak jarraipena izango du, zenbait arazori erantzunez: saneamendua eta hobi septikoak; energia berriztaga-

rrirako sarbidea; ekoizleentzako laguntzak; ur-hornidurako arazoak konpontzen saiatzea...".

Herri izaera berreskuratzea

Programa laburbiltzeko, honela dio Edorta Zubizarretak, Eskoriatzako EH Bilduko alkategaiak: "Herri honen izaera eta kaleko bizitza berreskuratu behar dira. Horretarako, Eskoriatzako Udalak pertsona eta elkarte guztien lankidetzara erraztu eta bultzatu behar du".

zapatu goizean plazan; paella-jana kontzejupean egingo dugu Inkernu kanpoan beharrean, eta bazkaltzeko 110 lagun izango gara. Aurretik egitarauan ez zegoen Potx magoa 12:00etan izango dugu Inkernu tabernan, eta Andoni Oilokiegi musikaria Inkernu barruan izango dugu bazkalostean; 19:00etan, berriz, Ad Libitium-ekin txaranga izango dugu, aurreikusitako moduan, eta Etxeperen emanaldia, aldiz, plazan izango da, karpa jarrita dagoela aprobetxatuta".

Eguraldiak baldintzatuta, aldaketak egitarauan

Zapatu honetan ospatuko da Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna, hitzordu batzuk lekualdatuta

I.B. ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna iragartzeko ezusteko kontzertua egin zuten Inkernun joan den zapatuan. Arrakasta itzela izan zuen; izan ere, Arrasateko Iskanbila taldearen itzulera-kon-

zertuaren testigu izan ziren han batutakoak.

Motorrak ondo berotu arren, egitarauan aldaketak iragarri dituzte biharko, eguraldi txarra dagoelako iragarrita. "Puzgarriak eta talogileak ez dira batuko



Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea osatzen duten bost kideak, asteen. IMANOL BELOKI

Hautesle Elkarteko kideak gertu daude udal jardunerako

Dorleta Elkorobarrutia buru, lantalde esperientziaduna batu da aurtengo agintaldiko erronkei aurre egiteko

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Zerrenda bakarra aurkeztu da Gatzagan maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako: Hautesleen Elkartearena. Dorleta Elkorobarrutia buru, beste lau kideekin osatu dute taldea -2.a Eneka Zankada; 3.a Aiora Elkorobarrutia; 4.a Juan Bengoa; eta 5.a Idoia Armendariz-, eta gertu daude Udaleko lanetan hasteko.

Lehenengo urratsa, entzutea

"Taldea polita osatu dugu, esperientziaduna. Kostata osatu dugu,

ondo hausnartuta, eta ilusioz gaude. Zaila da jakitea zein den egingo dugun lehenengo lana. Aurreko agintaldian egon diren horiekin batzea, entzutea, egin barik geratu direnak zeintzuk diren jakitea eta egingarriak ote diren aztertzea izango da lehenengo urratsa. Herrian galdetuta bat egingo dugu, eta, gero, batutakoak lantzen hasiko gara, urratsez urrats...", adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Gatzagako Hautesleen Elkarteko alkategaiak.



IMANOL SORIANO

Doinu urbanoek erakarrita

Hirugarren urtez antolatu dute Makilakorta Fest jaialdia Leintz Gatzagan. Goizean Makilakortara igo ziren zenbait herritar, eta gero, herrigunera jaistean, poteo musikatua eta herri bazkaria egin zuten. Hala ere, iluntzeko musika eskaintzak erakarri zituen, bereziki, gazteak: Tatta, Denso, Mutiko eta Youth United igo ziren plazan jarritako oholtzara.



Eguazten arratsaldean egin zuten Udalak eta Jai Batzordeak 2023ko Pentekosteetako egitaraua iragartzeko agerraldia. L.Z.L.

Egitarau betea, kulturen "arreta berezia" jarrita

Udalak eta Jai Batzordeak asteen aurkeztu dute Pentekosteetako egitaraua: maiatzaren 26tik 30era. Jaiei hasiera ematearen arduradunak izango dira zaintzan ari diren emakume anonimoak: "Aitortza egin nahi diegu, izan horri izena ere jarri"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Maiatzaren 26tik 30era askotariko ekintzak izango dira Pentekosten barruan. Eguazten arratsaldean egindako agerraldian, Gorka Artola alkateak kultura eskaintzan jarri zuen arreta, besteak beste: "Aurtengo jaiekin ere, aisialdirako eta gozamenerako tarteak eskaintzea-ekin batera, kulturaren aldeko

apustua egin dugu. Aurretik esan izan dut Bergara herri bizia izatea nahi dugula, parte-hartzailea eta aberatsa. Eta kulturak herri bat aberats egiten du. Urte osoan sustatu ditugu kultura ekimenak, eta baditugu uneak horiek modu trinkoan gozatzeko; Pentekosteak, esaterako. Uste dugu kultura sorkuntzan ekarpen handia egiten duela

Bergarak, eta jendeak gogotsu erantzuten duela. Beraz, bada-gokigu hori eskaintzea".

Suziria: zaintzari aitortza

Jaiei hasiera emateko suziriari begira, zaintzari aitortza egin nahi izan diote: "Zaintza lanetan aritzen diren pertsona anonimo horiei guztiei egin nahi diegu aitortza. Izan horri izena ere

jarri. Gehienetan, emakume aurpegia du zaintzak, eta aitortza egin nahi diegu, jaietako espazioa ere baliatuz". Datozen egunetan emango ditu Udalak suziriaren bueltako xehetasunak.

Mokoloblock, erraldoien gunea...

Egitaraua, diotenez, hilabeteetako lanaren emaitza da, elkar-lanean osatutakoa: "Herriko norbanako eta eragile askok hartu dugu parte aurtengo egitaraua prestatzen, izaera askotarikoak, eta emaitza ere halakoa izan da. Kultura, kirola, gastronomia, musika eta beste hainbat jasotzen ditu egitarauak. Adin eta gustu guztietako pertsonak lekua izan dezaten saiatu gara".

Askotariko ekitaldien artean, honako hauek azpimarratu dituzte. Batetik, maiatzaren 29an egingo den herri bazkarian hiru aukera egongo dira aurtun: orokorra, beganoa eta zeliakoa; sarrrerak *seminarixoa-eus*-en egongo dira salgai, 15 eurotan. Bestetik, Mokoloblock topaketa bigarren antolatu dute; maiatzaren 28an izango da, San Martin plazatik hasita (18:00). Gaur da izena emateko azken eguna, www.bergara.eus-en. Eta, hirugarrenik, Jai Batzordeak nabarmendu du maiatzaren 27an San Martin plaza erraldoien gunea izango dela. Betiko erraldoien eta gomazkoen erakusketa, krispetamakina, umeek margotzeko erraldoien liburuxka, umeentzat puzgarria... denetarik izango dute, Bergarako Erraldoi Taldearen eskutik. Kanpoko hainbat talde etorriko dira San Martin plazan hasiko den kalejirarako.

Delirium Tremens, J Martina...

Zuzeneko kontzertuek ere ez dute hutsik egingo. Kontzertu asko eta askotarikoak izango dira lau

egunetan zehar, eta, txosnaguneaz gain, honako hauek izango dira plater nagusiak: Delirium Tremens -hilaren 26an, San Martin plazan (23:00)-; J Martina -hilaren 27an, San Martin plazan (23:00); eta Goxua'n Salsa -hilaren 28an, San Martin plazan (21:30).

Txosnak, berriro Bideberrin

Xaxauk ere hainbat ekintza antolatu ditu maiatzaren 25etik 30era; pozik agertu dira Masterrera berritzeko lanak amaitu ostean txosnagunea Bideberrira itzuliko delako. Bestalde, aurtengo nobedade nagusia da herriarrek osatutako boluntario-sarea: "Une puntualetan laguntzeko prest dauden herriarrek osatzen dute, eta jaiei begira lan txikiak egiteko prestutasuna azaldu duten jendea dago bertan. Oso eskertuta gaude, herriar asko animatu direlako", dio konpartsa kide Andrea Gonzalezek.

Era berean, aurtun 11. edizioa biziko duen film laburren lehiaketan ere jarri dute arreta Xaxaukoek; gaur da lanak entregatzeko azken eguna, hilak 12 -xaxaukomunikazioa@gmail.com-. Jaietako domekan egiten dute, eta, diotenez, gero indar handiagoa ari da hartzen. Bestalde, gogora ekarri dute txosnagunean ez dutela inolako erasorik onartuko eta guztien ardura izango dela ingurua garbi eta txukun mantentzea; hilaren 25eko muntatze eta hilaren 30eko desmuntatze lanetan ere laguntzeko dei egin dute.

PENTEKOSTEETAKO EGITARAU OSOA 'GOIENA.EUS' WEBGUNEAN DAGO, DAGOKION KANALEAN

Bergara Hiriak, 2026ra arte

BKEko eskubaloia, saskibaloia, pilota eta futbol sailek, Lokatza Ziklismo Eskolak eta Burdinola irristaketa taldeak hitzarmena berri dute Udalarekin 2018an abiatutako Bergara Hiria txapelketekin jarraitzeko. 2023tik 2026ra berri dute hitzarmena, emakumezkoen kirola bultzatzen jarraitzeko asmoz; Udalak 12.000 euroko ekarpena egingo du urtero.



B.U.

Bedelkar: udako bilduma aurkezteko festa Seminarixoan

Udako bilduma aurkezteko festa berezia antolatu du Bedelkarrak biharko, maiatzak 13, Seminarixoan -11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara-. Musika eskolako ikasleen emanaldia (12:00), koktela (12:30) eta Camden Town-eko dantzarien erakustaldia (19:00) izango dute. Bedelkar elkarteak hamaika dendak hartuko dute parte.



Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Hauteskunde programako proiektu izarra da EH Bildurentzat Arrizuriaga. Eraikina egonkortzeko lanak amaitu berri, Gorka Artola alkategai duen taldearen asmoa da jauregia kultura erabilerarako ekipatzea eta han kokatzea emakumeen etxea.

Arrizuriaga, eta beste batzuk
"Bergarako kultura ekosistema elikatzea eta berritzea" izango da Arrizuriagaren helburua, eta askotariko arte diziplinek izango lukete lekua han: soinuarekin edo gorputzarekin lotutakoek, irudiarekin edo hitzarekin harremana dutenek... "Egunero erabiliko da, norbanakoek eta taldeek euren jarduna aurrera ateratzeko", adierazi zuen ze-

Arrizuriaga berritua, EH Bilduren proiektu izarra

rrendako laugarren Maite Usabiagak programa aurkezteko atzo egindako ekitaldian. Adierazi zuten, aldi berean, emakumeen etxerako prozesua mugimendu feministarekin batera diseinatu dutela eta hainbat zerbitzu eskaintzea ere aurreikusten dela.

Programako beste puntu batzuk honako hauek dira, besteak beste: Labegaraletako kiroldegi pareko kantxa estaltzea –ur txorroten parkea eta *pump truck*-a ere han joango lirakeke-; *Ele-*



Arrizuriaga jauregia, martitzen arratsaldean. J.B.L.

mentala udal jabetzako bihurtu eta mediateka berria han kokatzea; udal eraikinak energetiko ki burujabe izateko urratsak egitea; "herri bizigarriagoa" bultzatzeko Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria egitea; etxebizitzarako sarbidea errazteko gazteen emantzipaziorako zerbitzua martxan jarri eta etxe komunitarioak sustatzea; eta zaintza komunitarioarako neurriak hartzea, adibidez, auzoetan zaintza-sareak sortuta.

Botoa posta bidez emateko

Posta bidezko botorako EH Bilduk Iralan duen lokala zabalik egongo da astelehenetan eta egueneetan 17:30etik 19:30era eta martitzenetan 11:00etatik 13:00etara; hilaren 18a da azken eguna.



'Elementala' kulturarako baliatu nahi du EAJk

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Hauteskunde programaren erdian kokatu du EAJk Miguel Altuna zaharra, *Elementala*, kultura ekipamendu bihurtzeko proiektua. Herriko erdigunean dagoen eta azken urteetan hutsik egon den eraikina Bergarako kultura taldeentzat –arte eszenikoak lantzen dituzten taldeentzat– bideratzeko proiektua prestatu dute jeltzaleek, eta, diotenez, aukera izan dute dagoeneko herriko kultura eragileekin partekatze.



Miguel Altuna zaharra, *Elementala* izenez ezaguna, asteon. J.B.L.

Mikel Lete alkategaiaren arabera, "ilusioa eta lan egiteko gogo handia" ikusi dute herriko eragileen aldetik: "EAJk babes osoa eta bultzada emango dio ilusio horri; Bergarak bere nortasunean txertatua du kultura, eta taldeek euren jarduerak elkarlanean gauza ditzaten espazio duin bat izatea ezinbestekoa da, eskaera historikoa baita. Posible da, eta elkarlanean errealitate bihurtuko dugu".

Gainerako proiektu nagusiak

Programako beste lerro nagusien berri ere eman dute jeltzaleek asteon: Arin eguneko zentroko zerbitzua zabaltzea; bereziki gazteei begira babes ofizialeko etxebizitzetarako eta alokairurako dirulaguntzak indartzea;

Agorrosin futbol zelairako bigarren eta hirugarren faseak egin eta Ipintzako zelaia berritzea; urte luzez eskatu izan duten Simon Arrieta plaza berriro urbanizatzea; Martokoa eta Labegaraletako auzoak berriro urbanizatzeko proiektuak gartzatzea; Udalararen esku dagoen bidegorri sarea amaitzea; "eta azken agintaldian erabat utzita egon den landa-eremuko auzoen egoera hobetzea".

Posta bidezko botoa emateko

Posta bidezko botorako, EAJk batzokia zabalik izango du astelehenetik egubakoitzera 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (645 72 27 08). Maiatzaren 18a arte egin daiteke eskaera.



Alkategaien arteko debatea martitzenean Goiena telebistan

EH Bilduko alkategai Gorka Artola, EAJko Mikel Lete eta PSE-EEko Alberto Alonso Goiena telebistan egongo dira, udal hauteskundeetako debatean. Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta, askotariko gaiak izango dituzte hizpide. Maiatzaren 16an, 21:30ean eta 23:30ean.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

121
K
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº99/625

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Igoera bermatuta, ligako txapeldun izateko lehiara

BKEko Goizper Group saskibaloit taldeak bigarren probintzial mailako finala jokatuko du domekan Labegaraletan (16:00), Lasarteko Ostadar taldearen aurka; igoerarako txartela lortu badute ere, denboraldia ligako txapeldun izanda borobildu nahi dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergara Kirol Elkarteko Goizper Group saskibaloit taldeak denboraldiko zitarik garrantzitsuena izango du domekan Labegaraletako kiroldegian (16:00). Senior mailako Gipuzkoako bigarren probintzial mailatik lehen mailarako igoera bermatu dute, azken hamabi partiduetatik hamar irabazita sailkapeneko lehen postuan daude eta bergararrak. Bada, etzi, finala jokatuko dute, Lasarteko Ostadar taldearen aurka, ligako txapelduna zein izango den zehazteko.

Taldea moldatu beharra

Alex Familiarrek, Fernando Juaristik eta Iñaki Ugarteburuk hartu zuten taldea zuzentzeko ardura duela lau zape osteko urte. Familiarrek dio oso ondo ulertzen dutela elkar eta hori gero nabaritu egiten dela talde berruko harremanetan, baita emaitzetan ere. Finalera begira, lesioek eraginda, taldea moldatu egin beharko dutela dio: "Lesio garrantzitsuak ditugu eta partidu oso gogorra izango da, baina izango ditugu gure aukerak. Amaieran hainbat garaipen pilatu ditugu, baina oso gogorra izan da denboraldia. Lesioak eta beste arazo batzuk direla eta ez da denboraldi eroso izan, baina amaieraz, behintzat, asko ari gara gozatzen". Hurrengo urteko erronka berrirako gogotsu dago taldea; betiere, gutxieneko jokalarik kopurua izango balute.

Animatzeko deia zaleei

Martitzenean Mariaren Lagundiko kantxan egindako entrenamenduan –asteen behin bakarrik entrenatzen dira Labegaraletan–, taldeko kapitain Marina Juaristik aipatu zuenez, oso jende gutxi joan ohi da nesken saskibaloia ikustera. Finala izanda, taldekide guztiek dei egin diete saskibaloizaleei Labegaraletara joan daitezen animatzera.



Marta Boizas saskiratzeko barneraldi baten, joan den asteburuko partiduan. I. SORIANO


"Lesioekin, baina ligako momentu onenean helduko gara finalera"

MARINA JUARISTI GOIZPER GROUP SASKIBALOI TALDEKO KAPITAINA

Nola dago taldea domekako final handira begira?

Taldea ligako une onenean dago, denbora asko daroagu entrenatzen. Hori bai, lesio garrantzitsu batzuk ditugu; espero dugu baja horiek askorik ez nabaritzea. **Ligako lehena jokatuzenuten Ostadarren aurka, eta galdu egin zenuten.**

Bai. Udatik itzuli berritan ez geunden gure sasoirik onenean. Orain, liga amaiera dela, askoz hobeto gaude; suposatzen dut eurak ere hobeto egongo direla. Espero dugu partidu polita izatea; igoera bermatu dugu, baina badugu finala irabazi eta ligako txapeldun izateko gogoak. **Herrikideen babesa eskertuko zenuten, ezta?** Bai... Egia esan, jende gutxi etortzen da gure partiduetara. Arratsalde ezberdin bat bizi nahi duen hari gonbidapena



J.B.L.

egiten diogu Labegaraletara etortzeko.

Taldea oso batuta dago...

Hori da gure indargune nagusia. Jokalarik gehienek urte batzuk daroatzagu batera eta harremana ezin hobea da. Kirola eginez oso ondo pasatzen dugu; eta, irabazteko aukera badago, askoz hobeto. **Datorren urtean taldea mantendu ahaliko dugu?** Gehienok jarraitu nahi dugu, baina ikusiko da. Maila berria erronka polita izan daiteke.



IMANOL SORIANO

Liga Nazionalerako, bide onetik

Euskal Ligan jokatzen ari den gazte mailako gizonen taldea Liga Nazionalera igo ahal izateko lehia betean dago. Joan den zapatuan Betoño 3-1 menderatu ostean –argazkian–, hirugarrenak dira sailkapenean (66 puntu), bigarren dagoen Leioaren (67) eta liderra den Gernikaren (69) atzetik. Ariznabarraren eta UDAREN aurka jokatuko dituzte azken bi partidua.

Herri Arteko Pilota Txapelketa: Bergara, lehenengoan kanpora

Lehenengoan geratu da Bergara Herri Arteko Pilota Txapelketa-tik kanpo. Maiatzaren 5ean jokatutako zuten itzulerakoa Altzoren aurka, eta, joanekoan partidu guztiak galdu ostean (3-0), Bergaran senior mailakoa bakarrik irabazi zuten. Kadete mailako bikoteak 22-12 galdu zuen; gazte mailakoak, 22-11; eta senior mailakoak 22-16 irabazi zuen.



Kadete mailako Aratz Ormaetxea. I.S.

OHARRAK

Orfeoaren mendeurrenako kontzertua: sarrerak

Maiatzaren 20an interpretatuko dute Mozarten *Requiem* obra, San Pedro elizan (19:00). Prezioa: 12 euro (seminarixoa.eus).

Zinegoak jaialdiko emanaldiak Seminarixoa

Sexu askapena aldarrikatzeko jaialdiko filmak ikusi ahaliko dira maiatzaren 17an. Sarreraren prezioa: 2 euro (seminarixoa.eus).

Kontzertuak asteburuan Gorlako kantinan

Bihar, hilak 13, Islabat eta Orhi taldeek joko dute, 19:30ean.

Metal doinuak kartzela zaharrean zapatuan

Anbotofest jaialdia izango dute hilaren 13an, 22:00etan; ondoren, Aritzek eta Jonakok jarriko dute musika. Sarrera: 8 euro.

Gimnasia erritmikoa bihar Labegaraletan

Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa jokatuko da, 08:30ean.

Ate irekiak Laboratorium museoa

Maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, Laboratorium bisitatzeko aukera egongo da. Argibide gehiagorako: 943 76 90 03 edo laboratorium@bergara.eus.

Motorrak protagonista Aroztegiko erakusketan

Espainiako gerratik 80ko hamarkadara bitartean Euskal Herrian ekoiztutako motorren eta ziklomotorren erakusketa ikusgai dago Aroztegin; hogeitik gora ibilgailu gaude, Miguel eta Agustin Lazpiur anaia bergararrek zaharberitutakoak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Euskal Herrian egindako motorren eta ziklomotorren erakusketa dago ikusgai Aroztegi aretoan; denora, 25 ibilgailu, Espainiako gerratik 80ko hamarkadara arte ekoiztutakoak –tartean, Lambretta, Mobylette eta BH markakoak–, eta Miguel eta Agustin Lazpiur anaiek zaharberitutakoak. Horiekin batera hainbat lantegitako makinak jarri dituzte, baita garai bateko argazki ugari ere. Agustin Lazpiurrek inaugurazioan adierazi zuenez, erakusketaren helburua da gazte jendeari eta adinekoei zer egin den ikusaraztea, kontura dadin zer lan egin den Euskal Herrian. Ildo beretik, Gorka Artola alkaterearen esanetan, motorren atzean dagoen industriaren garapen guztia eta horrek sortzen duen lan-kultura eta bestelako kulturak ikusgai jartzea garrantzitsua da: "Ziurrenik, hemendik pasatzen diren askok euren bizitzan esanguratsuak izan diren motorrak ikusiko dituzte".

Afizioa denen begietan

Lazpiur anaiek motorzaleak dira, eta urtez urte batu dituzte motor horiek. Agustin Lazpiurrek

aitortu du bizpahiru falta direla, ez dituztelako lortzen: "Ibarraldean, Zarautzen eta Tolosako tailer txiki batean egindako motorrak daude, besteak beste, eta, nire ustez, hori garrantzitsua da". Behin ibilgailua lortu eta egiten duten prozesuaz galdetuta, gaineratu du lehendabizi informazioa topatzen saiatzen direla. "Ahal dena; izan ere, ez dago informazio handirik", dio. Ondoren, "poliki-poliki" konpondu egiten ditu, orokorrean apurtuta egoten baitira: "Ordezko piezak egiten ditut, ez baitaude. Azkenik, motorra margotzen dut, muntatu eta, azkeneko, martxan jarri".

Bi anaiek ez ezik, Gorka Artolak ere gustuko ditu motorrak, eta, dioenez, gisa horretako erakusketa bat herriarentzat "luxua" da: "Ni motorzalea naiz, eta bakoitzak bere esangura dauka, baita bergararentzat ere. Seguru asko, jendearentzat ezagunak izango dira batzuk, eta beste asko ezagunak ez direnak gaur egun, baina bakoitzak bere istorioa dauka. Uste dut Euskal Herrian izandako ondarea eta bakoitzak bere istorioa edukitzea herriarrentzako ederra dela".



Motorren eta ziklomotorren erakusketa Aroztegin. MIKEL ZUMALDE

Hilaren 21a, azken eguna

Maiatzaren 5ean zabaldu zituen ateak erakusketak, eta "pozik" agertu ziren lazpiurtarrak. Orain, hilaren 21era arte egongo da Aroztegin: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Mariaren Lagundiaren azoka eta ikasturte amaierako jaia

Datozen bi zapatuetarako ekin-tzak antolatu ditu Mariaren Lagundia ikastolak. Azken urteetan bezala, Euskal Herriko 10 gobernuz kanpoko erakunde izango dira bihar herriko plazan egingo den azoka solidarioan –ikastolaren FISC erakundea ere egongo da–. GKE-ek euren lanaren berri emango dute, eta, zenbaiten kasuan, produktuak salduko dituzte, dirua proiektuetara bideratzeko. Maiatzaren 20an, berriz, ikasturte amaierako jaia egingo dute ikastetxearen bueltan, egun osoan, 10:30etik 19:00etara bitartean. Gainera, erraldioak, trikitilariak, puzgarriak, tailerrak, zozketa eta taberna ere ez dira faltako.

Txaranga Egunaren bigarren aldia egingo dute bihar

Bigarren aldiz egingo da Txaranga Eguna, bihar, *Txaranga bizitza* da lelopean. Iaz egin zen aurrenekoz, osasun egoeraren ostean, kaleko bizitza berreskuratzeke asmoz. Egoera hobetu egin bada ere, Pentekoste jaien aurrerapen modura planteatu da eguna. Izaera eta estilo askotariko sei txaranga ibiliko dira kaleetan barrena. 11:30etik 14:30era bitartean, Tximeletak, Irulitxa txaranga eta Gesaltza fanfarrea txarangen txanda izango da. 18:00etan, Bergarako Musika Eskolako txaranga aterako da kalera; eta 19:00etan, berriz, Brincadeira eta Rockalean. Azken hirurek 21:00ak arte giro-tuko dute Bergara.

Sara Puerto

Limpiadog

Maskotak modu erraz eta erosoan garbitzeko aukera paregabea eskaintzen du Bergarako Limpiadog-ek

Sara Puertok maskoten autogarriketa-zerbitzua zabaldu berri du Bolua auzoan, etxean maskota garbitzea erronka handia izan daitekeelako eta herrian halakorik ez zegoelako.

Modu errazean eta hitzordurik eskatu gabe garbitu daiteke maskota Bergarako Limpiadog-en, 10:00etatik 20:00ra bitartean. Neurria jarri daitekeen bainuontzia eta lehorgailu berezia dauka: "Bainuontzia beharino jaitsi daiteke, txakurra errazago sartzeko, eta ondoren igo, jabeak makurtuta egon beharrik ez izateko". Xanpuak, koloniak, toallak eta bestelakoak ere badaude: "Produktu bereziren bat behar izanez gero, horixe



Sara Puerto, maskoten autogarriketa-zerbitzuan.

Maskoten jabeak gustura daude hemen ez direlako gertatzen etxean izaten diren buruhausteak

ekarri behar da; bestela, dena daukagu". Halaber, 10-15 euroren truke, aurrez hitzordua eskatuta, Puertok berak garbitzen du animalia. "Garbi eta pozik" ateratzen dira maskotak, baina baita jabeak ere ez direlako gertatzen etxean izaten diren

buruhausteak. Hainbatek esperientzia errepikatu dute.

Autogarriketa-zerbitzua osatzeko, ile-apaindegia irekiko du uztaillean, eta euren markako xanpuak, koloniak eta bestelako produktuak dagoeneko eskatu daitezke katalogotik.

Garbitu zure maskota eroso!

8 minutu
5€

Garbitzea eta xaboitzea

Limpiadog

Maskoten autogarriketa

6 minutu
3€

Lehortzea

BERGARA

Bolu 16, behea

881 97 05 56

Jarrai gaitzazu:

Instagram: limpiadog_bergara

Facebook: limpiadog_bergara



Maiatzaren 15a da San Isidro eguna, baina gertuen den zapatuan egiten da feria Antzuolan; iaz, maiatzaren 14an. IMANOL SORIANO

Garaira egokitu da San Isidro

Bihar ospatuko dute San Isidro azoka, eta Antzuolako Udalak egun osorako egitaraua antolatu du. Baserrietako astoak, ardiak, behorrak, pottokak eta behiak izango dira; baita bertako ekoizleen produktuak ere. Herri bazkaria eta kontzertua ere egingo dira

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Kalean lan eta baserrian jai izaten zen garai batean San Isidro eguna. Meza nagusia eta prozesioa egiten zituzten, Errukizko Amaren Parrokian dagoen San Isidro santua baitzeramaten gainean. Komisioko kideek zuten horren ardura, eta txandakatuz antolatzen ziren, auzoen artean; haietako bakoitzak ermandade bat zuen. Bazkaria etxeetan egiten zuten, berezia, eta arratsaldean, feria antolatzen zuten, goizean oinez kalera ermandako animaliekin. Tratanteak izaten ziren, ezaguna baitzen feria; idi probak ere egiten zituzten, eta aizkoran edo pilota jokoan ere aritzen ziren. Ez zen aspertzeko aukerarik; erromeria ere egiten baitzuten pilotalekuan.

Aldi guztiak, ordea, ez dira berberak. Ordu hartan, indus-

triak ez zuen aski indar inguruotan, eta gehiago ziren lehen sektorean aritzen ziren herritarrek; alabaina, bere garapenarekin batera, beherantz egin zuen baserri inguruko jardunak pixkanaka, gaur egun ere baden arren horretan aritzen denik herrian, hala nola gazta ekoizpenean, behi okelaren sustapenean eta barazki ekologikoen. Alabaina, jatorrizkoarekin alderatu ezker, egungo azokak badu kutsu folklorikoagoa. Ganadu, artisautza eta janari saltzaileak izaten dira, eta aurtengoan ere hala izango da.

MAIATZAREN 15A DA SAN ISIDRO EGUNA, BAINA HURRENEN DEN ZAPATUAN OSPATZEN DA HERRIAN

Maiatzaren 15a da San Isidro eguna, baina, ohi den moduan, hurrenen duen zapatuan ospatuko dute; bihar.

Animaliak eta ekoizleak

Iruetxeta, Aitzaga eta Iralatorre baserrietatik, astoak eramango dituzte baserritarrek azokara; Altxetatik, ardiak eta behorrak jaitziko dituzte kalera; Arreluzandi baserritik eta Irumendi elkartetik ere, behorrak; eta Lamariano baserrikoek ardiak, pottokak eta behi eskoziarrak izango dituzte ferian. Halere, Antzuolako Udaletik jakinarazi dute ez dela jakinekua zenbat buru izango den bakoitzetik.

Animaliez gain, azokan erakusmahaiak ere izango dira. Antzuolatik kanpoko hamasei saltzaile izango dira; besteak beste, eskulanak, bitxiak eta arropak izango dituzte salgai

Biharko egitaraua

Egun osoan zehar izango dira San Isidro eguneko ekintzak.

- **09:00** Azoka.
- **10:00-18:00** Ate irekiak Akiñabei errotan.
- **12:00** Txistularien eta trikitilarien kalejira.
- **12:30** Herri kirolak, Zurrategin.
- **14:30** Bazkaria, patioan.
- **17:00** Umeentzat jolas erraldoiak.
- **18:00** San Isidro pilota txapelketako finala.
- **22:30** Puro Relajo taldearen kontzertua, herriko plazan.

San Isidro txapelketa

Olalde pilota elkarteak martxoaren 19an hasi zuen San Isidro pilota txapelketa, eta bihar izango dira finalak, 18:00etan. Benjamin eta alebinetan, Amaiur Landak eta Irati Bengoetxeak eta Uxue Gomezek eta Alize Sagarduik osatutako bikoteak igaro dira finalera; infantiletan eta kadeteetan, Nahia Sorondo eta Arhane Rey eta Ainhitze Saez de Viteri eta Irati Betegi. Txapelketatik kanpo, Nagore Galeano eta Olatz Insausti herritarren arteko partida izango da.

goizean egingo den azokan, eta jan-edanarako aukera ere izango da; taloak, pastelak eta hesbeteak, esate baterako.

Halere, bertako ekoizleen produktuak ere izango dira salgai; herritarrenak. Cristina Moraisek eta Elvira Quintanak euren eskulanak izango dituzte; hari lanak ere ikusgai egongo dira, astelehenetan propio horretarako gelditzen diren herriko emakumeek eginikoak; ilustrazioan, Itziar Murgizu eta Ione Larrañagaren lanak izango dira. Horrez gain, lau gazta saltzaile ere egongo dira: Txomin Etxezarreta, Pikunieta, Amatxo eta Jean Mattite Duhalde -aihetarra da-. Bizkalatzako sagardoa ere egongo da.

Anelkar eta Andramanuelak elkarteek ere erakusmahai bana izango dute. Eta, gainera, emakume taldeko kideek jakinarazi dute kaleratu berri dituzten kamisetak eta poltsak eskuratzeko aukera izango dela; are gehiago, aurrez erreserba egin da zutenek bertan jaso ahal izango dute.

09:00etatik aurrera

Horretaz guztiaz gozatzeko aukera izango da goizeko bedera-

tzietatik aurrera, orduan egingo baitute azoka eguerdira arte. Txistularien eta trikitilarien kalejira ere izango da, 12:00etan, eta, ordu erdi geroago, herri kirolen erakustaldia, Zurrategi plazan. Karmele Gisasola mallabitarra harria jasotzen arituko da, eta alboan izango ditu Ugaitz Mugertza mutrikuarra eta Jon Rekondo leitzarra, aizkoran. 14:30ean, herri bazkaria egingo da eskolako patioan, eta 17:00etan, umeentzako jolas erraldoiak, herriko plazan. Arratsaldeko seietan, berriz, San Isidro pilota txapelketako finalak jokatu dira udal pilotalekuan, eta 22:30ean Puro Relajo taldearen kontzertua izango da.

Ekintzei, ordea, gaur ekingo diete, Antzuolako Udalak bertso jaialdia antolatu baitu 22:00etarako, Torresorua aretoan. Bibe plataforman har daitezke sarreak, baina baita unean ere. Ane Zuazubiskar, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Agin Laburu eta Aitor Bizkarra bertsolariak arituko dira bertsotan, eta Jon Mata antzuolarrak izango du gaiak jartzeko ardura. Azaldu duenez, askotariko ariketek osatuko dute gaurko bertso saioa, eta gaietan ere ertz asko ukituko dituzte, gaurkotasunarekin zein gertaera zehatzekin lotutakoak, hala nola ofizioka, koplaka eta bakarka arituz. Are gehiago, jolaserako ariketak ere izango dira, publikoarekin hartu-eman izateko eta umoreari bide emateko.

BASERRIETAKO ANIMALIAK IZANGO DIRA FERIAN; ETA KANPOKO ETA BERTAKO EKOIZLEAK



Martitzenean egin zuten agerraldi publikoa, Herriko Plazan. MIREN ARANA

Alardean parte hartzeko deia, bizirik mantentzeko

Mairuaren Alardea Kultur Elkarteak eta Antzuolako Udalak agerraldi publikoa egin dute, eta azaldu dute herritarren parte hartzea beharrezkoa dela Alardeak jarraipena izan dezan. Parte hartzeko gonbita egitearekin bat, ohartarazi dute Mairua falta dela

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Mairuaren Alardea kultur elkarteko kideek, Antzuolako Udaleko ordezkariak eta dozena herritarrek martitzenean egin zuten agerraldia Antzuolako Herriko Plazan, eta, nabarmendu zuten, Mairuaren Alardean parte hartzaileak egon badaude, baina belaunaldi aldaketaren beharra dago, orain daudenek erreleboa izan dezaten

eta "herriak bere duen ondareak" jarraipena izan dezan.

Uztailaren 15ean ospatuko da aurten, herriko jaietako zapatuan, ohi den moduan, baina Xabier Legorburu elkarteko kideak gaineratu du hori posible izateko herritarren parte hartzea beharrezkoa dela. Emandako datuen arabera, iaz 189 pertsonak hartu zuten parte, hala nola dantzariak, musikariak, fusilariak eta atzeko lanean dihardu-

ten makillatzaileak eta diseinatzaileak, eta uste dute horrek herriaren konpromisoa erakusten duela, kopurua "potoloa" delako. Halaber, egoera aldatuz doa, eta kontziente dira parte hartzeari eustea "kosta" egiten zaiela. "Jendea ja urteetan ari da Alardean parte hartzen, eta belaunaldi aldaketa behar da. Haiek guztiak sasoian daude oraindik, baina adinean aurrera doaz, eta aldaketa behar dute".

Adierazi duenez, herritar gutxienez bat da deialdia, baina, batik bat, gazteentzat, erantsi baitu gaztetxoek-eta parte hartzen dutela, baina nagusitu ahala utzi egiten dutela.

Antzuolako Udala ere bat

Udalak ere bat egin du. "Antzuolako ekitaldi inportante bat da, Udalak babestu eta lagundu duen jendaurreko ohitura bat; haren antolakuntzaz ere urteetan arduratu da, eta orain elkarteko partaide da; alabaina, aurten, jendeak atzera egingo duen belurra dago", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Alabaina, Legorburuk adierazi du lehen hurbilpen batzuk egin dituztela, aurretik parte hartu izan dutenekin kontaktuan daudela. Telefono-zenbaki bat ere jarri dute herritarren eskura, eta, beraz, interesa duenak 643 52 96 00 zenbakira dei dezake. Horrez gainera, *antzuolakoalardea@gmail.com* helbide elektronikoa martxan dute, eta aurrez aurre informatzeko aukera ere izango da, mahai bat jarriko baitute apuntatzeko. Bihar izango da hori, San Isidro azokan, eguerdian; baina baita

"UDALAK BABESTU ETA LAGUNDU DUEN OHITURA DA, EKITALDI INPORTANTE BAT"

BEÑARDO KORTABARRIA, ALKATEA

datorren egubakoitz iluntzean eta zapatu eguerdian ere, hilaren 19an eta 20an.

Mairua falta da

Herritarrek izena emateko aukera dute, baina elkarteko kideek ohartarazpen bat egin dute, gonbidapen batekin batera: "Mairuaren papera egiten zuenak iaz aldaketa eskatu zuen, eta urte osoan ibili gara norbaiten bila, baina oraindik ez dugu aurkitu; gonbidapena egiten dugu mairuaren papera egiteko". Gainera, erantsi dute norbait prest egongo balitz alboan izango litzukeela elkarteko kideak bidea elkarrekin egiteko: "Lagunduko genioke denen artean lan hori ahalik eta txukunen egiten".

Elkarteko kideek zein Udaleko ordezkariak argi baitute helburua Mairuaren Alardea mantentzea dela. Legorbururen arabera, "ondare kultural inportantea du", historiarengatik ez ezik, esaterako, musikarengatik eta dantzengatik, eta horri eustea funtsezkotzat dute. "Gure ondarea da, herritar bezala bereizten gaituena, gure nortasuna adierazten duena; babestu beharreko altxorra da".

"GURE NORTASUNA ADIERAZTEN DU; BABESTU BEHARREKO ALTXORRA DA"

XABIER LEGORBURU, ELKARTEKO KIDEA

Landatxope elkarteak berritu egin du zuzendaritza batzordea

2023ko batzar nagusia egin zuten hilaren 4an; 2022an egindakoez eta aurten egitekoez jardun zuten

A.R.K. ANTZUOLA

Jose Angel Arbuluk, Claudia Alvarezek, Josefina Aramendik, Ima Beristainek, Avelino de Jesusek, Angel Peñalbak, Jose Carlos Dominguezek, Mari Kontxi Laskurainek eta Jesus Zubikaraik osatzen dute zuzendaritza batzordea, Iñaki Elortzak, Maria Nieves Zabalok eta Lorentxo Iturbek utzi egin baitute.


Diru kontuak ere izan zituzten mintzagai. Iazko balantzeari dagokionez, sarreraren eta gastuen arteko diferentzia "positiboa" izan da, baita tabernakoa ere.

Are gehiago, aurrekontua ere zehaztu dute aurtengorako: 9.557 eurokoa izango da, aurreikuspenen arabera.

Ekintzak eta helburuak

2022an egindakoen berri ere eman zuten; besteak beste, tailerrak, bisita gidatuak eta ikastaroak egin dituzte, eta aurten ere hala egingo dute. Gainera, 2023rako helburuak ere zehaztu dituzte: Antzuola Lagunkoia bultzatu nahi dute; baita gimnasia orako dirulaguntzak ere, Antzuolako Udalaren bitartez.

GORA ETA BEHERA



Txakurrak bai, baina kakarik ez

Txakurrak baietz baina txakur-kakak onartu ezin daitezkeela salatu du herritar batek Goienara bidalitako kexaren bitartez. Kasu horretan, kaka-mokordoa, elkarte baten ate aurrean.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Mendi irteera

Arrola mendizale elkarteak antolatu du maiatzaren 20rako. Orixolera joango dira, eta arrolamt@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

Odola ateratzea

Odola ematea izango da martitzenean, Torresoroan, 16:45tan hasita. Goizean, 943 007 885 telefono zenbakira deitu behar da hitzordua eskatzeko.

AKE eguna

Ekainaren 3an ospatuko da, eta bazkarirako txartelak salgai daude Larrea, Aitz Garbi, Mox eta Ongi Etorri tabernetan maiatzaren 21era arte.

"Asmoa da gurasoei baliabideak eskaintzea"

SAROA BIKANDI LOPEZ 'AZALERAKO IPUINAK' TAILERREKO GIDARIA

Martitzenenetik aurrera egingo du tailerra ipuin kontalari durangarrak. 0-2 urte arteko umeei eta haien gurasoei zuzenduta dago, eta liburutegian izango da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Saroa Bikandi (Durango, 1978) ezaguna da Elgetan. Kontalaritza saioak egin izan ditu, eta tailerrak ere bai.

Badira urte batzuk Elgetan Azalerako ipuinak tailerra egiten duzula. Zenbat izango dira?

Bost bat urte izango dira honezkeroko. Egia esan, oso gustura joaten naiz Elgetara. Herri txikia da eta oso giro atsegineko taldeak osatzen dira. Berezia da benetan.

0-2 urte arteko umeendako eta haien familiendako tailerra da. Adin tarte horri zer-nolako arreta eskaintzen zaio, orokorrean?

Gero eta handiagoa, esango nuke. Saiatzen gara, behintzat. Egia da ez dela adin errazenetakoa, baina badago zer landu, eta horretan gabilta. Erantzuna ere ona izan ohi da.

Martitzenean hasita, ordubeteko hiru saio egingo dituzu Elgetako liburutegian. Zelan egituratuko dituzu?



Saroa Bikandi ipuin kontalari durangarra. KURUTZIAGA IKASTOLA

Asmoa da gurasoei baliabideak ematea, gero etxean erabiltzeko. Jolasteko, esango nuke. Egingo dugu hurbilketa bat irakurketa eta ahozkotasunera. Pentsatzen dut hortik abiatuta gero nork bere bidea egiteko tresnak

jasoko dituela. Saio batetik bestera, gainera, denbora izango da ikasitakoak etxean praktikan jartzeko.

Kantuak, olerkiak, hitz-jokoak, ipuin laburrak, musikak, jolasak... Non-dik ateratakoak dira?

Gorputzarekin lotutako kantuak eta jolasak izan ohi dira; izan ere, adin tarte horretako umeak gorputzetik ikasten ari dira. Arreta maila onena gorputzarekin lotutakoekin agertzen dute. Bideoak eta audioak ere badituzte eskaintzeko, eta etxean lantzen jarraitu daiteke gero ere.

Tradizio handia dago halako kantu eta jolasetarako?

Izugarria. Nik, azkenean, bilaketa- eta batze-lana egin dut. Edan dut tradizioetik, literatura liburuetatik, poesiatik, folkloreakaren inguruan dagoen materialetik...

Zer-nolako jarrerarekin joan behar dute parte-hartzaileak?

Semearekin edo alabarekin gozatzeko eta ondo pasatzeko jarrerarekin, nire ustez. Eta jolastera ere bai.

Hegoa proiektuan zabilta, Galtzagorri elkarteak kide ere bazara... Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna nola bultzatu kezka den sasoi honetan, zer esango zenuke zuk? Nola lortzen da hori?

Txikitatik hasita eta bitartekaritzarekin; hau da, nagusien inplikazioarekin. Halako tailerrak oso ondo daude eta oso lagungarria izan daiteke literaturan apur bat kuxkuxeatzea zer dagoen eta nola dagoen eza-gutzeko. Helduaren motibazioa oso garrantzitsua da umearen-dako. Eskutik oratzea eta esatea: "Goazen ikustera zelakoa den literatura!" edo "erakutsiko dizut hau eta gero beste hau" edo "gaur

jolastuko gara liburu honekin"... Baliabideak asko daude. Hemen asko idazten da ume eta nerabeendako. Euskal Herrian idazle eta ilustratzaile asko ditugu haur literatura sortzen, eta material ona egiten da.

Ikastetxeetan ere egiten dituzu saioak irakasleekin. Eskolaren funtzioa garrantzitsua da?

Zalantzarik gabe, baina uste dut eskoletan argi dutela gaia. Egia da Haur Hezkuntzan Lehen Hezkuntzan baino gehiago ematen dela, baina lantzen dute.

Orduan, etxean dago egitekoa, ezta? Umetan irakurtzen dizkiegu ipuinak, baina irakurtzen hasten diren unean alboratzen dugu, gehienetan, kontu hori.

Bai, eta garrantzitsua da jarraitzea. Gehituko nuke ume bakoitzak mundu bat dela eta ze gai eta ze estilo ez dagoela jakiterik. Egin behar dena da apur bat denetik irakurri, eta umearekin batera joango gara deskubritzen zer duen gustukoaren eta zer ez. Helduoi berdina gertatzen zaigu: ze irakurle mota garen jakiteko denetik irakurri behar dugu. Aukeratzeko, ezagutu egin behar da. Umei denetik ematea, hori izango litzateke lehen pausoa.

"IRAKURZALETASUNA SUSTATZEN DA HELDUON BITARTEKARITZA ETA INPLIKAZIOAREKIN"



JOSE ANTONIO OJANGUREN

46 lagun egun-pasa egiten

Elgetako Xalbadorpe elkarteak antolatuta, herriko erretiratuek eguaztenean egin zuten udaberriko irteera. Eguraldia ez bazuten oso aldeko izan ere, Ordiziako azokan izan ziren lehenengo eta Donostian egin zuten geldialdia bazkaldu aurretik.

Aski ezaguna den Aginaga sagardotegian egin zuten bazkaria —argazkian—, eta bapo bazkaldu ostean Zarautzen egin zuten irteerako azken geldialdia. Kostako brisaz gozatu ostean itzuli ziren Elgetara, egun osoko txangoa egin ostean.

Debagoieneko Atzegi Eguna Elgetan izango da, ekainaren 3an

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, bueltan da Debagoieneko Atzegi Eguna, eta Elgetan ospatuko da, ekainaren 3an. "Egun berezia izan ohi zen, eta Elgetan egitea tokatzen zenean heldu zen etenaldia, pandemiaren ondorioz. Hainbat familia elkartu gara ospakizuna antolatzeko eta berreskuratzeko", azaldu du Atzegiko kide Garbiñe Sarasketa elgetarrak. Eguerdian hasita, urteko batzarra, bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte. Bazkarirako izen-ematea zabalik da, maiatzaren 19ra arte. Prezioa 18 euro da. 2013an egin zen azkenengoz Atzegi Eguna Elgetan. Festa ibiltaria da eta herriz herri egiten da.

OHARRAK

Ipuinen Ordua

Liburutegiko ipuin kontalari boluntarioen eskutik kontalaritza saioa gaur, 17:30ean hasita.

Haur Eskola

Irailaren 6tik aurrera hasi nahi duten erabiltzaileendako zabalik da izen-ematea, hilaren 16ra arte. Argibideak, Elgetako haur eskolan edo haurreskolak.eus atarian.

Hitzaldia egunean

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, *Zahartzaro berri baterako urratsak* izenburuko hitzaldia egingo du Javier Yanguas gerontologoak, 18:00etan, udaletxean.



Iheskide taldearen kontzertu bat; jaietako barikuan joko dute Elgetan. IHESKIDE



Umeen eguneko puzgarriak iazko jaietan. IMANOL SORIANO

Zazpi aste eskas herriko jaiei hasiera emateko

Kartel lehiaketa martxan da, umeen euskal dantzen ikastaroa ere bai. Jai batzordetik jakinarazi dute Mugi Panderoa taldeak joko duela eguenean eta Iheskide taldeak barikuan. Oraindik argitzeko dago domekako azokan ganadurik izango den edo ez

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Ekainaren 29tik uztaillaren 2ra bitartean izango dira aurreko Ferixa Nagusiko jaiak. Zazpi aste eskas gelditzen dira, beraz, jaiei hasiera ematen dien mozorro jaitsierarako. Jai Batzordea hilean behin elkartu da otsaila ezkerre, eta esan daiteke antolaketako lan handienak bideratuta daudela. "Hurrengo batzordea eguaztenean egingo dugu, maiatzak 17. Hain zuzen, 20:00etan elkartuko gara", azaldu du Jai Batzordeko kide Ane Bilbaok. "Azken kontuak lotzen ari gara. Konturatu orduko jaiak gainean ditugu, eta gehiena lotuta dago".

Bilbaok aurreratu du ohikoa den egitura izango dutela Ferixa Nagusiko jaiak aurtengoan ere. Hala, Mozorro Eguna izango da eguna, Umeen eta Erretiratu Eguna barikua, Herri Eguna zapatua eta Ferixa Eguna domeka. Jai Batzordetik aurreratu dutena da eguneneko kontzertua Eibarko eta Elgoibarko gazte parrandazalez osatutako Mugi Panderoa erromeria taldeak egingo duela —egonda daude Elgetan 2020ko Euskararen Egunean—, eta barikuko kontzertua Elorrioko Iheskide punk-rock taldeak egingo duela. "Domekan, berriz, pilota partiduak izango dira, iaz bezala. Baikoko lau eta erdiko San Fer-

min torneoko finala Elgetako udal pilotalekuan jokatuko da".

Azoka eguna

Iaz, lehenengo aldiz, ganadu barik egin zen Elgetako Ferixa Nagusia. Ganaduzaleek plantoa iragarri zuten, eta ganadua eraman ordez animalien argazkiak ipini zituzten azokan animalien dako egokitutako gunean. Salatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundia "oztopoak" jartzen ari zela ganadua azoketara eramateko. Elgetako Udal Gobernuak bat egin zuen ganaduzaleen plantoarekin, eta Aldundiak, berriz, "arduraz" jokatzen ari zela argudiatu zuen, eta IBR gaitza jarri zuen erabakiak har-

tzeko arrazioen muinean —abelgorriei erasaten dien herpes motako birus bat—.

Argitzeko dago aurtengo azoka ganaduzaleekin egingo den edo ez. "Eskaria eginda dago, baina oraindik ez daukagu Diputazioaren erantzunik. Hala ere, esperantza daukagu eta horrela izaten saiatuko gara", azaldu du Bilbaok.

Jaietako kartel lehiaketa

Jai Batzordeak deituta dauka Ferixa Nagusiko kartel lehiaketa. Martitzena da lanak aurkezteko azken eguna, hilak 16. Aurkeztutako lanak zeramika-gelan egongo dira ikusgai, zazpi egunez, datorren astetik aurre-

ra: hilaren 17tik 23ra. Herriarren botoekin erabakiko da irabazlea; izan ere, aurreko urteetan bezala, online botoa emateko aukera izango dute. Boto gehien jasotzen dituen kartela izango da irabazlea. Jai Batzordeak hilaren 24an emango du irabazlearen berri. Egileak 100 euroko saria jasoko du.

Umeen dantza ikastaroa

Martxan da, baita ere, umeendako euskal dantzen ikastaroa. Eguaztenean egin zuten bigarren saioa, eta, ekainaren 28ra bitartean, astero elkartuko dira 5 eta 12 urte arteko neska-mutikoak eta Bergarako Moises Aspiazu dantza taldeko Maite Lazkano. 25 bat lagunek eman dute izena; gazteenen taldean hamabi dira eta nagusiagoen taldean, hamahiru. Jaietako Herri Egunerako dantza saioa prestatuko dute. Pandemia tarteko badira urte batzuk egin ez dela. Txikienek, besteak beste, txulalai, zapatagin dantza, esku dantza eta polka dantzak prestatuko dituzte. Nagusiagoek, berriz, banakoa, zazpi jauzi, kontradantza eta agurra. Hori da hasiera bateko asmoa.

Gazte Asanblada ere lanean

Elgetako Gazte Asanblada ere Ferixa Nagusiko jaiei begira jarrita dago azken asteotan. Urtarrilean egin zuten jendaurreko aurkezpen ekitaldia, eta apirilean heldu zen lehenengo ekitaldi sorta, *Intxortako guda* 87. urteurrena lelopean. Oraingoz detaile askorik eman ez badute ere, adierazi dute barikua elkartzen direla herriko jaiak prestatzeko. Gaur bertan ere elkartzekoak direla jakinarazi dute. Batzar horiek zabalik daude herriko gazte guztiei.



Barazki eta fruta postua iazko Ferixa Nagusiko jaietan. IMANOL SORIANO

Ipintza institutuaren mende erdia, argazkitan

Elgetar ugarik ikasi du han, eta erakusketa domekara arte izango da ikusgai, zeramika-gelan

L.Z.L. ELGETA

Bergarako Ipintza institutuak mende erdi bete du, eta, 50 urtez lanean, denok batera aurrera bidean leloa oinarri, hainbat ekintza egiten dabilta. Maiazaren 20an egingo dute Ipintza Eguna. Aurretik, mende erdiko ibilbidea jasotzen duen argazki erakusketa zeramika-gelan izango da ikusgai domekara arte.

Bergarako Aroztegi aretoan eta Antzuolako Olanar Etxean ikusgai egon ostean, Elgetako zeramika-gelan dago orain erakusketa.

Gaur-gaurkoz, Bergarako institutuan egiten dituzte Bigarren Hezkuntzako zein batxilergoko ikasketak elgetar gehienek, eta 50 urteotan asko izan dira institututik pasatako herriarrak; gaur egungo ikasleen gurasoak haietako asko.

Erakusketa hamahiru panel handik osatzen dute. Hantxe ikus daitezke institutuaren irekierako agiriak, baita handik pasatako ikasle eta irakasle askoren argazkiak ere. Erakusketa oso grafikoa da, eta atzo ezkerre dago ikusgai. Gaur, barikua, 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik; bihar, 17:00etatik 18:30era; eta domekan, 10:00etatik 12:30era.

Gurasoendako gogoeta saio irekia eguaztenean

Teknologia berrien erabilarekin kezkatuta, gogoeta saioa antolatuko dute Maala guraso elkarteak eta Elgetako liburutegiak, Herri Eskolaren babesarekin. Hitzaldi bat egin zuten aurreko astean, eta gurasoendako saio irekia deitu dute eguaztenerako, 18:30ean. Aipatuko direnen artean: *Seme-alabei mugikorra noiz? Zertarako? Sare sozialak?...*

"Hogeitik gora errota izan ziren batera lanean"

TOMAS IGARTUA ARRUE ARTIXA ELKARTEKO KIDEA

Errotek Oñatin izan duten presentzia eta garrantzia aztertzen ordu asko egin ditu Tomas Igartua Arruek Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gipuzkoako Erroten Eguna da domekan, eta bisita berezia egingo dute Turismo Bulegoan dagoen San Migel errota ikusteko, 11:00etan. Gaur, Protokoloen Artxibora egingo dute irteera. Hango dokumentuak ondo ezagutzen ditu Artixa elkarteko kide Tomas Igartua Arruek (Oñati, 1952); egunean San Telmo museoko mahai-inguruan hartu zuen parte.

Nolatan hasi zinen erroten historia aztertzen?

Beste edozein izan zitekeen gaia, baina errotetan arreta jarri, zerrendan asko zeudela ikusi eta horrelaxe hasi nintzen.

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa izan duzu informazio iturri nagusi?

Bai. Dokumentu asko daude gordeta artxibo hartan, mende askotakoak. Esaterako, jabeen eta errotarien zein bezeroen arteko tratua asko agertzen dira dokumentuetan.

Errota asko egon dira Oñatin sasoi batean edo bestean?

XV. eta XVII. mende artean egon ziren martxan gehienak, hogeik baino gehiagok funtzionatzen zuten, aldi berean, hainbat urtetan. Metro gutxitan bat baino gehiago zeuden. Adibidez, 500 metroren barruan zeuden Toki-Ilo, Santikurtz, Murgi-errota eta Leantzibar.

Zer ehotzen zuten?

Hainbat zereal mota. Garia, esaterako, irina egiteko; baina baita artoa, artatxikia eta garagarra ere, adibidez. Normalean, bi errota-harri egoten ziren: batean garia ehotzen zuten; eta artoa eta animaliendako pentsua bestean. Errotak negozio ziurrak ziren garai hartan, jendeak jan egin behar zuen eta.

Nolako harriak ziren errota-harriak? Nondik ekartzen zituzten?

Hareharritzkoak, baina gogorrak. Oñatin haize-errotak baino behereago dagoen eremu batean



Igartua, Turismo Bulegoan dagoen San Migel errotaren aurrean. IRINA ALVAREZ

"ITALIAR BATEK KALKULATU ZUEN ZALDI BATEN INDARRA ZAZPI PERTSONAREN ADINAKOA ZELA"

zeuden harrobiak; hiru aurkitu ditugu dagoeneko eta datozen asteetan laugarrena baieztatu dugu, ziurrenik. Gerora, Jaizkibeldik, Trebiñutik eta Frantziatik ekarri zituzten.

Noiz hasi zen gainbehera?

XIX. mende erdira arte edo antzera bizi izan gara, baina aldaketak izan ziren, bai. Behin, italiar batek kalkulatu zuen zaldi batek zazpi pertsonak adinako indarra egiten zuela. Beraz, hiruzpalau zaldiko errota batek, hogeitaz bat laguneko. Ondorioz, errotak erosten hasi ziren industrializazioarekin batera zabaldu zituzten lehendabiziko tailerrekin. Adibide garbiena Garayrena dugu Oñatin. Bedoñatik etorri ziren eta pospolo fabrika zabaldu zuten hemen. Indarra behar zuten, eta, horretarako, Olaldeko ola erosi zuten, ur-salto txiki harekin euren makinak

mugiarazteko. Beste adibide bat dago San Pedron. Jardin-azpiko presan egin zen Oñatiko azken errota, 1865. urte inguruan, eta hango errotaria han ondoan egin zuten iltzeen fabrikako bazkide egin zen, hark errota erosita. Industriekin batera galtzen hasi ziren, uholdeekin ere zapuztu zituzten asko, egurrezkoak izaten ziren-eta presa batzuek...

Tartean, argindarra sortu zen.

XIX. mende bukaeran finkatu zen hemen elektrizitatea. Argindarra sortzeko ur-salto altuak behar dira. Errekak goitik beheara doaz, eta kanalak egiten hasi ziren, horizontalean, presak egiteko. Errotako eskubideak erosi zituzten orduan enpresari, eta errotariak ur barik gelditu ziren, indar barik, ezin lanik egin. Eta, poliki-poliki, ixten joan ziren. Zerrajerak, adibidez, obra asko egin zituen Oñatin, eta errota asko gelditu ziren lehen beste eho barik. Eta azken errematea izan zen jendea fabriketan lanean hastea. 1960ko hamarkadan utzi zioten garia ehotzeari herrian gelditzen ziren errotek. Egun, bakarrak ehotzen du zertxobait, Olabarrietakoak.

2,16 milioi euro gehiago jasoko ditu Oñatiko Udalak Europatik

Emakumeen Etxerako, azokarako, aparkalekuetarako eta Torreauzotik Usakorako bidegorrirako izango dira

O.E.G. OÑATI

Oñatiko Udalak 2,16 milioi euroko beste laguntza bat jasoko du Europar Batasuneko Next Generation funtsetik, proposamen sorta PSTD Helmugako Jasan-garritasun Turistikoko Planetarako 2023ko ezohiko deialdian aurkeztuta. Turismo jasanga-riaren aldeko apustua egin du Udalak proposamenetan, herriaren "identitate propioa" kontuan eta "banaketa orekatua eta iraunkorra" oinarrian hartuta. Onartutako egitasmoak dira: Emakumeen Etxearen eraberritzea

–600.000 euro–; Usakorako bide segurtasuna bermatzeko Torreauzoko zubitik bidegorria egitea eta hango ingurune naturala hobetzea –769.000–; herrigunean disuasio-aparkalekuak egitea –200.000–; Arantzazuko eta Araozko aparkalekuen kudeaketa automatizatua –126.000–; eta plaza-ko azoka zein haren inguruak hobetzea –300.000–. Urtarrilean, 532.000 euroko laguntza jaso zuen, Natur Eskolaren birgaitzeari lotuta. Egindako bidearen aitor-tza modura ulertzen ditu Udalak laguntza horiek.

NIRE USTEZ



JOSU ZUBIA

Oso pereza handia, bai

Hauteskundearen inguruan idatziko nuke, gustura asko, baina pereza izugarria ematen dit. Alde batekoaz zein bestekoaz aise hitz egingo nuke, baina pereza izugarria ematen dit. Umorearen mugez hitz egingo nuke plazerez, baina pereza izugarria ematen dit. Txisteekin ofenditzen diren horientzako idatziko nuke gustuz, baina pereza izugarria ematen dit. Oro har ofendituta bizi diren horiekin ere hitz egingo nuke, baina pereza izugarria ematen dit. Zailtasun ulergaitzak jartzen dituztenen kontra ere idatziko nuke, baina pereza izugarria ematen dit. Sistemaren hutsunez idaztekoan egon naiz, baina pereza izugarria eman dit. Kontrako hesian jarraituko dut, baina pereza izugarria ematen dit. Pereza izugarria ematen didalako ez dut ezer esango eta beste batzuentzat utziko dugu hitza eta plaza. Komedia jardunaldi bat antolatu dugu eta ekainaren 2an eta 3an Oñati zerbaiten pizgarri izango da: bakarrizketak, mahai-ingurua, tertulia, ikuskizuna... denetik egongo da. Ez da barrea faltako! Ea horrela pereza ematen didan guztiari barre egiten diodan.

San Juan sua antolatze deialdia egin du Udalak

San Juan sua antolatze deialdia zabalik dago. Antolatzailaren betebeharrak hiru izango dira: sua piztu eta itzali, hesiak jarri eta kendu eta publikoaren zainketa lanak egin. Udalak beharrezko baliabideak jarriko ditu; 16 urtetik gorakoek har dezakete parte antolaketan. Ekainaren 9a da idazteko epemuga: kultura.idazkaritza@onati.eus.

OHARRAK

Hika Eguna bihar

Bazkaria eta hika-poteoa arratsaldean, Ingo Xonau! elkarteak antolatuta.

Argia kenduko dute

Bi argi mozketa astelehen eta martitzen gauetan, Bidebarrieta inguruan.

Bingo saio berezia

Martitzenean, 17:00etan, Lagun Lekun, Eltzian.



EH Bilduren Herri Programaren aurkezpena. IÑIGO BARRENA

Herri Programa aurkeztu die EH Bilduk herritarrei

"Herritik eta herriarekin" egindako urtebeteko lanaren ostean, "oñatiarren bizitza duina bermatzeko eta egungo erronkei aurre egiteko" programa aurkeztu dute. Bertan, aurrera eramateko asmoa duten sei egitasmo eta bederatzi lan-ildo dituzte

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI Oñatiko EH Bilduk egungo errealtateari erantzuteko Herri Programa aurkeztu du. Iazko maiatzaren ezker, "herritik eta herriarekin" jardun dute lanean, eta datozen urteetarako bide-orria izango den programa osatu dute. Hala, "bizitza duinak bermatzeko" sei egitasmo zehatz eta "egungo erronkei erantzuteko" bederatzi lan-ildo batu dituzte.

Egitasmoei dagokienez, honako hauek dira: *Energia berriztagarrien merkaturatzailea sortzea; Harrera plana; Zaintza plan integrala; Zero Bazterkeria egitasmoa; Unibertsitatea herriari zabaltzea; eta Elikadura burujabetzerako bidean.* Izan ere,

horiek proiektu "zehatzak" direla adierazi zuen Izaro Elorza EH Bilduren Oñatiko alkategaia.

Bederatzi lan-ildo

Herrigintzatik eta udalgintzatik garatuko dituzten bederatzi lan-ildoak, berriz, ideia "orokorragoak" direla eta "zeren baitan" lan egingo duten adierazten dutenak direla esan du Elorzak; baina lan-ildo bakoitzak bere barnean proiektu eta egitasmo ezberdin "ugari" izango dituela gaineratu du.

Bederatzi lan-ildoak dira: *Etxebizitza; Herri hezitzailea; Garapen sozioekonomikoa; Euskara eta kultura; Irisgarritasuna eta landa eremua; Basogintza; Na-*

tura eta kirola; Ongizatea; eta Indarkeria matxista.

Guztia herritarrekin batera aurrera eramateko asmoa agertu zuen Oñatiko alkateak, jasotako egitasmoak ezin direla "beste modu batera" aurrera eramanez iritzita.

"Talde sendoa"

Eh Bildutik azpimarratu dute Herri Programan batu dituztenei eta aurretik dituzten erronkei erantzuna emateko "talde ezin hobea" dutela, hain zuzen ere, eta bakoitza bere alorrean "aritu eta aditu" den profil ezberdinekin osatutako zerrenda dutela maiatzaren 28ko hauteskundeetara begira.

Kultura eta gizartegintza lotuko ditu Ganbara Faktoriak

Ekimenen artean daude San Martin egoitzarekin eta Afagirekin elkarlanean egingo dituztenak

O.E.G. OÑATI

Elkartasuna oinarri duen kultura sustatzea da Ganbara Faktoriaren proposamen berriaren funtsa. Elkartasuna, bakardadea, gizartegintza, genero berdintasuna, euskara, ingurumenarekiko errespetua eta halako balioak sustatu nahi ditu, "euskal kulturaren horren esanguratsua den abesbatza musika eta euskal musika lotuz, balio horiekin bat datorren gizarte bat eraikitze beharrezkoa den inpaktu soziala eraginez". Hala, hainbat ekimen egingo dira San Martin egoitzarekin eta Afagi elkartearekin. Gainera, azken urteetan sona handia hartu duen Fair Saturday ekimenaren bueltan, kontzertu solidarioa eskainiko dute. Hain zuzen ere, han batutako dirua gizartegintzan ari den elkarte bat laguntzeko izango da. Gan-

bara Faktoria osatzen duten talde guztiek hartuko dute parte ekimenetan.

Afagik, bulegoa irailean

Abenduaren 24an San Martin egoitzan egiten den jaialdian eta hango aste kulturalean parte hartuko dute Ganbarako kideek egoiliarrekin. Kantu tailerrak egiteko eta Etxeko Abesbatza sortzeko asmoa ere badute. Alzheimerri duten Gipuzkoako pertsonen eta senitartekoen elkarteak kideei zuzenduta kontzertu bat emango dute, "gaixotasuna duten pertsonen familiak egunerokotasunetik aldentu eta une goxo batez lagunduak izateko", Aitor Biain zuzendariak azaldu duenez. Afagiko presidente Iñaki Olalde esan duenez, bulegoa zabaltzeko du elkarteak hemen, "kaltetuei aholkularitza eta sostengua emateko".



Alkategaien arteko debata eguaztenean Goiena telebistan

EH Bilduko alkategai Izaro Elorza eta EAJko Amaia Erostarbe joango dira eguaztenean Goiena telebistara, hilaren 28an egingo diren udal hauteskundeetako debatera. Txomin Madina kazetariak aurkeztuko du saioa. Maiatzaren 17an da programa, 21:30ean eta 23:30ean.

Udaberriko bonuak har daitezke herriko zerbitzuetarako

Herriko merkataritza, ostalari-tza eta zerbitzuetan kontsumitzen laguntzeko bonuen kanpaina martxan dago. 30.000 euro bideratuko ditu Udalak ekimena laguntzera, erdia udaberrikora eta beste erdia udazkenekora. Udaberrikoa, hasita dago; maiatzaren 17ra arte. Parte hartzen duten saltokiak *oñati.bonak.eus* webgunean daude ikusgai.

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Benjamin Pico, kultura etxeko erakusketa gelan martitzen arratsaldean. O.E.G.

Picok margolanak jarri ditu kultura etxean

Hamabost bat urte dira Benjamin Pico Aiegira joan zela bizi izatera, eta haren margolanen erakusketa ekarri du orain Oñatira. Oñatiko pertsonak, txokoak eta elementuak ageri dira kultura etxeko erakusketa gelan dauden hainbat pinturatan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Extremaduran jaio zen Benjamin Pico (Moraleja, 1955), baina urtebete zuela etorri zen etxekoe-kin Oñatira. Kantonoste kalean bizi izan ziren, 9 urte bete zituen arte, Kurtzebidan gero eta San Lorentzon azkenik, ezkondu zenean. Nafarroako Aiegi herri-ira joan zen bizi izatera duela hamabost bat urte, eta koadroak esku artean dituela etorri da orain bisitan.

Aukeratutako margolanak

Hark egindako pinturen erakusketa dago zabalik egun hauetan kultura etxeko erakusketa gelan; hilaren 21era arte ikus daitezke haren margolanak. Guztira, 42 lan ekarri ditu, baina ez dituen guztiak: "Aukeratu egin behar izan ditut, eta, erakusketa Oñatin izanda, bertako txokoak, elementuak eta pertsonak ager-zen diren dezente ekarri ditut", dio hark.

Esaterako, Oñatiko unibertsi-tatea, haren ondoan dagoen

trenaren lokomotora, Maiatzaren Bata plazako iturria, haren jaio-tetxea eta San Migel ondo be-reizten dira ikusgai dauden margolanen artean. Baita Gotzon Osinaga txistulariari, Jabi Eros-tarbe ilustratzaileari eta Lope Agirre antzeztuz Rafa Aranbu-ruri egindako erretratuak.

Ofizio eta afizio

Horiez gain, baina, badira pai-saiak, animaliak eta izadi hilak ageri diren lanak ere. Olio-pin-turak eta akrilikoak dira eta denak tamaina handikoak; 50x70 neurrikoa da txikiena. Baita oso koloretsuak ere: "Kolare biziak oso gustukoak ditut".

Pintura eta errotulazio lanak egiten zituen Picok Oñatin bizi

HILAREN 21ERA ARTE IKUS DAITEZKE MARGOLANAK, EGUNERO, 18:00ETATIK 20:00ETARA

izan zen sasoian. Oraindik erre-tiratu ez duen furgoneta zuri batekin ibiltzen zen batera eta bestera. "Letrak kendu nizekion, baina oraindik ibilgailu berare-kin mugitzen naiz Iruñe aldean, bai. Hara joan nintzenean, Tres Reyes hotelean hasi nintzen mantentze-lanak egiten; margo-tzekoak, batez ere. Horixe izan da nire ogibidea beti, baita nire afizioa ere. Gaur egun, bospasei orduz aritzen naiz koadroak egiten, egunero".

Iruñeko lagunekin

Astelehenean zabaldu zuten margolanen erakusketa, eta Oñatiko lagun asko joan zaizkio agurtzera lehen egunetan. Aie-gin dago orain, baina datorren astean bueltatuko da Oñatira, Iruñeko lagunekin. "Hiruzpalau egun egingo ditugu, Oñati bera eta Arantzazu, behintzat, era-kutsi gura dizkiet eta. Han bizi naiz, baina hemengoa naiz ni; badut herrimina, eta egun hauek bereziak ari dira izaten".

Goi mailako ikastaroa izango dute gimnasia erritmiko taldekoek

Denbora gutxi igaro da Aloña Mendiko gimnasia erritmiko sailak zuzendaritza aldatu due-netik, eta, orduan, gogotsu, ilusioz eta ideia berri eta fres-koekin sartu zirela aitortu zu-ten. Horren adibide da lehen aldiz domeka honetan izango duten ekintza berezia. Donos-tiako gimnasia erritmiko tal-deko Naroa Perez gimnastaren

eskutik goi mailako ikastaroa jasoko dute.

Perez lehen mailako kirolaria da eta haren ezagutza guztiak Aloñako gazte erakusten saia-tuko da. Gimnasia erritmoko saileko helduenek parte hartu-ko dute ikastaroan; guztira, hogeikirolarik baino gehiagok. Goizeko hamarretan ekingo dio-te ikastaroari eta hiru ordu iraungo du, 13:00ak arte. Lehen aldia izanik, ez da publikoari irekitako saioa izango, soilik kirolari eta entrenatzaileentzat.

Herriko Pilota Txapelketan izena emateko epea zabalik

Azken urteetako arrakastarekin jarraituta, Herriko Pilota Txapelketako antolatzaileek beste edizio bat prestatzen dihardu-te. Izen ematea jada zabalik dago eta hilaren 21era arte egongo da zabalik. Bikoteek Aker eta Arrano tabernan eman beharko dute izena eta bikote-ko hamabost euro ordaindu beharko dira.

Beti bezala, bi txapelketa jo-katuko dira: alde batetik, ema-kumezkoena; eta, bestetik, gizo-nezkoena. Arauei dagokienez, bikote bakoitzean pilotari fede-ratu bakarra egon ahalko da, eta, gainera, parte hartzaileek herrikoak edo herrian bizi di-renak izan beharko dute. Hooee-taz gain, izena ematen duten hamar bikoteek epaile lanetan lagundu beharko dute. Lehen fasea ekainean eta uztailean jokatu-ko da; kanporaketak, be-rriz, irailean.

Oñati Abesbatzaren eta Coro Quadrivium-en kontzertua bihar

Oñati Abesbatzaren eta Talave-ra de la Reinako Coro Quadri-vium abesbatzaren arteko tru-kearen barnean lehen kontzer-tua eskainiko dute bihar arra-tsaldean (20:00), agustindarren elizan. Nuria Jimenezek eta Miren Plazaolak zuzenduko du-ten emanaldi horretan, bi abes-batzek elkarrekin abestuko di-tuzte hauek: *Heaven is a won-*

derful place eta *Freedom is com-ing*. Horiez gain, *Maitia, non zira?*, *Kantauri*, *Canción de Ronda*, *Three contemporanylatin settings*, *Ipharadisi* eta *El Aba-nico* kantuak abestuko dituzte.

Kontzertuko sarrerak Txoko-lateixan eskuratu daitezke, bi euroren truke; baita kontzertu egunean ere. Bi abesbatzen arteko hartu-eman horretan, bigarren saioan, Oñati Abes-batza Talavera de la Reinara joango da, urriaren 20tik 22rako asteburuan.



M-28

INFORMAZIO OSOA GOIENAN

MAHAI-INGURUA: GIPUZKOAKO DIPUTATUGAI NAGUSIAK

MAIATZAREN 12AN, EGUBAKOITZA, 21:00ETAN
TXOMIN MADINAK AURKEZTUTAKO SAIOA

ALKATEGAIEKIN DEBATEAK

TXOMIN MADINAK ETA GOIATZ ARANAK AURKEZTUTAKO SAIOAK
21:30EAN ETA 23:30EAN

MAIATZAREN 15EAN, **ARRASATE**
MAIATZAREN 16AN, **BERGARA**
MAIATZAREN 17AN, **OÑATI**
MAIATZAREN 18AN, **ARETXABALETAKO**

ELKARRIZKETAK: GIPUZKOAKO DIPUTATUGAI NAGUSIAK

MIREIA GALARZAK AURKEZTUTA
21:00ETAN

MAIATZAREN 15EAN, **EIDER MENDOZA (EAJ)**
MAIATZAREN 16AN, **MADDALEN IRIARTE (EH BILDU)**
MAIATZAREN 17AN, **MIREN ECHEVESTE (ELKARREKIN GIPUZKOA)**
MAIATZAREN 18AN, **JOSE IGNACIO ASENSIO (PSE-EE)**
MAIATZAREN 19AN, **MIKEL LEZAMA (PP)**



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.



Oihana Kortazar, iaz, Sancti Spiritusen gora, zale oñatiarren artean. ENEKO AZURMENDI

Oihana Kortazar: "Sancti Spiritusen ez da komeni animo oihuekin berotzea"

MENDI LASTERKETAK Domekan jokatu dute Zegama-Aizkorri lasterketaren 22. aldia. Lasterketa birritan irabazi duen Oihana Kortazar elgetarrarekin eta proba horretan dortsala lehenengoz jantziko duen Ainara Uribarri oñatiarrarekin izan da GOIENA

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE
Gainean da Euskal Herriko mendi lasterketa ezagunena, Zegama-Aizkorri. Eta, azken urteotan moduan, lasterketak nazioartean duen oihartzunak eragin du Debagoieneko oso lasterkari gutxi batuko direla irteera puntuan: hamasei, guztira. Bada, proba birritan irabazi duen Oihana Kortazarrekin eta Zegamako dortsala lehenengoz jantziko duen Ainara Uribarriarekin izan da GOIENA.

Uribarri korrikalari gaztea da, baina ez hasiberria. Brooks etxeko ordezkariek Golden Trails Seriesetan egindako lanari esker lortu du Zegaman egoteko txartela, eta, distantzia laburragoe-tara ohituta badago ere, ondo prestatu du domekako mendi maratona: "42 kilometroko lasterketa bakarria egin dut, iazko Espainiako txapelketa, eta ez

du zerikusirik domekan Zegaman aurkituko dudanarekin. Badakit ondo entrenatu naizela eta lasterketa polita egin dezakedala, baina lasai irten nahi dut". Ze denbora egin nahiko lukeen galdetuta, Uribarri irribarre batekin erantzun du: "Ez dizut esango [Barreak]. Nik buruan badut egin nahiko nukeen denbora, baina ez dut esango zein den, ez dakidalako gero betetzeko kapaz izango naizen, eta ez dut halako presiorik nahi".

Oihana Kortazar dagoeneko korrikalari veteranoa da -38 urte ditu-, eta, hala ere, aitortu du

"KOSTA EGIN ZAIT CAMOVITIK ERREKUPERATZEA, BAINA ONDO NAGO"

OIHANA KORTAZAR, MENDI LASTERKARIA

domekarako hasi dela urduritasunak nabaritzen: "Eta hori da kontrolpean mantendu behar dugun gauzetako bat. Izan ere, Zegama-Aizkorri oso lasterketa berezia da euskaldunondako, eta beste proba batzuetan baino gehiago estutzen dugu gure burua. Horrek ez du laguntzen; urduritasunak bidelagun txarra dira".

Iaz, zortzigarren

Iaz, Zegama-Aizkorri zortzigarrena izan zen Kortazar, eta dio aurten ere konformatuko litzatekeela emaitza horrekin: "Izan ere, iaz, lasterketa irabazi nuen [2012 eta 2013] baino marka hobea egin nuen [4.41.41], eta horregatik geratu nintzen gustura. Gainera, lehenengo hamarrak igotzen dira podiumera eta Golden Trail Seriesetara begira garrantzitsua da aurreko hamar horien artean egotea. Eta, noski,

euskal emakumezko azkarrena izatea ere polita litzateke". Domekara begira zelan sentitzen den galdetuta, Elgetakoak dio ondo dagoela, nahiz eta egun batzuetan arduratu samar ere egon den. Izan ere, duela bi aste, Camoviko mendi lasterketa irabazi zuen Galizian, eta aitortu du nahi baino gehiago kostatu zaiola errekuarpea: "Egia da nekatu samar ibili naizela, baina, zorionez, azken entrenamendua saioekin gustura geratu naiz eta esango nuke domekarako ondo nagoela".

Bada, lehenengoz Zegama-Aizkorri egin behar duen korrikalari bati zer gomendatuko liokeen galdetuta, hauxe dio Salomon etxeko ordezkariek: "Lehenengo gauza esango niokeena da pentsatzeko domekako ez dela Zegama-Aizkorri, beste edozein lasterketa dela. Alegia, modu batera edo bestera, baina geure buruari ziria sartu behar diogu, engainatu, ez goazela Zegama-Aizkorri. Izan ere, lasterketa hori dela-eta geure burua izugarri estutzen dugu. Eta gero, lasterketa lasai hasteko, luzea delako. Eta, bereziki, Sancti Spiritusen eta Aizkorriko tontorrean jasoko dituen animoekin ez berotzeko, burua hotz mantentzeko. Gogoan dut lehenengo Zegama irabazi nuen lagun batekin nindola korrika. Eta Sancti Spirituseko jendartera iritsi ginenean lagunak ezer esan gabe aurreratu egin ninduela. Jendeztetako pasillo hartan ezin nuen aurreratu, eta nahita egin zuen, poliki igotzera behartu ninduen. Hau da, animo-mezu horiekin emozionatzea normala da, baina puntu haiek pasa ondoren erabateko isiltasuna etortzen da, eta neurritz kanpo ibili bazara sekulako beherakada izateko arriskua dago".

Domekan, gainera, eguraldiak ez du batere lagunduko. Kortazarrek nahiago du lasterketa sikuan egin, eta Uribarri badaki Aizkorriko harria oso labainkor egongo dela: "Baina andaluziarrak baino hobeto joan beharko dugu...".

"NAHIAGO DUT EURIA BERO GALANTA BAINO; LABAINKOR EGONGO DA HARRIA"

AINARA URIBARRI, MENDI LASTERKARIA

Debagoieneko hamasei korrikalari

Arrasate

- Isidor Caballero.
- Aritz Kortabarria.
- Iker Agirreurreta.
- Mikel Alkorta.
- Danel Remirez.

Bergara

- Eugenio Beldarrain.
- Ander Uriarte.
- Enekoitz Gabilondo.

Oñati

- Aitor Otamendi.
- Pablo Arejolaleiba.
- Xabier Lete.
- Ainara Uribarri.
- Unai Biain.
- Jose A. Fernandez.

Aretxabaleta

- Igor Olalde.

Elgeta

- Oihana Kortazar.

Oharra: Baliteke zerrendan dauden guztiek ez egitea Zegama-Aizkorri lasterketa, lesioengatik edo bestelako konpromisoengatik. Zerrenda izen-emate orri ofizialek ateratakoa da.

Autobusak Oñatitik

Aurreko urteetako arazoak ez errepikatzeke, Oñatiko Udalak baliabide gehiago jarriko ditu. Domekan bertan (07:00-11:00) sei autobus ibiliko dira, 10-15 minutuan behin zerbitzua ematen. Arantzazu Ama kaletik abiatuko dira, Elkar Hezi ikastetxeko autobus geltokitik; hura izango da geltoki bakarra. Zapatuan, berriz, egun osoan autobus bat ibiliko da, orduro. Autobus zerbitzuak doan izango dira. Zapatu gauean Arantzazurako bidea itxi egingo du Ertzaintzak.

lazko borreroa izango du aurrean Aloña Mendik

PILOTA Oñatiko pilotariek Herri Arteko Txapelketako final-zortzirenak jokatu dituzte gaur, 18:30ean hasita. Amezketako pilotarien kontra jokatu dute, Zubikoan. "Iaz eurek bidali gintuzten kalera; kontrario gogorra izango da", dio Ander Biainek

Xabier Urzelai OÑATI
Oñatiko pilotariek aurpegi eza-gunak izango dituzte gaur aurrean, Herri Arteko Txapelketako lehen kanporaketan. Izan ere, Aloña Mendikoeek Amezketako pilotarien kontra galdu zuten iaz lehen kanporaketan. Horren jakitun, Ander Biainek garbi dauka aurrera egiteko gauzak oso ondo egin beharko dituztela joanekean, amezketarrek maila oso politeko pilotariak dituzte eta. "Herri Arteko Txapelketan kontua ez da pilotari ona izatea, kategoria guztietan izan behar dira bikote parekatuak, eta hori ez da batere erraza; harrobi oso sendoa duten herriek bakarrik lortzen dute hori".

Hala, gaur arratsaldeko jaialdian, kadete mailan Etxahun Lizarralde eta Joanes Osese osatuko dute bikotea, gazte mailan Iñaki Barrenak eta Manex Madinagoitiak eta senior mailan Peru Etxegaraik eta Iñigo Erlek.



lazko kanporaketan. IMANOL SORIANO

"Ea lehenengo kanporaketatik bizirik irteten garen; alegia, hiru partiduetako bat irabazten dugun. Senior mailakoan dugu esperantza; izan ere, nahiz eta gure kadete eta gazte mailakoak maila politekoak diren, eurek

oso politari onak dituzte hor. Kadete mailan, esaterako, gureak ez daude ohituta halako kanporaketa bat jokatzera. Gazte mailan, berriz, gureak pilotari onak dira, baina euren pilotarietako bat oso-oso ona da. Ea, bada, nagusietan Etxegaraik eta Erlek partidua irabazten duten".

Joanekeo partidu horien ondoren, datorren asteburuan izango dituzte itzulikoak, Amezketan.

Bergara kanpoan dago jada
Bergarakoek final-hamaseirenetan hasi dute aurtengo torneoa, eta, egiari zor, Altzokoak erraz gailendu dira. Joanekean 3-0 irabazi zuen Altzok, eta, neurri handian, kanporaketa erabakita utzi zuten han; izan ere, emaitza harekin ia ezinezkoa zen itzuliko partiduan, Bergaran, ezustea ematea. Bada, egubakoitzean, sikiera, senior mailakoan partidua irabazi ahal izan zuten Etxanizek eta Rezus-tak (22-16).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Mondra-Elgoibar

Zap. 16:30. Mojategi.

Amaikak Bat-Bergara

Zap. 17:00. Deba.

Aretxabaleta-Tolosa

Dom. 16:30. Ibarra.

Añorga-Aretxabaleta

Dom. 17:30. Rezola.

EMAK. OHOR. ERREG.

Bergara-Amaikak Bat

Zap. 12:00. Agorrosin.

L.Arizmendi-Lagun O.

Zap. 18:00. Azkoagain.

EUSKAL LIGA; GAZTEAK

Aretxabaleta-Vasconia

Zap. 17:45. Ibarra.

Ariznabarra-Bergara

Domeka. 12:15. Gasteiz.

GOREENGOEN MAILA

Bergara-Segura

Zap. 16:30. Agorrosin.

Antzuola-Ilintxa

Zap. 16:30. Eztala.

Elgoibar B-Mondra B

Zap. 17:30. Mintxeta.

Tolosa-UDA B

Dom. 16:30. Idiazabal.

ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta

C-Mutriku

Zap. 15:30. Ibarra..

Aloña Mendi B-Atotxa

Zap. 15:30. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Tolosala-Eskoriatza

Zap. 16:00. Tolosa.

Antiguoko-Mondrate

Dom. 17:00. Donostia.

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, KOPA

Ormaizt.-Soraluce BKE

Egub. 20:00. Zubipe.

P. Salento-Erreka

Bergara

Zap. 19:00. Elgoibar.

GAZTE EMAKUMEZK.

Ingou Arras.-Legazpi

Egub. 18:30. Iturripe.

Aiala-Goizper Bergara

Zap. 11:30. Zarautz..

KADETE GIZON.

Hiru Ther. Aloña-Eibar

Zap. 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

SENIOR EMAKUM.

Goizper BKE-Ostadar

Dom.16:00.Labegaraiaeta.

KADETE EMAKUMEZK.

Easo-Aloña Mendi

Dom. 10:00. Bidebieta.

INFANTIL GIZONEZK.

Gualbi Ointxe-Aldapeta

Zap. 11:30. Musakola.

ERRUGBIA

14 URTEZ AZPIK.

Zarautz-Bastida Akad.

Zap.10:00.Zarautz.

'SAN ISIDRO' PARTIDUA

Zapatua. 17:00etan hasita. ARTko beteranoek antolatuta, klubeko seniorrek, emakumezkoek, Amen taldeak eta beteranoek eurek jokatu duten lagunartekoa.

ATLETISMOA

OTALA-ZELAI KROSA

Domekan. 11:00.

Nagusien lasterketa.

Lehenago gaztetxoek probak egingo dituzte.

PILOTA

HERRI ARTEKOA

Oñati-Amezketak.

Egubakoitza. 18:30.

Zubikoako frontoia.



Otala-Zelai krosa egingo dute domekan. I.S.



Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Almeria norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partida maiatzaren 23an, 19:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 21a



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



"Aita oso kontent dago egin dugun lanarekin"

URBIL ARTOLA MUSIKARIA

1978an Txomin Artolak argitaratu zuen 'Belar hostoak' diskoaren birmoldaketa eskainiko du haren semeak gidatutako boskoteak Seminarixoan gaur, 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Disko "berezia eta apurtzailea" izan zen Walt Whitmanen *Leaf og grass* liburuko testuekin eta Errobi taldeko musikariak lagun, Txomin Artolak grabatu zuena, bada, harrera "polita" ari da izaten Bilboko Loraldia jaialdiak bultzatuta haren seme Urbil Artolak (Hondarribia, 1972) sortu duen *Belar hostoak II* lanak. **6 urte besterik ez zenituen arren, aitaren diskoan parte hartu zenuen. Ze oroitzapen dituzu?**

Oroitzapen ederrak ditut; aita lana sortzen ari zela, hamaika aldiz entzun genituen kantu haiek etxean, eta oso gogoan dut aita kantu baten ahotsak sartzeraren artea eta biok Donibane Lohizuneko estudioan eraman gintuenekoak.

Bilboko Loraldia jaialditik jaso zenuen, 2022an, lan hori birmoldatzeko eskaera; a zelako erronka. Berezia izan zen oso; ez nuen sekula imajinatuko nire kabuz halakorik egitea. Buelta dezenteman nizekion lana nola planteatu eta zeinekin egin, baina inguruan nituen lagun musikariei proposatuta aurrera egin genuen, eta pozik gaude. Disko bikoitza argitaratu genuen, kantu originalak batean eta moldatutakoak bestean.



Urbil Artola musikaria, *Belar hostoak* emanaldian. LORALDIA

"KANTU BAKOITZARI GURE UKITU BEREZIA EMATEN SAIATU GARA, ASKOTARIKO ESTILOAK BATUTA"

Jon Gurrutxaga da abeslaria; argi zenuen ez zenuela kantatu gura?

Egia da sormen prozesuan burutik pasatu zitzaizkidan nik kantatzeko aukera, baina ez dut neure burua kantari nagusitzat sekula hartu, ez dut grina hori.

Gurrutxagarekin harreman oso ona dut, oso gustuko dut haren ahotsa eta kantatzeko modua, eta oso egokia iruditzen zitzaidan proiekturako.

Bost lagun zarete, guztira; zeintzuk dira beste taldekideak?

Gitarrarekin, bereziki, baina teklatuarekin ere bai, Dani Benegas Irungo lagun handi bat. Urteak daroa musika arloan, eta hark eraman du kantuak moldatzen pisu handiena. Bestelako proiektu askotan lagun izan dudana Andoni Etxebeste da bateria-jolea eta askotariko

instrumentuak jotzen dituen Antxon Sarasua da bosgarrena. **Kantu originalak oinarri, baina beste bizitza bat emanda. Zer dio aitak?** Oso kontent dago egin dugun lanarekin. Hasieratik engantxatuta geratu zela esan zidan. Gure fan handiena bilakatu da! Zortzi kantu dira, guztira, eta ukitu berezia ematen saiatu gara bakoitzari: badira blues kutsua dutenak, kaleko edo zirkuko musikarien doinua dutenak ere bai, akustikoagoak... Hitzei dagokienez, testu berak dira, hizkuntza aldetik moldaketa txiki batzuk bakarrik dituzte. Ikargarria da orain dela 200 urte baino gehiago idatzitakoak badira ere berritzaileak izaten jarraitzen dutela zentzu askotan. **Eta zer diote Txomin Artolaren betik jarraitzaileek?**

Denetatik entzun dut; esaterako, proiektuan asko lagundu digun Joxerra Gartzia "bikaina bikainarekin alderatzea ederra da" entzun nion. eta badira 78koa nahiago dutenak ere. Eta ulertzen dut; niri ere gertatzen zait beste proiektu batzuekin sarritan lehenengo bertsioa gustukoago izateko joera hori.

Seminarixoan aurkeztuko duzue gaur, 20:00etan; zelako emanaldia duzue prestatuta?

Iazko Loraldia jaialdian eskaini genuen formatu bera izango du. *Belar hostoak II* lana eskainiko dugu bere horretan, eta Walt Whitmanen beste testu batzuk txertatu ditugu kantu eta kantu artean. Joxerra Gartzia lagun du digu testu horiek moldatzen, eta musikarekin lagunduta eskainiko ditugu.

Seminarixoan izan zara sekula?

Ez, baina aspalditik dut hara joateko gogo, oso gauza politik entzun ditut eta Bergarako aretoari buruz.

Punk-rock gaua gaur Arrasateko gaztetxean

Añube, Brigade Loco, Skabidean eta Azken Sustraiak taldeak izango dira taularen gainean

A.A.J. ARRASATE

Martxoan iragarri zuen Arrasateko gaztetxeko asanbladak gaurko, egubakoitza, 20:00etan hasita izango den kontzertua, eta zaleen artean ikusmina sortu zuen, segituan agortu ziren eta aurrezaleentzako jarri zituzten txartelak. Kontzertuaren egunerako 200 sarrera gorde zituzten, eta bost eurotan izango dira leihatilan eskuragarri.

Bailarako bi talde

Azkenaldian, Oñatiko Lehen Lerroa taldearekin kolaborazioak egiten dihardu Arrasateko eta Bergarako musikariak batzen dituen Añube taldeak, baina aspaldi jo bakoa da herriko gaztetxean, eta "gogotsu" daude gaurko emanaldirako. Anfritroi lanak egitea egokitu zaie, eta alboan izango dituzte "arrakasta handia" duten Bergarako Brigade Loco taldeko lagunak.

Gaurko gaua luzatu egingo den itxura du; izan ere, eskualdeko bi taldeez gainera, 2017an sortu eta dagoeneko lau lan argitaratuta dituen Beasaingo Azken Sustraiak taldea ere gonbidatu dute, eta ska eta reggae doinuak ezaugarri dituen Iruñeko Skabidean formazio jendetsuak borobilduko du kartela.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?

Zatoz **batu-banatu!**

Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.



b + b
batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logela dituen etxebizitza bat errentan hartuko nuke. Telefonoa: 663 48 05 25

Arrasate. Hiru logeladun etxebizitza baten bila nabil errentan hartzeko. 663 46 66 73

Arrasate. Igogailua duen etxebizitza behar dugu errentan, desgaitasuna dudalako. Hiru logelakoa behar dugu eta maiatza edo ekainetik aurrera. Telefonoa: 643 48 56 55

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ONATI

Jatetxerako sukaldariak eta zerbitzariak behar dira. 688 81 85 00

402. ESKAERAK

Arrasate edo inguruan. Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. 621 08 42 81

Arrasate eta inguruan. Nagusiak zaintzen eta denetarioko garbiketarako egiten lan egingo nuke, goizetan, 14:00ak arte. 632 11 44 77

Arrasate. Arrasateko neska arduratsua eta atsegina prest umeak zaintzeko edota nagusiei lagundu edo pasean ateratzeko. Baita orduka ere. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Emakume arduratsua gertu goizetan orduka zaintza edo garbiketa lanak egiteko. 651 96 78 69

Arrasate. Emakume arrasatearra gertu nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiten jarduteko. 688 66 76 91

Arrasate. Goizetan garbiketarako egingo nitzuke. 651 02 03 14

Arrasate. Lokal, taberna zein etxebizitza eraikinetan garbiketarako egingo nitzuke. 608 15 37 07

Bergara. Emakumea gertu egun osoz, orduka edo aste bukaeratan pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Legezko agiriak ditut. 603 77 58 82

Bergara. Emakumea prest garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Egunez eta gauzez. Telefonoa: 676 14 89 00

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Prestasun osoa. 631 46 07 33

Debagoiena. 25 urteko neska nagusiak zaindu eta kalera laguntzeko edota garbiketarako egiteko prest. Egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. Baita ospitalean gauak egiten ere. 661 31 53 28

Debagoiena. 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziarekin. 631 79 87 75

Debagoiena. 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Sei urteko esperientzia nagusiekin. 722 89 60 36

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar gauzez zaintza lanak egingo nitzuke. 602 80 15 38

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 19 08 26

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketarako. 632 63 77 38

Debagoiena. Asteburuetan eta jaiegunetan zaintza eta garbiketarako lanak egingo nitzuke, baita orduka ere. 642 49 94 09

Debagoiena. Egunean zeharreko jardunaldian, orduka edota gauetan zaintza lanak egingo nitzuke. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak. 612 53 92 72

Debagoiena. Emakume heldua, arduratsua eta esperientzia duena, adinekoak zaintzeko eskaintzen da, ahal dela etxean bertan bizi izaten. 642 66 14 74 (Esmeralda)

Debagoiena. Emakumea eberrako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. Telefonoa: 608 64 33 73

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka eta baita gauetan ere. Telefonoa: 676 14 89 00

Debagoiena. Emakumezkoa gertu, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko, orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. Zerbitzari lanetarako ere

prest. Arrasaten edo autobusez heltzeko moduko bailarako beste herriren baten. 632 12 42 80

Debagoiena. Erizain laguntzailea naiz eta orduka lan egingo nuke nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen, pasean laguntzen, garbiketarako edota etxeko lanak egiten. Telefonoa: 676 14 89 00

Debagoiena. Etxeko langile moduan, garbiketarako edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario ikasketekin. 643 73 62 36 edo 643 73 62 83

Debagoiena. Garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 603 19 92 52

Debagoiena. Garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 654 58 58 69

Debagoiena. Garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 641 24 61 95

Debagoiena. Garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukalde lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 656 76 18 70

Debagoiena. Gertu nago orduka zein asteburuetan zaintza edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Gizon zintzoa lan bila dabil adinekoak zaintzen. Telefonoa: 647 21 03 07 (Raul)

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago; zerbitzari lanetan, pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketarako lanetan. Telefonoa: 611 22 91 37

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako, animaliak zaintzeko eta abarretarako. 642 37 95 87

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarako lan egingo nuke. Esperientzia dut zaintza. Orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. 632 43 16 05

Debagoiena. Nagusiak zainduko nitzuke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 659 90 85 13

Debagoiena. Nagusiak zainduko nitzuke, orduka edo gauetan zaintza lanak egingo nitzuke. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 631 95 04 48

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaindu edo atari garbiketarako egiteko. Orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak daukat. Berehala hasteko moduan. 617 81 57 57

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 612 29 74 89 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako aritzeko. Orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izaten. 604 88 27 26

Debagoiena. Orduka, garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 605 02 04 97

Debagoiena. Prestasun osoa lanean hasteko; garbiketa lanetan, denda saltzaile, zerbitzari, kristalari edo eraikuntza lanetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Soziosanitario titulurako ikasten ari naiz eta lanean hastea nahiko nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten, baita asteburuetan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 21 99 06

Debagoiena. Taberna edo jatetxetan zerbitzari bezala jarduteko prest nago. 688 69 59 62

Emakume gaztea, lane-rako prest. Emakumea, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest, orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. Soraluzen bizi naiz, autobusa iristen den herrietan lan egiteko prest. Euskara ikaslea. Deitu telefono zenbaki honetara: 616 27 97 89

Lan bila. Emakume arduratsua Arrasaten edo Oniatan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zainduko nitzuke eta baita umeak ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 654 59 15 55

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH 4-ko ikasle batek eskola partikularak behar ditu Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 32 47 39

8. DENETARIK

802. EROSI

Lursaila Aretxabaleta-Eskoriatzan. Aretxabaletan edo Eskoriatzan, ortua eta fruta arbolak jartzeko lursail baten bila nabil. Erosi edo errentan hartuko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 87 86

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Laida Ullibarri-Arana Sagasta
Maiatzaren 18an, 3 urte.
Zorionak, gure etxeko politxari.



ARETXABALETA
Duna Eskibel Olalde
17an, urtetxo bat!
Zorionak, politx hori!
Patxo potolo bat eta maro-marote danon partetik!



ONATI
Maidar Arenaza Arriaran
Maiatzaren 16an, 5 urte.
Zorionak, txikitxo! Bost urtetzar ja!



BERGARA
Ager Esnaola Tello
13an, 7 urte.
Zorionak, Agertxo! Patxo pila denon partetik; bereziki lizaro eta Arenerenak.



ESKORIATZA
Floren Bachiller
Maiatzaren 13an, 69 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Oso ondo ospatu zure eguna.



BERGARA
Garazi Erasote
11n, 2 urte.
Zorionak etxeko txikitxari! Patxo potolo bat familia danan partetik!



ONATI
Noa Urtaza
Maiatzaren 11n, 10 urte.
Zorionak, Noa! Ondo-ondo pasau eguna eta patxo potolo bat etxeko danan partetik!



ARRASATE
Ilargi Moraza Atxaga
Maiatzaren 11n, 2 urte.
Zorionak, sorgin hori! Tioren eta tiaren partetik. Patxo potolo!



ARETXABALETA
Jon Altube Porras
10ean, 11 urte.
Zorionak, Jon! Musu eta besarkada handia familia guztiaren partetik!



ONATI
Helene Erle Agirre
9an, 8 urte.
Zorionak, maitia! Primeran ospatu! Patxo potolo bat danon partetik!



ARRASATE
Joseba Ortiz Agirre
9an, 37 urte.
Zorionak, truhan, urte askotarako!



ONATI
Garazi Abarzuza
Maiatzaren 9an, 35 urte.
Zorionak, amatxu, urte askotarako. Maite zaitugu. Ioritz, Ekaitz eta aitatxo.



ONATI
Gotzon Aranguren
Maiatzaren 9an, 49 urte.
Zorionak, makina, urte askotarako.



ARRASATE
Peru Madinabeitia eta Ane Elgarresta
Zorionak, xagutxo eta amona! Muxu potolo bana!



ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 10 urte.
Zorionak, Xabier! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Muxu pilo bat familiaren partetik; bereziki Markel eta Lararenak.



BERGARA
Lia Mengual Fernandez
8an, urtebete.
Zorionak, maitia! Asko maite zaitugu. Aitaxoren eta amaxoren partetik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERRI-ZAKUA



1940an jaioetako arrasatearrak
Maiatzaren 6an elkarrekin pasa zuten eguna: 12:30ean meza entzun ondoren, txikiteoa egin eta Txokon bazkaldu zuten. "Ederto pasa genuen, giro paregabearekin".



Taula gainean
Ipuinaren Astearen barruan, Arrasate institutuko lehenengo mailakoak Arrasate Herri Eskolako Musakolan eta Bedoñaben egon ziren, HHkoendako antzerkia egiten.



Urrezko ezteiak
Gaurko egunez, duela 50 urte, ezkondu ziren Jesus Mari Apraiz eta Ane Miren Gallastegi arrasatearrak. "Aupa zuek! Asko maite zaituztegu. Zuen familia".

OROIGARRIA



Iosu Moncayola Beain

Eskolako gurasoa

2023ko maiatzaren 9an hil zen, 62 urte zituela.

San Martin Agirre ikastetxeko Hezkuntza komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.



Bergaran, 2023ko maiatzaren 12an.

OROIGARRIA



Guiomar Fernandez Aguirre

2012ko maiatzaren 12an hil zen, 35 urte zituela.

Alaitasunez poztu izan duzu zuk beti gure tristura. Hurbilekua beti, etxeko, ederra zure lotura. Famili eta lagunekiko ardura, guztiongan sortuz lilura. Orain gero arte esan arren ere ez dugu negarrik egin gura, haize freskoz etorri zaitezzen goizero gure ingurura.

Bergarako eta Gernikako familia. Bergaran, 2023ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA



Ines Maiztegi Arabaolaza

2023ko apirilaren 30ean hil zen, 97 urte zituela.

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aldi berean, jakinarazten dizuegu zapatuan, hilak 13, 19:30ean, haren aldeko ondraz ospatuko ditugula, Agustindarren elizan.

Oñatin, 2023ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA



Juanita Fundazuri Lariz

Benigno Herizen alarguna
2023ko maiatzaren 5ean hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA



Jose Luis Aranzabal Gallastegui

'Bolinbo'

2023ko maiatzaren 4an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA



Pedro Uribe-Etxebarria Saez de Adana

2023ko maiatzaren 9an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2023ko maiatzaren 12an.

HILDAKOAK

Jose Luis Aranzabal Gallastegui. Bergaran, 4an. 75 urte.

Juanita Fundazuri Lariz. Arrasaten, 5ean. 87 urte.

Francisca Tabares Alcaraz. Bergaran, 5ean. 74 urte.

Provi Perez Pinto. Arrasaten, maiatzaren 6an. 87 urte.

Maria Aranzazu Urzelai Aiausti. Oñatin, 6an. 89 urte.

Andres Parra Lajas. Arrasaten, maiatzaren 8an. 77 urte.

Emilio Garro Gallastegi. Arrasaten, maitzaren 8an. 87 urte.

Jose Luis Astigarraga Galfarsoro. Oñatin, 8an. 83 urte.

Pedro Uribe-Etxebarria Saez de Adana. Eskoriatzan, 9an. 93 urte.

Manuel Balbas Salas. Eskoriatzan, maiatzaren 9an. 85 urte.

Iosu Moncayola Beain. Bergaran, maiatzaren 9an. 62 urte.

Javier Lazpiur Ibarra. Bergaran, maitzaren 9an. 87 urte.



Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahizago baiduzue, jakinarazi zuen araguru-konpainiari gurekin nahi dituzela agurtu maite dituzena.

Mariozen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuzentzeko, gure beharra ditzazuenetako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**ANDONI KORTABARRIA BOXEOLARIA**

Euskadiko txapelketan parte hartu aurretik egingo du berba bergararrarekin Mireia Bikuñak.

'Luzapena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**GIPUZKOAKO DIPUTATUGAI NAGUSIEKIN MAHAI-INGURUA**


Eider Mendoza, Maddalen Iriarte, Miren Echeveste, Jose Ignacio Asensio eta Mikel Lezama, Txomin Madinak gidatuta.

'Hauteskundeak' Egubakoitza, 21:00

**SAN ISIDRO EGUNA**


Baserritarren zaindariaren gaineko saio berezia egingo du Txomin Madinak *Hemen Debagoiena* tartean.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**OTALA-ZELAI KROSAREN LABURPENA**

Aretxabaletako krosaren laburpena egingo du Xabi Urzelaik, irudi onenak eta protagonisten adierazpenak jasota.

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

**UNAI URRETZO ETA ANDONI FERNANDEZ**

Teknologia berriei buruz egingo dute berba Hego Koreatik eta Txinatik, Eneko Azurmendirekin.

'Mundutik, binaka' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 12**ARRASATE San Isidro jaiak**

Egitaraua osorik 11. orrian.
Musakolan.

ELGETA 'Ipuinen ordua'

17:30ean, HH-3. eta 4. mailetakoa; 18:00etan, HH-5 eta LH-1 eta 2. mailetakoa; eta 18:30ean, LHko gainerakoak.
Liburutegian.

BERGARA Ibargaraiko jaiak

Etxafuegoak, buruhandiak eta La Piti Y Los Primos taldearen kontzertua.
Bergaran, 18:00etan.

ARRASATE Askatasuna eta Giza Eskubideen Aldeko Herri Plataformaren aurkezpena

Herritar guztiendako.
Kulturaten, 18:30ean.

ARRASATE XIX. Udaberriko Musikaldia

Cadenza Quartet, Udaberriko XIX. Musikaldiaren baitan.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.

ARAMAIO 'Ta argiya in zan' instalazio artistikoa ikusgai

Urumea ibaiko zentral hidroelektrikoei buruzkoa, Lorabarri azokaren baitan.
Sastiñan, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Todo el tiempo del mundo' antzerkia

1974ko zapata-denda batean girotutako antzezlan. Sarrerak, bost euro.
Zaraia aretoan, 20:00etan.

BERGARA 'Belar hostoak I & II' kontzertua

Txomin Artolaren *Belar hostoak* diskoari zuzeneko itxura emango dio Urbil Artola semeak. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE Añube, Brigade Loco, Skabidean eta Azken Sustraiak taldeak

200 sarrera inguru leihatilan, gaur, bost eurotan.
Gaztetxean, 20:00etan.

ANTZUOLA Bertso saioa

Maialen Lujanbio, Ane Zuazubiskar, Alaia Martin, Aitor Sarriegi eta Aitor Bizkarra bertsotan.
Torresoroan, 22:00etan.

ZAPATUA 13**BERGARA Gimnasia erritmikoa: Gipuzkoako Eskolartekoa**

Besteak beste, Ariznoako gimnastak.
Labegaraietan, 08:30ean.

ANTZUOLA San Isidro eguna

Askotariko ekitaldiak egun osoan.
Egitaraua osorik 24. orrian.
Antzuolan.

OÑATI 'Hartzaren urratsa' ibilaldia: Araotz-Oñati

Izena emateko: puntaikpunta@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
Foruen plazan, 09:00etan.

BERGARA Elkartasun azoka

Hamar gobernu kanpoko erakundek hartuko dute parte; tartean, Mariaren Lagundiko FISC erakundea.
Irala kalean, 10:00etan.

ESKORIATZA Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna

Egitaraua osorik 18. orrian.
Eskoriatzan, 10:00etan.

ARAMAIO Bigarren eskuko azoka

Lorabarri Astearen baitan. Arropa, osagarriak, motxilak, bizikletak, etxetresnak...
Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.

BERGARA Bedelkar Eguna

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, azoka; 12:00etan, musika eskolakoek ekitaldia; eta, 19:00etan, Candem Townekoek performancea.
Seminarioko patioan, 11:00etan.

BERGARA Ibargaraiko jaiak

11:00etan, etxafuegoak eta txistulariekin kalejira; 12:00etan, buruhandiak eta txorizo-pintxoak; eta, 14:30ean, bazkaria eta dantzaldia.
Bergara, Bergara 11:00etan

BERGARA Txaranga Eguna

11:30-14:30: Tximeletak eta Irulitxa txarangak; eta, 19:00-21:00: Bricadeira eta Rockalean taldeak.
Bergaran.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako. Orduetgia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoa, 11:30ean.

ARRASATE Musakolako jaiak: Kuadrillen Eguna

Egitaraua osorik 11. orrian.
Musakolan.

OÑATI Hika Eguna

13:00etan, hika-poteoa; 14:30ean, hika-bazkaria Iturritxon; eta 19:00etan, hika-erromeria.
Oñatin.

BERGARA Narbaiza Bolu errotara bisita

Izena emateko: 943-77 91 00 eta *Bergara.eus.*
Narbaiza Bolun, 13:00etan.

ARETXABALETA Hiru txirlo bola txapelketa

Izen-ematea, bost euro.
Bolatokian, 17:00etan.

ARETXABALETA II. artzain txakurren lehiaketa

Cool, Txuki, Turbo, Kai eta *Bat* txakurrek hartuko dute parte.
Aozaratza auzoan, 17:30ean.

ARRASATE Bandera-jolasa

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Samouil Eta Okiñena bikotea

Udaberriko XIX. Musikaldian.
Juan Arzamendi Musika etxean, 19:30ean.

DOMEKA 14**ARETXABALETA Ojala Zelai Eguna**

Egitaraua osorik 17. orrian.
Ojala Zelain, 10:00etan.

ARRASATE San Isidro jaiak

Egitaraua osorik 11. orrian.
Musakolan.

ARRASATE Suhar korua
Udaberriko XIX. Musikaldian.
San Frantzisko elizan, 19:30ean.

ASTELEHENA 15

ARRASATE San Isidro Eguna
10:30ean, prozesioa Santa Teresa elizatik San Isidorraino; 11:00etan, meza nagusia San Isidron; eta 12:30ean, pintxoak erretiratu en tabernan.
Musakolan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

MARTITZENA 16

ARETXABALETA Odol ematea
Odol-emaille guztiendako deia.
Durana kalean, 16:45ean.

ANTZUOLA Odola ematea
Odol-emaille guztiendako deia.
Torresoroan, 17:00etan.

ELGETA 'Azalerako ipuinak' saioa
Saroa Bikandirekin, 1-2 urtekoendako. Aurrez eman behar zen izena.
Liburutegian, 17:30ean.

EGUAZTENA 17

ARETXABALETA Bertsolariak GSR egoitzan
Sebastian Lizaso eta Uxue Alkorta, Adin Adin ekimenean.
GSR egoitzan, 11:00etan.



KALEKA ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Todo el tiempo del mundo' antzezlan
Aitor Perez eta Javier Liñera zuzendarien lana, 1974an dago girotuta, Flores zapata-dendan. Hara joaten diren bezero guztiei arreta bikaina ematen die ugazabak. Sarrerak, bost euro.
Gaur, egubakoitza, Zairaia aretoan, 20:00etan.

BERGARA Baserritarren azoka
Garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ELGETA 'Heziketa digitala': gurasoendako saio irekia
Teknologia berrieekin lotutako pantailen, bideojokoen eta abarren erabilerarekin kezkatuta, gogoetarako proposamena egin dute guraso elkarteak eta liburutegiak elkarlanean.
Liburutegian, 18:30ean.

ARAMAIO Sokaire biolin bikotea
Klasikoen ibilbide umoretsua egingo dute.
Sastiñan, 18:30ean.

BERGARA Zinegoak
Sarrerak, bi euro.
Seminarixoa, 19:00etan.

EGUENA 18

ARRASATE Sasoibide
Etxaldebarri eta Meatzerreka ingurueta joango dira.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Beltzuria' erakusketa
Gustavo Bravoren argazki bilduma ikusgai.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE 'Adi, natura' liburu bildumaren aurkezpena
Naturan Jolasean ekimena.
Monterronen, 18:00etan.

ARRASATE 'Hostoz hosto erantsi' erakusketa
Ikusgai hilaren 19ra arte.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA 'Zahartzaro berri baterako urratsak' hitzaldia
Javier Yanguas gerontologoak egingo du berba, Xalbadorpe erretiratu en elkarteak gonbidatua.
Udaletxean, 18:00etan.

ARRASATE Birkit
Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 19

OÑATI Odol-ateratzea
Aurrez hartu beharko da ordua: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

BERGARA Eskola kirola
Azken jaia egingo dute.
Labegaraietan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Poetas del rock' solasaldia
Joserra Rodrigorekin, Musika Astearen baitan.
Sastiñan, 18:30ean.

BERGARA 'Generorantz' ikuskizuna
Identitatea, generoa, amatasuna eta bestelako gaiak ipiniko ditu oholtza gainean Kimua dantza kolektiboak. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Los buenos modales
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.
Mavka basoaren zaindaria (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Un paseo con Madeleine
Domeka eta astelehena: 19:30.
Oink, oink
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La quietud en la tormenta
Egunbakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

20.000 especies de abejas
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta eguaztena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:00.
Eguena: 17:30.

Asedio
Egubakoitzetik domeka: 21:15.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Blanquita
Egubakoitzetik domeka: 17:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 21:15.

Dialogando con la vida
Egubakoitzetik domeka: 19:15, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

El incidente alienígena del pequeño Alan (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Guardianes de la galaxia 3
Egunbakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30, 20:30.

La quietud en la tormenta
Egubakoitzetik domeka: 19:15, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

La buenas compañías
Egubakoitzetik domeka: 21:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:00, 21:00.
Eguena: 20:00.

Marlowe
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 19:45, 22:00.
Zapatua: 19:45, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Mi crimen
Egunbakoitza: 19:15, 21:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:15, 21:30.
Astelehenetik

eguenara: 17:00, 21:00.

Museo Hermitage
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Patti y la furia de Poseidon
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Super Mario Bros
Egubakoitza: 17:15, 19:15.
Zapatua eta domeka: 11:45, 17:15, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:10.

Vaya vacaciones
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Las ocho montañas
Astelehenetik eguenera: 21:00.

Si todas las puertas cierran
Zapatua: 17:00.

KRITIKA

Dialogando con la vida ★★★★★
Zuz.: Christophe Honore. **Herr.:** Frantzia (2022). **Aktoreak:** Paul Kircher, Vicente Laoste, Juliette Binoche. **Iraupena:** 122 minutu.

Gertaera aztoratzailea

ANTONIO ZABALA

Lucas 17 urteko gaztea da, istorioaren narratzailea. Ikusleari zuzentzen zaio, azken asteetan haren bizitza nola aldatu den azaltzeko. Lucasek gurasoak eta anaia ditu. Asteazkenean zehar barnetegi baten dago eta aste bukaeran etxera bueltatzen da. Bat-batean, istripu batean, aita hiltzen zaio, eta gertaera horrek eragin aztoratzailea izango du familian eta gaztearen bizitzan. Detalez kontatzen zaigu nola heltzen zaion aitaren heriotzaren berria, heriotzak dituen errietoak eta zeremoniala. Ostean, bizitzarekin jarraitzea tokatuko zaio, eta anaiak Parisera eramango du denboraldi baterako. Gaztea da eta oraindik hazten dago.

Gauzek eragiten diote eta askotan eztanda egiten du. Batzuetan, zaurgarria dirudi; eta beste batzuetan, harroputza. Mota askotako harremanak izango ditu: amarekin, anaiarekin, lagunekin, anaiaren pisukidearekin... Guztiak, intentsitate handikoak.

Modu desberdinean jokatzeko dugu heriotza baten aurrean. Eta zinemak ere oso modu desberdinean islatzen ditu pertsonaien portaerak eta sentimenduak. Kasu honetan, pertsonaiek ez dituzte sentimenduak gordetzen. Horiek eztanda egiten dute eta kanpora irteten dira modu bortitzean. Filmak erakusten digu, modu pertsonalean eta egokian, pertsonaiek bizi duen ekaitz-garaia.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI

Esandakoa bete

Duela egun batzuk lagun diplomazialari batekin garagardo bat hartzen, hauteskunde giroaren inguruko berriketaldi beroa izan genuen. Espainiako gobernu koalizioak eskuinaren bultzadari eusteko izango dituen zailtasunek kezka pizten zioten lagunari, eta nik esan nion Pedro Sanchezek azken boladan egindako iragarpen sortak PSOERI mesede baino kalte gehiago egingo diola.

Bada, nire ikuspuntutik tiraka, lagun diplomazialariak kontatu zidan bere herrialdeko hauteskunde legeak alderdiak derrigortzen dituela aurreko kanpainan proposatutako neurriak bete dituzten edo ez erakustera. Hau da, paskin eta eskuorrietan, kartel zein iragarkietan, alderdiek bete gabe utzi dituzten proposamenak erakutsi behar dituzte, hautesleak jakin dezan hautagaia fidatzekoa edo berritsu hutsa den.

Datozen hiru asteetan lehia bizia ikusiko dugu euskal alderdien artean; batez ere, hegemonia bila ari diren bi indar abertzaleen artean. Hemen horretara derrigortuta ez daudenez, irakurleari gomendatuko nioke alderdiek denbora honetan esandakoa entzuteko, proposamenak irakurtzeko eta, noski, kanpainako ke gortinen gainetik botoa ondo pentsatzeko.

BUKATZEKO



Sandalli Araotzeko leizea, zuri-beltzean. LUCAS GUTHMAN



Olga Martinez, filmean. LUCAS GRAHAM

Beldurrezko filma grabatzen Sandailin

Sebastien Pesle zuzendari eta Jamex Ferrux eta Olga Martinez protagonista izango dituen 'La Bruja' pelikula filmatzen hasi ziren duela bi ostiral Sandaili leizean, eta hantxe egon dira astebetz; ondoren, Elgoibarren jarraitu dituzte grabaketak

Miren Arana Pagaldai OÑATI

La Bruja filmerako grabaketak egiten ibili dira Sandaili leizean, Araotzen; Sebastien Pesle zuzendari, James Ferrux protagonista nagusi eta Olga Martinez sorginaren paperean izango dira. Apirilaren 28an hartu zuten ostatu Araozko Ostatuan, egubakoitza, eta han egon ziren astebetz. Xabier Salaberri os-

tatuko jabeak adierazi duenez, guztira hamabi ziren, eta horietako bat, pelikulan sorgina izango dena, euskalduna zen; hain zuzen, Barakaldokoa.

Folkloriko modernoa

"Umoro eta beldur estiloak nahastuz, euskal folklorean inspiratutako zuri-beltzeko pelikula" bat grabatzea da zuzendariaren asmoa.

Filma fantasia heroikoaren uni-bertsoan kokatuta dago, "giro ilun eta erritu pagano euskaldunekin nahasia": Mercurio, Euskal Herriko gigolo bat, sorgin batek preso du kobazuloan, eta, hainbatetan ihes egiten saiatu den arren, sorginaren botereak amagabeak direla dirudi.

Zuzendariaren ideia film zaharrek gogoratuko lituzkeen peli-

kula modernoa egitea da: "Sam Raimi-ren *Evil Dead* edo *Arrástrame al infierno* pelikulak bezala, gure ideia euskal folklorean inspiratuta beldurrezko eta umorezko film bat egitea da. Filma zuri-beltzean grabatuta dago, eta beldurrezko film zaharrek gogoratuko lituzke, hala nola *La novia de Frankenstein* eta *Drácula*". Aldi berean, estetika "modernagoa" eta "errealista" eman nahi izan diote.

Zergatik Araotz?

Zuzendari frantsesa duela lau urte etorri zen Euskal Herrira, eta buruan zuen pelikula filmatzeko "leku perfektuaren" bila aritu zen. Horrela aurkitu zuen Sandaili leizea: "Toki perfektuaren bila ari nintzen eta Oñati inguruetan galdu nintzen; Arrikrutz deskubritu nuen. Oinez aurrera egin nuen eta Sandailiko koba zoragarriarekin egin nuen topo". Salaberri aitortu duenez, nahiz eta bertako paraje "paregabeak" harritu, Sandaili leizean ibili ziren lanean, eta astebate ostean joan ziren: "Ondoren, Elgoibar aldera abiatu ziren grabaketekin han jarraitzeko, eta beste hiru egun egon ziren".

Araotzeko leizeak "giro magikoa" du, zuzendariaren hitzetan: "Airean giro magikoa dago, naturaren soinuak, eta ermita, aspaldi igaro diren gizakien aztarna gisa, oso irudi arraroa da. Hasieran, haitzuloan sartzeko eta han ibiltzeko ausarta izan behar da; beldurgarria iruditu zitzaidan, baina, zazpi egunez grabatzen egon ostean, beste begi batzuekin ikusten dut: toki natural eta ederra". Hala, pelikularekin toki "zoragarri" hura gorestea gustatuko litzaioke.

**Komunikazio
Campusa
2023**

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

mn

Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



Anima zaitez eta eman izena!

